



KARDABERAZ-2

1973

Nun zer:

- | | |
|--|---------|
| 1.—DOKUMENTUAK | 1-4 |
| 2.—AURRE-ITZAK | 5-8 |
| 3.—BATZAR NAGUSIA | 9-28 |
| 4.—GIZONAK | 29-38 |
| 5.—IDAZLE-ESKOLAKO LANAK | 39-68 |
| 6.—EUSKAL - ERRIETAKO BE-
RRIAK | 69-75 |
| 7.—KARDABERAZTARREN LA-
NAK | |
| I) Aita Olabide eta bere Itzul-
pena | 79-80 |
| II) Zinea ta Euskaldunak . | 81-91 |
| III) Gipuzkoa-ko Kondaira . | 92-105 |
| 8.—BAZKIDEAK | 107-110 |

KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º KARDABERAZ AITARI OMENALDIA
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onaindia eta abar).
- 2.º NEURRIZTIA
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
- 3.º SUGE GORRI
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
- 4.º ESPALAK
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
- 5.º AITONAREN IPUIAK
(Ramon Murua).
- 6.º ERREKA-ZULOAN eta...
(Anastasio Albisu Ayerdi).
- 7.º 1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE
(Larrakoetxea, Bedita).
- 8.º LANDARE-JAKINTZA
(Larrañaga, Gillermo).
- 9.º GARTZI-XIMENO eta...
(A. Albisu Ayerdi).
- 10.º EUSKALERRIA ETA ERIOTZA
(Anastasio Arrinda Albisu).
- 11.º 2 - KOMEDIAK
- 12.º 3 - DRAMAK
- 13.º 4 - DRAMAK
- 14.º 5 - TRAJEDIAK
- 15.º 6 - TRAJEDIAK

} SHAKESPEARE

KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arrinda).
- 4.º KARDABERAZ - 2.

41007 41125 1150
Loma Ino Diputacion Foral de Guipuzcoa

1

Dokumentuak



R. 48139

BERRITZEA: 1970

Excmo. y Rvdmo. Señor :

El que suscribe Anastasio Arrinda y Albisu, Cura Ecónomo de la parroquia de Ntra. Sra. de la Asunción de DEVA e V. E. Rma. expone :

Que en la reunión celebrada en ese Obispado el día 26 de septiembre del presente año para organizar el homenaje diocesano al P. Agustín de Cardaveraz, se le encomendó al infrascrito lo referente a 'Cardaveraz y el Euskera', proponiendo el que suscribe la reorganización de la 'Academia Kardaberaz' que en su día existía en el Seminario de Vitoria.

Consultado el asunto con otros compañeros, miembros de aquella Academia, determinamos constituir y constituimos hoy, de nuevo la antigua 'Academia Kardaberaz', para el cultivo de la lengua nativa, vehículo necesario para la transmisión del Mensaje Cristiano al País Vasco. Obtenida de V. E. la debida autorización, procederemos a convocar una reunión de cuantos deseen pertenecer a dicha asociación.

Así mismo determinamos en serio publicar, con la colaboración de todos, un libro, en euskera, homenaje al P. Cardaveraz en el bicentenario de su muerte, como primer fruto de dicha Academia.

Por todo lo cual suplica a V. E. la aprobación, en cuanto sea necesaria en derecho, de esta reorganización de la 'Academia Kardaberaz' que ha de quedar para el futuro como obra renacida al calor de este Homenaje Diocesano al P. A. de Cardaveraz en el bicentenario de su muerte. Los miembros que dan inicio hoy a esta Academia son : Domingo Irigoyen, Arcipreste de Zumárraga ; Juan José Garmendia Arcelus, coadjutor de Tolosa, Pedro Berrondo, coadjutor de S. Martín de San Sebastián ; Anastasio Albisu, coadjutor de Azcoitia ; Donato Arrinda, Capellán de las Mercedarias de Bériz y el que suscribe.

Deva, 5 de Noviembre de 1970.

Anastasio Arrinda.—Rubricado.

Excmo. y Rvdmo. Sr. Obispo de la Diócesis : San Sebastián.

Concedido como se pide.

San Sebastián 26 de noviembre de 1970.

José Elgorresta.— Rubricado.

Hay un sello que dice :
Obispado de San Sebastián - Vicario General.

GOTZAIEN BAIMENAK

OBISPADO DE SAN SEBASTIAN

NOS DOCTOR Dn. JACINTO ARGAYA GOICOECHEA, por la Gracia de Dios y de la Santa Sede Apostólica, OBISPO DE SAN SEBASTIAN.

Visto y examinado el Reglamento de la Agrupación "Kardaberaz - Bazkuna" que tiene por finalidad el fomento y cultivo de la lengua Vasca con espíritu cristiano y posee su domicilio social en la calle San Martín, núm. 57 de esta ciudad en virtud de NUESTRA AUTORIDAD ORDINARIA venimos a aprobar y

DECLARAMOS que la Agrupación "Kardaberaz - Bazkuna" goza de nuestra plena aprobación y bendición.

Para dar cumplimiento al artículo IV, núm. 2, del Concordato entre la Santa Sede y el Gobierno Español, comuníquese este decreto de aprobación a las Autoridades competentes del Estado.

San Sebastián, 30 de Octubre de 1972.

† JACINTO, Obispo

OBISPADO DE BILBAO

Atendiendo a la petición que se Nos ha hecho, y habiendo examinado el Reglamento de la Agrupación denominada "Kardaberaz-Bazkuna", por las presentes ratificamos para el territorio de esta diócesis de Bilbao la aprobación concedida a la expresada Agrupación, con fecha 30 de octubre de 1972, por el Excmo. Sr. Obispo de San Sebastián, Mons. Dn. Jacinto Argaya Goicoechea.

Bilbao, 7 de junio de 1973.

† ANTONIO, Obispo

2

Aurre-Itzak

AURRE - ITZAK

ARRINDA

“Nik naiago nuke gidaritzat Larramendi, orduan eta orain, Kardaberaz baiño, harengan aurkitzen baititut bizi gaituen XVIIgn. mendeko iraultzaren zantzuak eta geroko argiak. Bestek, noski, besterik autatuko du”. Mitxelena: “Larramendiana”: Gupuzcoa 73. C. A. P. de Guipúzcoa. N.º 7.

Kardaberraztarrek Aita Agustin Kardaberaz aukeratu zuten gidari. Zergaitik?

Aita onen euskaraganako maitasunagaitik. Orrentan degu eredu.

“Euskerak burua jasitzea Jainkoak nai du”, itz oiek ukitu zituzten Gazteiz’ko Seminarioko euskaldun gazteen biotzak eta esaera orren egokitasunetik (bere lanak or daudela) datorkio Kardaberaz Aatari gureganako bere aintzindaritzaz.

Nere iritzian, gai onetan, Larramendi aiñakoa da Kardaberaz ere, onek euskeraz arrek baiño geiago idatzi bait zuan. Maite degu Larramendi ere, eta Mendiburu, eta Axular... eta Mitxelena.

* * *

Kardaberaz-aukera 1924’an egin zan.

1936’an gure aukera-modu guztiak pikutara joan zitzaizkigun.

1970’an, Kardaberaz-aukera berritzeko aitzakia bere eriotzaren 200gn. urtebetetzeak ekarri zigun.

* * *

Ogeita amar urteko utsunea dago gure errian.

Bakan batzuek, utsune orren tarreak betetzen saiatu zerate argiaren aurrean. Aintza zueri. Badira beste ixilpeko langilleak ere. Laguntza auzeri, beuren lanak argitaratzeko. Era orretara zubia jaso lezake utsune orretan, ez garai aietara joateko, utsuneko betegarri, baizik. Utsune ortako ixil-lanak argitara ematen saiatu nai genduke, aurrera jarraitzeko eta aurrera begiratzeko.

Iraultza ez da utsunetik egiten dan gauza, nere uzte argalez. Bear du puntu sendo bat, oiñarri bat, palanka-muturrari euztekio. Utsunea bete bear, zenbat eta areago, obe. Gure aldetik ez dedilla egiteke gelditu.

Ona ondoren *Kardaberaz Bazkuna* nola eratua dagoen :

KARDABERAZ - BAZKUNA

1924'an Gazteiz'ko Seminarioan eratua.
1970'an berritua.

ERAKUNTZA

Buru Nagusi Bat

(Lendakari, Lendakari-kide, Idazkari, Diru-zai eta Batzorde bakoitzako Lendakariak)

Batzordeak

Euskal Erri bakoitzetik bat.

(Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, eta Bizkaia'n eratuak dauzkagu)

ELBURUAK

EUSKERA

eta

KRISTAUTASUNA

(Gure iritzirako Euskera ez da tresna uts bat bakarrik; elburu bat, baizik. Bera da Euskalerriko espiritu eta gogoaren agerpenik ederrena).

(Euskaldunok asko zor diogu Kristautasunari majiatik eta Aker Beltzaren menpetik ateratzen lagundu bait zigun, gizon-emakume jatorrak izaten ere bai. Ameriketako euskaldunen izen ona, berriaz, euskaldun-fededun'ek jaso zuten).

EKINTZA

eta

ZABALDU

IDATZI

Idazle-eskolak

(Eta norberak bere burua idaztera beartu).

Argitaratze-lana

Aldizkaria. Liburuak. Liburuxkak.

Liburuak: a) teknika-gaiak.
b) ixilpeko lan-gordeak.
d) edozer liburu.

BAZKIDEAK

eta

Eskubideak

Barkizunak

Dirua ordaindu: sarrerako 1.000 pta. eta urteroko beste 1.000, aurretik.

Lana egin: idatzi eta zabaldu. Bat ala beste. Edo biak.

Urteero liburutak utsean jaso (1.000 orrialde inguru).

Zeure lanak argitaratzeko erreztasuna. Milla bazkide izango geranean, orduan liburuak, nai aйна, argitaratze-prezioan izango dizkitugu.

KARDABERAZ BAZKUNAREN BATZAR NAGUSIA

1973 - MAIATZAK 1

EGITARUA

- Nundik gatozen eta nora goazen. Manuel Lekuona, lendakariak.
- Amorebietako akta. Xanti Onaindia, idazkariak.
- Liburu argitaratzea eta diru zaitza. Juan Jose Garmendia, argitalariak.
- Kardaberaz-aldizkaria. Anastasio Arrinda, Gipuzkoako lendakariak.
- Euskalerriko billerak, Anastasio Albisu, berri emalleak.
- Idazle-eskola. Pedro Berrondo, buruzagiak.
- Ikastolak, Balentin Zabalo.
- Araudia osatzea. Batzar buru nagusia eta batzordeak.

BILDU ZIRANAK

IZENAK

Lete-tar Balbiñe	Juan Peñagaricano
Agirre-tar Iñaki	Martin Olazar
Intza Damaso K.	Galarraga-tar Koldo
Arantzamendi Juan	Lino Akesolo
Antonio Labayen	Felipe Tolosa
Oñatibia-tar Jon	Anastasio Albisu
Jose Maria Laborda, S. J.	Jose Maria Otamendi
Pedro Pujana	Luis Eguia
Larrakoetxea-tar Bedita	Manuel Beraza
Bergaretxe-tar Joan	Ramon Murua
Goikoetxeatar Iñaki, S. J.	Gotzon Rementería
Manuel Estomba	Txanton Goiria
Gaztañaga-tar Jesus	Etxaniz-tar Nemesio
Agote-tar Kepa	Otaegi Joan Inazio
Urrozola Estanislao	Zaitegi-eta Plazaola-tar Jokin
Arrieta-tar Feliziano	Garde-tar Markelin
Balentin Zabalo	Jose Luis Abaunza
Juan Bautista Eceizabarrena	Manuel Lekuona
Jose Maria Bastarrica	Anastasio Arrinda
Pedro de Atutxa	Pedro Berrondo
Juan de Ayerbe	Juan Jose Garmendia Arcelus
Manterola-tar Gabriel	

Manuel Lekuona lendakari jaunak ongi etorria eman ondoren P. Berrondo'k (Santi Onaindia idazkariak etortzerik izan ez zuelako). Aurreko Batzar Nagusiaren akta irakurri zigun.

ZORNOZA'KO AKTA

(Amorebieta, 9-V-1972)

Maiatzaren lenengoetan, A. Arrinda jaunak, Bizkaiko A. Onaindia ta Gabirel Manterola jaunakin itzegiñ ondoren, danon arteko batzar bat egiteko deia zabaldu zigun. Deiak onela zion :

1. Araudiari begiratu bat eman.
2. Kardaberaz Bazkunaren buruak aukeratu ta probintzi bakoitzean batzardeak.
3. Kardaberaz-Bilduma : liburuen argitaratze ta zabaltze.
4. Idazle-eskolak.
5. Aldizkarietako lanak.
6. Diru-garbiketak.
7. Eta abar.

Deiari erantzunaz, Amorebieta'n, Aita Karmeliten etxean, Larrea'n, alkartu giñan... ogeit'amarren bat lagun ; Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak... erdixka bezela. Ikusi be-erago elkartu giñañen izenak.

Eta goizeko amaiketan, Maiatzak 9, batzarrari asiera eman genion ; eta onela izan zan.

D. Manuel Lekuona lendakari jaunak, bazkide guztiei "ongi etorria" eman zigun, eta urte ontan erabilli ditugun eginkizunak gogoratu zizkigun. Batik-bat, Donostian, egiñ aal izan ditugun idazle-eskolak aipatu zizkigun : izkuntzasaioak eta euskal-kultura saioak... D. Jose Migel Barandiaran, D. Manuel Lekuona ta D. Sebastian Insausti jaunen irakatsaldiekin.

Ondoren, lenengo gaia erabilli gendun ; alegia, I-araudiari begiratu bat eman. Pedro Berrondo idazlari, jaunak, ezertan asi aurretik, Bazkunaren araudia irakurri zuan. Eta Loiola'n 1971-ko Garagarrillaren 14'an zintzilik bezela gelditutako galderak : alegia :

"Aita Onaindia"k Bizkaiko bazkideen izenean egertu zigun... zuzendaritzako artean Bizkaitarren batek bearko lukela. Lendakaritza, giputzen eta bizkaitarren artean txandaka bezela edo... bear litzekela". Alaberean, diru-emaitzari, naiz erabilketari buruz esandakoak.

Onela, erabaki bearra ontara zetorren :

—Bazkunak, orain arteko zuzendaritza urte bat edo birako izan du.

—Bazkunaren zuzendaritzak... Euskalerra osorako bat bakarra izan bear du.

—Zuzendaritzaren karguak auek izango dira : Lendakaria, idazkaria, ta diru-zaia.

—Probintzi bakoitzak bere ordezkaritza izango du : au sortzeko, gutxienez amabost bazkide izan bearko dute.

—Danen iritziz, Probintzi bakoitzeko ordezkaritza... urrengo batean eta bertako artean bakarrik egiteko gelditu zan.

Onela bada, lendakariaren autatzea izan zan ; Aita Txanton (Eibar-tarra) mintzatu zan... Lekuona jaunari eman bear zitzaiola lendakaritza... arrazoi askorengatik. eta batzuk aipatu zituan : bazkunaren guraso, itzal aundiko t. a. Danok batera onartu zuten A. Txanton'en iritzia eta alaxen erabaki zan. Ondoren, egoki litzakela bizkaitar bat lendakaritzan egotea... eta A. Lino Akesolo goen-maillako euskal-jakintsua izanik... eta idazle-eskoletako irakasle gañera... lendakari-kide autatua izan zan ; danok batera onartu gendun iritzi au eta alaxen erabaki zan.

Onela, Zuzendaritza nagusia osaturik gelditzen da edo oiñarriturik :

—lendakari : D. Manuel Lekuona.

—Lendakari-kide : Aita Lino Akesolo.

—idazlari : Aita Onaindia.

Eta, diru-zaintza? Bakarra, au da, diru-emaitza guziak kutxa bakar batera, edo Probintzi bakoitzak bere kutxa, eskubide guziekin? Mintzaldi luze xamarra sortu zan ; kutxa bakarrak ditun bentajak ; eta eragozpenak ; t. a. banakako diru zaintzak lezarzken bentajak t. a.

Yon Oñatibia, Perro Berrondo ta geiagok ere, Probintzi bakoitzaren diru-zaintza obe litzakela uste zuten ; A. Arrinda, Juan J. Garmendia ta geiagok ere, bestela uste zuren : alegia diru-zaintza bakarra danentzatik noski erraztasun asko sortzen omen dira... liburuak sortzeko, argitaratzeko, saltzeko t. a.

Azkenik, eta luze mintzatu ondoren, erabaki ontara etorri giñan : Beste urte betean orain arte bezela jarraitzeko, diru-zaintza bakarra-kin ; eta dudarik gabe diru-zain ber-bera izan dedilla : Juan Jose Garmendia. Eta bere eginkizunean kideko bezela edo, Anastasio Arrinda eta Gotzon Rementeria. Batik-bat liburu berriak non ta nola t. a. argitaratu ta zabaldu t. a. ikusteko ta erabakitzeke.

Onela ba-da : Diru-zaintza : Bakarra. Diru-zain : Juan Jose Garmendia, Anastasio Arrinda, ta Gotzon Rementeria.

Ondoren erabaki zan : Bazkide izateko, sarrerako milla ta urteoro milla pezeta.

Ontaz gañera, erosle-arpidedunak artu aal izango dirala ; diru zaiñen esku gelditzen da eginkizun au...

4) *Idazle-eskolak* : Orain arte bezela, gero ta obeki noski, jarraitzeko asmoa artu zan. Gai ontaz bi aipamen sortu ziran :

—On litzakela... idazle-eskola bakoitzak, bere idazkaria izango balu. Ontarako utsik.

—Eskola auetan egindako azterketa-lanak t. a. bilduma bat egiñik, urteoro argitaratu bear lirakela. Liburu bat urteoro.

5) *Aldizkarietako lanak*: Elkarren arteko berriak jakiñ ondoren, gai oni buruz... leengo asmoa berritu gendun: alegia... bazkide bakoitzak gutxienez illean lan bat argitaratu bearra. Norik bere gaiñ... dagokion erantzukizuna jasoaz.

Kardaberaz Bazkunaren izenean zerbait argitaratu bear danean. Bazkunaren Batzarrak onartu bearko du; probintzi bateko batzarrak *Kardaberaz* izenean zerbait agertu nai ba-du, Probintziaren izena agertu bearko du: alegia... edo Gipuzkoa'ko Kardaberaz bazkuna... edo Bizkai'ko Kardaberaz bazkuna, alde zurratik batzarrean erabaki ondoren.

Kardaberaz-Bildumarako liburuak: Zeiñ liburu argitaratu? Batzarrak erabaki bear du. Batzar osoak. Urtean bi edo iru edo lau aldiz egingo diran batzarretan arabakia artuko da. Diru-zaiñ izeneko arduradunak beren asmoak batzarrean agertuko dituzte ta erabakiez-gaiñ... aurrera eramango dituzte.

Kardaberaz-Bildumako liburu bakoitzak, argitaratu aurretik, lendarritzaren "nihil obstat" bearko du... naiz mamiaren aldetik naiz idazkeraren aldetik.

Oraingo onartuak daude argitaratzeko: Luis Egiaren "Neurritzia" (Caracas'en saritua) eta Uxola'ren bat: edo artzerkia edo nobela dala.

Bazkunaren urre-etzaietarako, D. Manuel Lekuona'ren lan-bilduma argitaratzeko asmoa artu zan; aalik eta lan geienak sartuaz. Aita Onaindia eta Lekuona bera gelditu ziran prestaketa egiteko.

Eta abar:

Arrinda jaunak, Arostegi jaunak bidalitako eskutitz batetik au irakurri zigun: "1-Gurekin ill bear duan zerbait berpiztu ote degu? 2-Gero-koekin sustraituko ez dan zerbait ote diegun Kardaberaz Bazkuna? 3-Gazte askoren artean, giro txarra dauka gure Kardaberaz Bazkunak. Zergatik ote? Konprentzio gutxiko gaztedia errudun da noski; eta gu... pekatuak gabekoak ote? Guzua maitasunean egiña bedi". Zer itzegiña franko sortu zuan eskutiz onek; nolana ere... P. Berrondo'k zionez galde egitea errazago, erantzutea baño. Otamendi jaunak... kezka auek obeki aztertu bear lirakela zion; eta urrengo batzarrerera... Arostegi'kin itz egin ondoren, gai ontaz zerbaiz eramateko eskatu zitzaion: alegia... aurrera-bidean lagunduko digun argitasuna, gure bazkuna sustraituan eta ondoren onak emanaz.

Umandi'ren eskutitza: A. Arrinda jaunari egiña. Onek laburpen bat egiñak, irakurri zigun (emen ondoren dator). Eta ekintza bidean... azken erabakia ontara zetorren: Apaizak (basteunen bat edo) eskari bat firmatu: Euskalerriko bost Gotzaiak euskeraren alde beartuaz: Apaiz-gaitegietan, Ikastetzetan, Lekaide ta lekaike eskoletan t. a. erabaki ongarriak eman ditzaten.

Elburua danok ontzat eman gendun; nola ez? bide ori ez dala guk, bazkun geranez, euskal-ekintzarako aukeratua; edo gure aalgoentzat

geiegia dala; edo eskariak ez lukela ondoren onik izango t. a. oraingo eskari ori ez egitea erabaki zan. (Emen, dionaren orde, bego onela: "Oraingo eskari ori egitea ez zan erabaki"). Eta gure bidean, idazle-bidean, norik bereak zintzo egiñaz, jarraitzeko asmoa berritu gendun. Norik berea zintzo eta danok aal duguna.

Geiagokorik gabe, urtean iru edo lau aldiz danon arteko batzarra egiteko asmoa artuaz, oraingo au bukatu gendun. Otordu garai zan, eta Aita Karmeliten maaietara urbildu giñan... pozez eta alaiki.

Manuel Lekuona
Lendakaria

Lino Akesolo
Lendakari-kide

Pedro Berrondo

Amorebieta'ko akta-agiriaren osagarri dator orri au:
Amorebieta'ko batzarrean elkartu giñanen izenak:

Manuel Lekuona
Ramon Murua
Jose Maria Baztarrika
Pedro Gorostidi
Gotxon Urrutia
Jaime Kerexeta
Gabirel Manterola
Eusebio Ocerinjauregi
Andoni Amutxategi
Anastasio Arrinda
Anastasio Albisu
Jose Maria Otamendi
Yon Oñatibia

A. Txanton Goiria
A. Santi Onaindia
Retolaza (Kili-Kili)
Luis Aburto
Juan Jose Garmendia
Pedro Berrondo
Esteban Abarizqueta
Manuel Estonba
Jose Luis Abauza
A. Lino Akesolo
Pedro Puxana
A. Arteaga (karmeldarra).
Paulin Solozabal

* * *

ONDOREN:

Juan Jose Garmendia jaunak... D. José Migel Barandiaran jaunak emandako eginkizun bat adierazi zigun: alegia: Euskalerriko Etnologiari buruz... egin bearreko erantzun-bilduma bat. Galdekizunaren asmoak eta zerezadak... Barandiaran jaunak bidalitako orri batzutan dator. Eta Garmendia jaunari auxen eskatu zitzaion: galdekizunaren kopiak ugari tzeke eta bazkide guztien artean bear bezela banatzeko, eta eginkizun onetan ari nai dutenak... Barandiaran jaunarekin elkartuko ziralana aurrera eramateko.

Ondoren Diru-zaiak bere eginbearraren berri eman zigun baita angitara diran eta izango diran liburu eta liburuxkaena ere.

ARRINDA JAUNAK AUXE ESAN ZIGUN:

KARDABERAZ-ALDIZKARIA :

Bi gauza auek begien aurrean eduki bear :

1.º Gaurko egunez asko general Bazkunean eta 2.º oietatik askok ezin izaten dutela batzarretara etorri.

Bi gertakizun auetatik sortzen da ALDIZKARI baten bearra.

Emandako pausoak: Jose Zunzunegi degu Gazteiz'ko Seminarioaren erretorea eta Esset editorialaren zuzendari. Kardaberaz-bazkideakoa da bera ere. Berengana jo genduan argi billa eta bere eskuetan jarri genduan arazo au. Atracción y Turismo-Ministerioan izan ondoren auxe esan digu berak :

Aldizkari bat ateratzea gauza zailla eta gaitza dala eta denbora bear-ko dula. Eta ohea izango zala aldizkaria liburuxka bezela ateratzea, aldizkaria danik aitatu gabe eta esan gabe. Gure leenengo liburuxka KARDABERAZ du izena eta Bazkunaren berri emateko atera zan. Antxe daude berriak eta dokumentuak. Orain beste orrenbeste egingo genduke eta aldizkaria KARDABERAZ liburuxka orren bigarren alea izango litzake...

Zertarako aldizkaria? Asko geranez eta zenbaitek billetera etorri ezin dutelako, alkarren berri ez degu jakiten eta alkarren berri jakiteko, bear degu aldizkaria. Araba'n, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n batzordeak egin da dauzkagu; Napparroa'n berriz, egiteko eran gaude. Batzorde bakoitzak bere berri besteai emateko, aldizkari bat (nola edo alakoa) bear degu.

Bazkideen lanak ateratzeko ere, aldizkaria bear da. Lan aundiak liburuetan dijoaz eta lan txikiagoak, liburuxketan, Auek baño txikia-goentzako izango litzake aldizkaria. Gaiñera, gure ondorengoai gure berri emateko ere, aldizkaria bear.

Esate materako KARDABERAZ bigarren ale onek zati auek izango litzuke :

- 1.º Amorebieta (Zornotza)'ko akta.
- 2.º Orduetik onera emandako pausoak eta egindako lanen berri ematea. Lan ori eginda dago eta Albisu'k irakurriko du nere ondoren.
- 3.º Gaurko billera onen akta.
- 4.º Eta, bear bada, lanen bat edo beste.

Gure une onetako eginkizuna auxe da: aukerea egiñ: Aldizkaria onartzen degu, ala ez...?

Aldizkaria ateratzea on artzen bada, KARDABERAZ-bigarren-ale bezela aterako degu. Bitartean Ministerioan saiaturko gera aldizkari baten baimena lortzen.

BAZKUNAREN KONDAIRARAKO

(A. ALBISU'K IRRAKURRIA)

JAIO, ta D. Manuel Lekuona Jaunari esker, Gazteiz'ko Apaizgategian jaio zan KARDABERAZ BAZKUNA 1924-garren urtean. Eta antxen bizi izan zan, oparo bizi ere, 1936-garren urteko gerrateraño. Gerrateak, ordea, ez zuan erabat il, amabi urte aietan eraindako azia. Ta Aita Kardaberaz, berak, erne-erazi zuan berriro, ogei-ta-amalau urte geroago, bere erioztako 200-garren urtea betetzean; 1970-garren urtean alegia. Ta Loiola-ko saildutegian ospatu zan, aundikiro, Erakunde-Berriaren Eguna 1971-garren urteko Otsaillaren 18-an.

Araba, Bizkai ta Gipuzkoa-ko euskaltzalleak bildu ziran bertan, eta Gazteiz-en, kardaberaztarrak izanak, ziran auetako asko, Ta ona-emen aipagarri pozgarri bat: Manuel Lekuona, bera, zan Loiola-n, ere, kardaberaztarren buru.

Xeetasun geiago nai dituanak KARDABERAZ, Bazkunak argitaratutako lenengo liburuxka, ikus bedi.

Geroztik emandako urratzak, agertu nai ditugu, guk, emen.

ETA lanari ekin genion, gogor, Gipuzkoa-ko kardaberaztarrak. Goztai Jaunaren baimena ba-genduan ortarako, ta billerak nun-egin ere bai. Donosti-ko San Martin kaleko 57-garrenean izango genduan batzordekoak gure billera-tokia, ta Reparadoratan guztion billerak egitekoa.

Lan bat genduan esku-artean: Kardaberaz Aita-ren omenerako liburua. Bañan ez zan ori naikoa, ta Idazle-Eskola bat sortu genduan be-reala. Ba-genituan maixurik asko: Manuel Lekuona, Lino Akesolo, Ambrosio Zatarain, Nemesio Etxaniz, Yon Oñatibia, Marcelino Rezola, Anizeto Zugasti ta abar. Eta Idazle-Eskola auxe izan genduan, amabostean-bein, bazkide denak elkartzeko bidea.

Bañan ez zan au, ere, naikoa, ta Euskal-erria-ri buruzko itzaldi batzuek eratzea, erabaki genduan orduan. Eta Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Sebastian Insausti ta abar izango ziran izlari.

Gure Gotzai Jauna, ere, bazkide egin zitzaigun.

1972-KO ABENDUAREN 2-KO Batzorde-Batzarrean Manuel Estonba, ere, batzarkide izan genduan. Bizkai-ko kardaberaztarra au, ta Bizkai-ko kardaberaztarren berriak eman zizkigun: zenbat ziran, nun bil-tzen ziran, eta nola egiten zituzten batzarrak.

Gu-denen artean gogo bat zegoan bizi-bizi: Kardaberaz-Bazkunak bat izan bear zuan Euskal-erri osoan, naiz-eta eskualdi bakoitzak bere batzorde berezia izan. Eta au izan zan, orregatik, batzar ontan artu

zan erabakirik nagusia: Bizkaia-n egingo genduan BATZAR NAGUSIA, ta bizkaitarrak esango ziguten nun eta noiz.

ETA Zornotza-ko Karmeldar-etxea aukeratu zuten batzar-toki, ta Maiatzaren 9-a batzar-egun. Eta ona-emen batzar artako zenbait xeetasun.

ZORNOTZA-N, Manuel Lekuona buru, 26 bazkide bildu giñan Maiatzaren 9-an. D. Manuel-ek eman zigun "ongi-etorria", ta urte-buruan erabillitako eginkizunak adierazi: idazle- eskola, izkuntza saioak eta euskal-kultura saioak.

Ondoren, eta beste ezertan asi baño leen, Bazkunaren Araudia irakurri zigun gure idazkari Pedro Barrondo-k, eta Loiola-ko ERAKUNDE BATZARREAN zintzilik gelditu zan zerbait gogorazi: Bizkai-ko bazkideen izenean Aita Xanti Onaindia-k agertu zuan nai bat: ondo legokela, alegia, Zuzendaritza Nagusikoen artean, bizkaitar bat izatea ere.

Aita Txanton mintzatu zan gero, ta au izan zan onen iritzia: Manuel Lekuona-ri zor zitzaiola Bazkun-Osoko lendakaritza, bai Kardaberaz-Bazkunaren aita zalako, ta baita euskal-gai guztietan jakintsua ta itzal-aundikoa zalako ere.

Eta, Aita Onaindia-k Loiola-n agertutako naia onartuaz, lendakari-kidea aukeratu zan gero. Bizkaitarra izan bear zuan onek, eta Aita Lino Akesolo aukeratu zan ortarako: euskaltzaina au ere, euskal-gaietan gai-maillako jakintsua ta Donosti-ko Idazle-Eskolako irakaslea.

Idazkari-Nagusia aukeratu aurretik, idazkari onen eginkizunak, zeintzuk eta nolakoak izango ziran, adierazi ziran lenengotik. Eta bi eginkizun aukeratu zitzaizkion batik-ba: Zuzendaritza- osoaren irizpideak aurrera eramateko eginkizuna, ta Batzordeen batasuna gordetzekoa. Eta Aita Xanti Onaindia aukeratu zan ortarako.

Diru-zaia aukeratzea ez zan ain-lan erreza izan. Irizpide bi bait-zeuden bazkide-artean. Batzuen iritzian, eskualdi bakoitzak bere diru-kutxa berezia izan bear zuan. Eta iritzi ontakoak ziran Yon Oñatibia, Pedro Berrondo ta beste batzuek ere. Anastasio Arrinda, Juan Jose Garmendia ta beste batzuek, ordea, diru-kutxa bakarraren aldekoak ziran. Eta ontan oiñarritzen zuten beren iritzia: liburuak sortu, argitaratu ta zabaltzeko denon dirua bear zala, Ta orixe zala, izan ere, Kardaberaz-Bazkunaren elbururik aundienatoko bat. Eta azken-auen iritzia onartu zan azkenean, ta Juan Jose Garmendia diru-zai-bakar bezela, ta Anastasio Arrinda ta Gotzon Rementeria izango zituan laguntzalle.

Onela eratua gelditu zan, bada, Kardaberaz-Bazkun-Osoaren Zuzendaritza:

Manuel Lekuona	Lendakari
Lino Akesolo	Lendakari-kide
Xanti Onaindia	Idazkari
Juan Jose Garmendia	Diru-zai
Anastasio Arrinda	Diru-zai laguntzalle
Gotzon Rementeria	Diru-zai laguntzalle

Eskualde-bakoitzeko Batzordeak aukeratzea: bizkaitarren-esku gelditu zan Bizkaikoa aukeratzea, ta gipuzkoarren- esku Gipuzkoakoa aukeratzea.

Kardaberaz-Bazkanaren izena, idazkietan nola erabilli ere, aipatu zan, eta ona gai-oni buruz artu zan erabakia: bazkide bakoitzak bere esku zuan, idaz-lan batean, bere izen-abizen ondoren "kadaberaztarra" ipintzea. Bañan ezin zezakean inork "KARDABERAZ" izenakin bere lanetako bat izenpetu, Zuzendaritza Nagusiaren baimenik ez ba-zuan ortarako. Eta eskualde-bakoitzeko kardaberaz-guztien izenean zerbait argitaratu nai zanean ere, bertako Batzorderaren baimena bearke zan, eta idazkian ipiñi, Gipuzkoa-ko kardaberaz-tarrak ziran edo Bizkaikoa ziran.

Laister argitaratuko ziran liburuen berri eman zan gero: Karakas-ko "Andima Ibinagabeitia" sariketan saritutako Luis Egia-ren NEURRIZTIA, ta Estanislao Urruzola, Uxola-ren bi ele-berri, saritua auetako bat ere.

Eta Kardaberaz-Bazkunaren urre-eztaiak, ere, urreratzen ari ziralata, D. Manuel Lekuona-ren lan batzuen bilduma argitaratzea, erabaki zan ordurako. Aita Xanti Onaindia-k eta Lekuona-berak egingo zuten lan aukeratze au.

Bidasoaz-arutzik jaso zuan Umami-ren eskutitz bat, irakurri zigun Anastasio Arrinda-k azkenik. Txalogarria zan Umami-k egiten zigun eskea, bañan ez zan, orduan beintzat, gure egitekoetan sartzen. Geroago... Ala ere, au esan nai zigun eskutiz arek, Bidasoaz-arutz, ere, zabaldu zala gure Bazkunaren berri...

DONOSTI-An 1972-ko Maiatzaren 22-an.

Zornotza-n erabaki zan bezela, eskualde bakoitzak bere BATZORDEA aukeratu-bearra zeukan, eta ortarakoxe elkartu giñan, batik-bat, gipuzkoarrok. Manuel Lekuona-k artu zuan mai-burua, ta berekin zuan Lino Akesolo ere.

Ala ere, izkuntza-saioa izan genduan lenengotik, ta, au bukatzean, asi giñan aukeratze-lanean. Eta ona-emen, zeintzuk eta zertarako, aukeratuak izan ziran:

Anastasio Arrinda	Gipuzkoa-ko Lendakari
Baldiñe Lete, andereñoa	Lendakariaren Idazkari
Pedro Berrondo	Batzordearen Idazkari
Ambrosio Zatarain	Izkuntza-gaietako
Luis Egia	Itzulben-gaietako
Estanislao Urruzola	Zabalkunde-gaietako
Eusebio Iraola	Multikopista lanetarako

Xebastian Insausti-k itz-egin zigun gero, ta baita Eukal-erriari-buruz jakingarririk asko eman ere.

ETA ona-emen, zer jakin degun Diru-zaiaren txonten batetik: 2.000 izan zirala KARDABERAZ liburuxkatik argitaratutako aleak, eta 1.000

izan zirala KARDABERAZ AITARI OMENALDIA libirutik argitaratuta-koak. (Tolosa 1972-X-4).

AUEK izan ziran, 1972-ko Urrillaren 30-ean, Gipuzkoa-ko Batzordekoak egin zuten batzarrean: Manuel Lekuona, Anastasio Arrinda, Pedro Berrondo ta Juan Jose Garmendia.

Asko izan ziran erabillitako gaiak, eta ona-emen garrantzitsuenak:

Liburuak argitaratzeko, Gotzai-Jaunaren baimena ez zala naikoa, ta Legearen-babesa billatu bear zala nola-edo-ala. Gazteiz-ko Apaizgaitegiko "Graficas ESET"-irakorlan ikusten zuten ortarako bide bat. Eta, bertako Zuzendari ta Apaizgaitegiko Erretore Jaun dan Jose Zunzunegi-kin artu-emanetan astea, erabaki zuten ortarako. Gazteiz-era joango ziran, bada, Azaroaren 3-an, Jose Zunzunegi-kin egotera, Anastasio Arrinda, Luis Egia ta Juan Jose Garmendia. Ta irarkolakoekin egongo ziran bide-batez, Bazkunek sortuko zituan liburuak, bertan argitaratuak izan zitezen beti.

Batzorde berriak sortu bear zirala, bai Araba-n, bai Nafarroa-n eta bai Baiona-n ere.

Juan Jose Garmendia-k gero esan zuanez, iru liburu aukeratu zituan, E. L. E.-k Karakas-en eratzen duan, sariketara: KARDABERAZ AITARI OMENALDIA, EUKAL-ERRI-KO LURRALDEAK eta ENEKO ARIZTA. Ta diru-laguntza bat eskatzen zuala bide-batez, Iparralde Jaunaren ANDIK ETA EMENDIK esaera-liburua argitaratu al-izateko.

Karakas-etik jaso zuan, Albisu-ko Balendiñe-n eskutiz bat irakurri zuan Anastasio Arrinda-k, eta Oñati-ko Aita Bedita Larrakotxea-ren berri eman, ere, bai, larogei-urteko lekaide onek, euskaratuak zeuzkala alegia, Shakespeare-n lan guztiak.

Eta aukeratu zituzten ziralako, Bazkuna-k, laister argira emango zituan bi liburuak: UME TXIKIENTZAKO SOINKETA ta EUSKAL-ERRI-KO JAINKO TXIKIAK.

ETA Azaroaren 3-an, an izan ziran Gazteiz-ko Apaizgaitegian Anastasio Arrinda, Luis Egia ta Juan Jose Garmendia, Ta, uste izan zan bezela, bere-gain artu zuan Jose Zunzunegi-k Bazkunarentzat Legezko-babesa lortzea... Ta nola ez...? Apaizgaitegi bertan izango zuten Araba-ko kardaberaztarrak beren biltokia.

ETA Nafarroa-ri begira ditugu orain kardaberaztarrak.

ETA Aralar-ko Mikel Goi-aingeruaren Saindutegia aukeratu zuten lenengo billerako toki.

Bost izan ziran, Azaroaren 17-an, bertan bildu ziranak: Esteban Irigoyen, Izarra (Estella)-ko erretorea, Inozenzio Ayerbe, Saindutegi bertako arduraduna, Juan Bautista Irazoki, nafar-euskal-pastoraleko arduraduna, Anastasio Arrinda ta Juan Jose Garmendia.

Bazkunaren-berri eman zitzaien lenengo: noiz eta nun sortua zan, zeintzuk ziran gaurko bere elburuak, eta nola ari zan lanean gaur-gaurkoz. Arrerarik onena izan zuan argibide onek, eta auetxek izan ziran artu ziran erabakiak:

Bear-bearrezkoa ikusten zuten, eta egokia oso, Batzordea sortu-au-

rreti, Nafarro-ko euskal-lurretako apaizekin artu-eman batzuek izatea. Taerri aukeratu zituzten billera oietarako: Oharritz, Larraun, Lekunberri ta Iruña.

Bazkide-txartelak ere, gorriak ba-lira Nafarro-rako, obe. Onela gainera eskualde bakoitzak bere margoa izango luke: urdika donostiarrak, oria edo zuria gazteiztarrak ta orlegia bizkaitarrak.

Iruña-ko Gotzai Jaunakin egon-bear zala, ta egin-nai zan lanaren-berri eman bear zitzaioala.

ETA Azaroaren 19-an, Eskolapioen Aita-Probinziala dan, Feliziano Perez Altuna-kin ziran Anastasio Arrinda ta Juan Jose Garmendia.

Leen, ere, izanak ziran artu-eman batzuek, Aita Mokoroa ta KardaberazBazkun artean. Bere bildumarako nai luke Kardaberaz-bazkunak Mokoroa Aitaren EUSKAL-ESAERAK liburua. Baiezkoa emana zan Mokoroa Aita, bañan Aita-Probinzialaren baimena, ere, bearrezkoa zualata, Aita-Probinzialaren gana biali zituan Anastasio Arrinda ta Juan Jose Garmendia. Laister etorriko zan onen baiezkoa ere.

ETA Nafarroa-n egin-nai zanaren berri, Iruña-ko Gotzai Jaunari eman bear zitzaioala-ta, Iruña-ra eldu ziran Gipuzkoa-ko Lendakaria ta Batzorde Nagusiko diru-zaia.

Bost bildu ziran billera ontan: Jose Maria Larrauri, Iruñako goztailaguntzallea, Pedro Zabalza, gotzai-jaunaren idazkaria, Juan Bautista Irazoki, Anastasio Arrinda ta Juan Jose Garmendia.

Ontzat eman zuan Gotzai Jaunak kardaberaztaren asmoa, ta Iruña bertan eratuko zan eliz-barruti osoko batzordea. Ta ortarako billerak, Baz tan-en, Iruña-n eta Lekunberri-n, egingo ziran.

ABENDUAREN 15-an, ordea, Gazteiz-ko Batzordearen ERAKUN-DE-EGUN-AUNDIA ospatu zan bertako Apaizgaitegian.

Amar izan ziran Araba-tik bildu ziranak:

Joakin Goikoetxandia
Bizente Latiegi
Luis Larrañaga
Alejandro Reparaz
Inazio Oñatibia.

Rafael Mendialdua.
Felipe Tolosa
Ramon Narbaiza
Jose Zunzunegi
Aita Ozaeta, beneditarra.

Iru izan ziran Bizkai-tik etorriak:

Aita Xanti Onaindia
Martin Olazar
Gotzon Rementería.

Eta iru Gipuzkoa-tik joanak ere:

Manuel lekuona
Anastasio Arrinda
Juan Jose Garmendia.

Eta Felipe Tolosa aukeratu zuten Batzordeko Lendakari, ta Markiegi Jauna Batzordeko Idazkari.

ETA 1973-ko Ilbeltzaren 18-an, Bilbo-ko Gotzaigoan bildu ziran Manuel Lekuona, Xanti Onaindia, Anastasio Arrinda, Manuel Estonba, Martin Olazar eta Juan Jose Garmendia.

Arreararik onona izan zuten, Añoberos, Bilbo-ko Gotzai Jaunaren aldetik.

Bazkunaren berri eman zitzaion, eta Donosti-ko Gotzai Juanak Bazkunari, idatzirik, eman zion baiezkkoa, erakutsi. Ta auxe izan zan, gutxi gora-bera, Añoberos Jaunak eman zien erantzuna: Nerea egiten det Donosti-ko Gotzai Jaunaren agiria, ta ez dizute nere babesak, ere, uts egingo.

NAFARROA-N ditugu berriro, ere, kardaberaztarrak Ilbeltzaren 24-ean. Baztan-go Oharritz-en ain-zuzen.

Erretiro- eguna zutela-ta, 24-en-bat Nafarro-ko apaiz bildu ziran Oharritz-ko ikastetxean.

Eta aukeratu ziran artz joan ziran kardaberaztarrak: Manuel Lekuona, Anastasio Arrinda ta Juan Jose Garmendia, Gipuzkoa-tik: Martin Olazar, Bizkai-tik eta Felipe Tolosa, Araba-tik.

Iruña-ko Juan Bautista Irazoki-k eraman zuan batzarra bere bidetik, eta gogoz onartu zuten Bazkuna nafar-apaizak. Eta Batzordea eratuko dan artean, Ramon Apezetxea, Almandoz-ko Erretore Jauna, aukeratu zuten Baztan-aldeko arduradun bezela.

ETA bigarren billera: Lekunberri-ko apaiz-etxean ar.

Amarren-bat bildu ziran. Ultzamakoak eta Sakanekoak (Barranca), ez ziran etorri. Ez zituzten Bazkunaren asmoak, argi ta garbi, ezagutzen eta kezkatu egin ziran noski.

Iruña-n biltzeko gelditu ziran Ultzamakoak, eta erretiro-egunean, ero eurrak aukeratuko zuten beste egunen batean, Sakonekoak.

Girorik onena izan zuan, ala ere, billera onek, eta Migel Azpiroz, Azpiroz-ko erretore jauna, aukeratu zuten alderdi artako arduradun. San Migel-go Inozenzio Ayerbe izango zuan laguntzalle.

Bazkide-txartelak, ere, banatu ziran, eta Juan Bautista Irazoki-k jazo zituan baztandarrentzako.

ALBISU-KO Balendiñe andereñoa bitarteko, sortua da Karakas-en, ere, Kardaberaz-Bazkuna, ta Otsaillaren 5-ean bialdu zitzaizkion 100 bazkide-txartel.

ETA Otsaillaren 14-ean egin zan Iruña-ko BATZAR NAGUSIA. Manuel Lekuona-k, gaxorik zegoalako, ez zuan joaterik izan.

Eta ona-emen batzarrean bildu ziranak:

Aita Felipe Ondarrabikoa	Felipe Tolosa, Araba-ko Lendakaria
Ascensio Etxebeste, sekularra	
Juan Krutxaga, sekularra	Anastasio Arrinda, Gipuzkoa-koa
Martin Azpiroz, Eugi-koa	Juan Bautista Irazoki, Iruña-koa
Migel Azpiroz, Azpirozkoa	Juan Jose Garmendia, diru-zaia.
Aita Aginagalde, J. L.	

Iru gauza aukeratu ziran Bazkunaren Kondaire aldetik: Bazkunaren sorrera 1924-garren urtean, Bazkunaren eriotza edo ondamendia 1936-garren urtean, eta Bazkunaren berpizkundea 1.970-garren urtean.

Bete-bearreko, 34-urteko utsun bat zegoan, ba Euskal-Literatura alorrean. Eta ez, euskal-idazlerik izan ez zalako orduan, beren lanak nun argitaratu izan ez zutelako baizik. Eta or daude, nunbait, lan oiek betirako galtzeko arrizkoan. Eta auxe da Bazkunaren elburuetako bat, ez bakarra noski: lan oiek argitara ematea. Nafarroa-n, ere izango dira onela-zokoraturik dauden lan Batzuek. Billa ditzagun eta argitaratu...! Lan oiek emango bait-digute orduko euskal-giroa, ta orduko euskal-pentsakera ere.

Bañan ez da au, Bazkunaren elburu bakarra. Gaur dan eguneko goroari, ere, erantzun bear diogu, ta liburu ta liburuxka barriak sortu. Orra-or zertarako diran gure Idazle-Eskolak.

Euskerak elkartu bear gaitu uskaldunok, Idatzi ta zabaldu dezagun, bada, "kristau pentsamentu baten barruan".

Eta, nork argitaratuko, bi lan aipatu ziran an ere: Jose Pedro Mendiorotz-ena bata, ta Gillermo Larrañaga-ren ABEL-IZTIA bestea. Ta Karakasen saritua azken au.

Eta Juan Bautista Irazoki ta Aita Aginagalde, J. L.-koa, aukera zituzten Iruña-aldeko arduradun bezela. Ta Dormitalaria kaleko 1-go atean izango dute beren idazkaritza.

ZER-ESANIK ez dago, billera guztietan zabaldu izan dirala KARDABERAZ, KARDABERAZ AITARI OMENALDIA eta NEURRIZTIA.

ETA ona-emen, bukatzeko, geroztik argitaratu diran liburu ta liburuxkak: SUEGA GORRI, ESPALAK, UME TXIKIENTZAKO SOINKETA ta EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK.

IDAZLE - ESKOLA

(ONDOREN P. BERRONDO'K.)

Loiola'ko Etxe ontan bertan, orain dala bi urte (Otsaillak 18-1971) "Erakunde-Eguna" izeneko Batzarra egin genduanean, asmo batzuk artu genituan gure ekintza aurrera eramateko ustetan. Egiñ ere egiñ dugu noski zerbait arrezkero.

Bi urteren buruan gure "Idazle-Eskola" zer-nola ekarri ote dugun agertzeko eskatu dit A. Arrinda jaunak. Egia esan, ez neukan gogo geiegirik gai au aztatu ta agertzeko, beti bait-da mingarria akatsak eta utsegiteak aztartzea, baiña ezer bada-ta auxe izaki onuragarria ekintzarako: akatsak eta utsegiteak garbi ikustea... egi-egizkoa izan dediñ ekintzaren oiñarria. Zerbaitegatik, ementxe jaiotako Maisu aundiak... ainbesteko garrantzia eman oi zion "kontzientziako esamiñari".

Orrela bada, orain bi urte idatziriko asmo-agiria ikusirik, gure utsegiñak agertuko zaizkigu, ta aurrerako asmoak sorreraziko.

* * *

Iru eratakoa dugu gure idazkintza (genion orduan):

—Aldizkarietako artikulua; irrat-saioetarako ta zinerako idazlantxoak.

—Idea-ereintzarako liburuxkak.

—Idazlan sakonago-zabalagoak.

Asmo aukeriko esamiña ez dagokio berez noski idazle-eskolari, baiña ala-ere ongi datorkigu; asmo oien bete-naiak emango bait-dio idazle-eskolari bear duan bizitasuna.

1) Aldizkarietako artikulua: nere ustez ongi-aski gabiltz lanbide ontan. Baiña, zenbat geiago egiñ genezaken! Norberak gogozko gairen bat artu bearko luke, ta gai ortaz gutxienez illean beñ artikuluren bat idatzi. Baiña, nolana ere asko egiñ dugu lanbide ontan, eta geiago egingo dugula, uste dut, aurrerantzean.

1-b) Irrat-saiotarako ta zinerako idazlantxoak: Zer edo zer asi zan batedo-beste, baiña aurrera-biderik ez du izan asmo onek. Galde-dezadan orain: asmo au berri bear al litzake edo bertan utzi?

2) Idea-ereintzarako liburuxkak: Auxen zan bear bada gure asmo guzietatik garrantzirik aundiena zuana. Izan ere, "Euskalerraren onerako, kristau-pentsamentuaren barruan", gure ekintza aurrera eramateko, gaurko naspillari begiratuaz, auxen zan eginbearrik garrantzitsuena. Baiña, deus gutxi egiñ aal izan dugu. Bi edo iru sortu zaizkigu, baiña elburuari bagazokio deus gutxi. Zergatik?

Jakiña! Gaur dan egunean gure artean dugun naspillari begiratuaz, argi-bide zeatzak sortzeko benetako jakintsuak egiñ bear litzuzteke liburuxka auk. Batekin edo bestekin itzegiñ ere itzegiñ da, baiña aurrerarenik ez da izan. Berriz ere saiatu bear genduke nolabait. Aldi batetik onuntz, Gazteiz'ko irakasle ospetsuekin ditugun artu-emanak gogoan arturik, ortxetik bearko litzake ekintza onen aurrerabidea. Jose Zunzunegi, Inazio Oñatibia ta beste batzuek izan bearko luteke ekintza ontan "lemari" edo "lemazain". Ber-bertatikan dei-egiñ dezaiegun jaunoiei, lanbide au aurrera eraman dezaten. Amarren bat idazlan izandakoan, errexa izango zaigu argitaratzea ta zabaltzea; Elizetako atetan zabalbid egokia izango dugula, maiz-aski esan izan dugu.

3) Idazlan sakonago-zabalagoak. Lanbide ontan egiñ dugu aurrerarenik aski; aipagarri Egia jaunaren NEURRIZTIA, Urruzola jaunaren EZPALAK eta SUGE-GORRIAK; eta aipagarri baita-ere argitaratzaileen kemena, Garmendia ta Arrinda Jaunen kemena. Bijoazkie gure zorionak!

* * *

Orain bi urte nion bezela, gure Bazkunaren asmoak aurrera eramanaik... "idazle-ekola" sorrerazi ziguan. Izan ere, gure araudiaren elburuak dionez: iru eginkizun artzen genituan gure gaiñ: "Euskalerraren onerako, kristau-pentsamentuaren barruan, euskal-izkuntza egoki bati begiratuaz". Eta, nondik nora Euskalerraren "ona"? zer ta nola kristau-pentsamentuaren mamia? zer ta nola euskal-izkuntza egokia?

Orregatik, bi saio-aldi bezela jarri genituan: izkuntza-saioa ta kultura-saioa.

IZKUNTZA-SAIOA

Don Manuel Jaunak zuzendu du benetan, beñ bakarrik ere utsegiñ gabe; elkarrizketan, elkarri erakutsiaz eta elkarrengandik ikasiaz.

Aztetu bearreko gairen bat sortutakoan, norbaitek bere gaiñ artu izan du gaiaren aztertzea, eta urrengo ikas-saioan agertu. Beti ere... gai ortaz klasikoek zer dioten ikusiaz, eta erri-izkerak zer dakarren entzunaz. Onela mintzatu izan zaizkigu: Akesolo jauna maiz, Oregi jauna ta Zatarain jauna noizean beñ, Errezola jauna bizpairu aldiz.

Aurkezturiko lanak ikusi ondoren, zuzendariak berak borobildu ta osatu izan ditu emandako iritziak.

Ikus emen ondoren jaun oien lan batzuk; batzuk diot, geienak jaso gabe geldituak bait-dira.

Gai berezien ikusketa egiñ ondoren, idaztekoan sorturiko galderak agertu oi ditugu. Jakiña idazkera txukundu ta edertu bearra, bizi guziko lana ba da; baiña, "egokitasun" bat bearrezkoa dugu, nai-ta nai-ekoa.

Gure izketarik geiena erderaz dabilkigu, ta uste-gabeen sartzen zaizkigu erderakadak... amaika ta amaika aldiz. Eta andik edo emendik jasotako esaera okerra edo gaizki-egiñak ekartzen ditugu, eta bakoitzari izpideak an bertan sorrerazten dizkionak.

Benetan ikasbide oparoa ta laguntzaillea dugu izkuntza-saioko elkar-
rrikketa.

Baiña, alaz ta guziz, zenbat geiago egin genezakean... nor-berak arre-
ta geiagor artuko bagendu saio onen elkarriketa edo galde-egitea!

Nere ustez ez luke iñork saio-oetan parte artu bear, galde bat edo
beste egin gabe. Besterena entzute utsak, laster aspertuko bait-du ikaslea.

Elkarriketan ukitzen diran gaiak ez dira erabakitzen, (esakuntza
edo idazkera bat artu, ta *besteak* baztertuaz) baizik... ikasleari lagundu
egiten zaio biderik oberena ikus dezan eta bere baitan... ikusi, ikasi, ta
erabaki dezan.

Egia esan... duda dut gauzak onela lasaiegi gelditzen ote diran; eta
aintzakotzat bear bezela artzen ez ote ditugun.

Idazkaritzako kuadernoan dauzkat... asieratik onuntz... saio-oetan
egindako galde-erantzunak asko edo geienak; baiña erabakitasun geiagor-
rik gabe ez dut uste jende-aurrera agertu bear dutenik. Agian, gure ar-
terako bederen... komeni litzake txukundu ta agertzea.

* * *

KULTURA-SAIOAK

Gaur dan egunean, edonork darabil bere baitan (besteak beste) one-
latsuko jakin-miña: nondik-nora gure Euskalerraren etorkizun? zer-
nola kristautasunaren mamia?

Nolabit gure burubideak argitu ta irizpideak bateratu nairik edo...
Kultura-saioa izan dugu gure eskoletan.

1971-72'ko ikastaroan: Jose Miguel Barandiaran jaunak lau itzaldi
eman zizkigun Euskalerriko Etnolojiari buruz; eat bere itzaldiak ontara
zeotzen azkenean gure galderari zegokionez: Leen, abelzaitzan, nekaza-
ritzan, arraintzan... gauza guziak Jainkoaz mintzatzen ziran. Orain, tekni-
ka-garaiean, giza-sorkariekin lotua bizi da gizona. Jainkoarekiko ezaupi-
derik ba al du? ez al gera leengo ezaupidetan gelditu?

Gure ekintzarako, Barandiaran jaunaren kontseilua au izan zan:
gaurko eztabaidetan, goragoko mailla batean ikusketak egin, ta argi-bi-
deak zabaldu, geren buruak naasketaren txikiketan ondatu gabe. Ortara-
ko sakon ikasi, maitasunez erakutsi, biotz onez lagundu. Barandiaran
jaunaren itzaldiak, magnetofonoz artu ziran, baiña paperera pasa gabe
gelditu dira, eat eziñ argitaratu ditugu.

Urren, Lekuona jaunak iruren bat itzaldi eman zizkigun, "Kristau-
tautasunaren antziñako aztarnak" gaia zualarik: Irun'go Xantalen ermi-

tako azpi-aztarketak zirala-ta, ermitañoen kutsua darioten koba edo le-
ku-izenak dirala-ta... Zipirio, Saturdi t. a "san, santu", "santi", "Done"
aipa-izenak edo izen soillak dirala-ta. Itzaldi auek, Jainkoak nai badu,
datorren urtean Lekuona jaunaren "Idazlan osoak" argitaratzen diranean,
antxe izango ditugu.

Urren, Sebastian Insausti jaunak iruzpalau itzaldi eman zizkigun:
Gaia: Zer-nola jaio ziran Gipuzkoa'ko "uriak". Aldez-aurreko bizi-le-
gearen aztarnak, usario, oitura ta auzoetan; uri-legeak, uri-elkartea edo
Hemandadea, lege-zarren jaiocera ta izaera, Aide-Nagusien zer-ikusia
bizi-eratzten ontan. Itzaldi auek idatziak daude ta argitaratzeko prest;
luzatu gabe argitarako dira noski.

Kaleko barriketak nolako iritziak dakartzkian t. a. Oñatibia jaunak
bilduma bat egin-ta aurkeztu zigun; argitaratzeko prest dago.

* * *

1972-73'ko ikastaroan, giroak ala eskaturik edo, izkuntza-gaiak bete
dizkigu eskola-saiorik geienak.

Orixe jaunaren idazkerari buruz, azterketa batzuk... Lekuona jau-
nak egiñak, argitaratu dira eta geroago beren lekuan argitaratuko dira
berriz.

Errezola jaunak azterketa auetan parte artu du esakerak ikusiaz ta
miatuaz gai bakoitzean; bere idazlanaz ez daude argitaratzeko prest
oraindik.

Juan M.^a Lekuona'k bi itzaldi eman dizkigu: gaia: Kristautasuna
Euskalerrian... zer-nola errotu zan, gogo-joera nagusiak... Leengo landa-
re-ondotik sortzen zaizkigun muskillak: aztikeriak, sorginkeriak t. a.
Gai onek ikusketa geiago eskatzen digu, ta ortan gaude; egun-otan gai
oni buruz Aralaren egitekoak ziran estudio-batzar batzuk, eta ikuspide
berririk sortzen ote dan edo: berriz mintzatzekotan gera.

* * *

Gure asmoak eta ekiñaldiak onela izan dira. Asmoak luzeago noski,
egiñak baiño.

Alaz-ere aurrera jarraitzeko ustetan, fruitu ugariago ta oparagoak
sorrerazten ote ditugun. Maiz-aski egona naiz erdi-etsirik... nere idazkari-
gelan; baiña nori ez dio jarraieraziko gure zuzendariaren pazientziak?

Idazle-eskolak, illean beñ edo bai aldiz izan ditugu, joan dan gu-
zian.

Amabi-amairutik ez gera beñ-ere jeitxi; ogei ta bostetik gora nekez
pasa gera. Bitarte ortan ibilli gera. Amaseiren bat geinean.

Bukatzeko eta esamiña onek dakarkigunez, asmo-berritze au eskein-
tzen dizuet:

—Idazle bakoitzak, gutxienez illean beingo artikulu orixe egin de-

zala. Gaia, norberak aukeratzea obe noski. Ala-era, nai ezker..., danon artean gai-banaketa antzeko zerbait egin genezake.

—Liburuxka diralakoen idazlanerako... lema ar dezatela Zunzunegi ta Oñatibia jaunek.

—Idazle-Eskola bakoitzara, datorren guziak ekar ditzala bizpairu galdera.

—Kultura-saioetan, bakoitzak ager ditzala... etorkizunari edo fedemamiari buruz dituan argi-eskeak edo-ta argi-eskeintzak.

Danok aibeste egingo bagendu, gure ekintzak baluke noski emaitza oparorik.

Milla esker. Agur.

ARAUDIA OSATZEA

Ondoren arandiari erasketa au jartzea zeuden guztiak onartu zuten :
“Buru-Batzar Nagusikoak bear dute izan euskalki bakoitzeko lendarikariak.

Eta auek dira oraingoz: Araba'ko Felipe Tolosa; Bizkai'ko Martin Olazar eta Gipuzkoiko Anastasio Arrinda” Bazkide guziak ontzat eman zuten erabaki au.

Onekin bukatu zan gaurko batzar au.

Loyolan. Maiatzak 1. 1973.

4

Gizonak

MANUEL LEKUONA

“GUIPUZCOA. HOMBRES Y NOMBRES. PADRE MANUEL LEKUONA”

Izen-buru onekin J. L. Zubiaurre-k GUIPUZKOA 73 - liburuan argitaratu duan lan bat, euskeratu nai izan degu emen. Barkatuko al digu itzez-itzez egin ez ba-degu. Mamiak eman bait-digu naiko lan.

ALBISU'TAR Anastasio

Jakinza gai askotan nortasun berezi bat duan gizona da On Manuel Lekuona. Ikasgai aundikoa ta saiatua, ixilla ta arrokerik-gabegoa, jakintsuak oi diran bezela.

Orain 79 urte jaio zan Oiartzun-en. Ondo irabazia du, ba, bere nortasuna. Ta bere adimen argiari ta bere lanerako gogo biziari esker, ameslari ta adoretzu ikusten degu orindik ala ere, bai aolko zuzen bat, apaiz bezela, emateko, ta baiat, jakintzu bezela, Euskal-erriko jakintzaren alde leiatsu jokatzeko ere.

Ikusi ditzagun, lantxo ontan, euskal-jakintzak On Manuel Lekuonari zor dizkion lau edo bost gauza. Bera izan bait-da lau edo bost gauza auek sortu, indartu ta zuzenbideratu dituana nola-edo-ala.

- a/ Euskal-literatura.
- b/ Euskal-edestiarenganako zaletasuna.
- c/ Erti-lanenganako zaletasuna.
- d/ Euskal-idazle eskola.

Idork ez bezela aztertu zuan berak AO-AOZKO EUSKAL LITERATURA, ta zor zitzaion maillara jaso. Ta orra-or lekuko berak idatzi zigun LITERATURA ORAL EUSKERICA liburua. (Itxaropena. Zarauz. Zabal-kunde sorta). Liburu ontan ikasi zuan gure erriak “bertsolaritasunaren” ederra. Ta orduantxe asi ziran aundikiro ospatzen bertsolarien arteko leia-aketak eta abar.

Bera izan zan ere, EUSKAL-EDESTIA-RI BURUZ bein-da-berriz au esan ziguna: Euskal-Edestia sakondu nai duanak, kontuan izan bear dituala, edestiaren laguntzalle diran beste jakintza batzuek eta abar. Ots: etnologi edo enda-iztia, gizarteko erakundeak, lekuen izenak, aldi ba-koitzeko oroigarriak eta abar. (Gutxi izan arren, ez dutelako orregatik beren jatortasunik galdu oroigarri oiek).

Garbi-asko azaltzen digu bere pentsakera gai oni buruz “Boletin de la Real Sociedad de Amigos del Pais” aldizkarian idatzi izan zuan la-

nean: ESCOLLOS DE NUESTRA HISTORIOGRAFIA. (Normas de buen sentido para nuestros historiografoa. 1971).

Eta Euskal-errian gordetzen dan ERTI-RI BURUZ mintzatu izan garanean, au esan izan digu askotan: Ontan ikusten duala bere meriturik aundiena: Asuncion Arrazola Ama-k egin zuan EL RENACIMIENTO EN GUIPUZKOA lan ederrean, bera izan zuala, alegia, "bigarren mailla bateko gidari".

On Manuel-ek ba-du, ordea, iñok ukatuko ez dion bere beste meritutu bat. Berak arkitu bait-zituan bi "greco" Gipuzkoa-n. Gatzaga-n bata 1920-garren urte-inguruan, eta Zeztua-ko Iraeta-n betea. Orezaz gañera, berak arkitu digu ere, Astigarrabia-ko San Andres elizan, erroman-aurreko perra-mokoko leio luze bat. 1935-garren urte-inguruan, Bisigot-garaikoa...? Mozarabe-garaikoa...?

Gazteiz-ko Apaiztegia sortu zuan EUSKAL-IDAZLE-ESKOLA 1924-garren urtean, eta KARDABERAZ izena eman zion. Orain biren-bat urte ekin zion beriro eskola orrek eta ba-du gaur, euskal-liburuak argitaratzeko, etxe bat ere.

KARDABERAZ-tik kanpora ere, ikusgarria izan da On Manuel Lekuona-ren lana, Eliz-Liburuak euskeratze ontan. Or daude danon txaloga-ri.

Aipatzekoa da bere idaz-lanetan Gazteiz-ko Apaizgaitegian, ikastaro-asierako, egin zuan itzaldia 1918-garren urtean: LA METRICA VASCA.

On Manuel-ek bertan zionez, euskal-bertsoak ere, latera ta gerkerako bertsoak bezelaxe neurtu bear dira, doño-arauz, izkin-arauz baño. Ta agertu ere, agertu nai izan zuan Arrese Beitia-k bere olerkietan ibiltzen zuan neurri ura ta "exametroa" bat zetozela.

ORIXE irten zitzaion aurka.

Illean-bein izaten zituan euskerazko eskola aiek, eta laister oartu zan, euskeraz ondo idazteko, eliztia-ikastea ez zala naiko. Idatzi egin bear zala. Eta ikasleak orduan Bazkun bat sortzeko eskatu zioten ortarako. Bai bait-zeuden leendik onelako beste bazkun batzuek: Mixioetako bazkunak eta Gymnasium. Orduko jakintsuen pentsakera obekiago ezagutzeko, On Jose Migel Barandiaran-ek sortu zuan azken au. Ta orrelaxe sortua degu KARDABERAZ BAZKUNA.

1930-garren urtean izan zan Bergara-ko CONGRESO DE ESTUDIOS VASCOS. "Erri-jakintza" aukeratu zuten billera auetarako gai. Ta billera auetako idazkari zan On Angel Apraiz-ek itzaldi bat eskatu zion On Manuel-i erriko-literaturari buruz. "Kopla zaarrak" eta "bertsolari-tza" aztertu zituan On Manuel-ek. Eta itzaldi onen ondore izan ziran Donosti-ko Kursaal-azpian "Santotomasetan" geroztik eratu izan ziran bertsolarien arteko txapelketak eta abar. Eta txapelketa auek ez zuten azkenik izango gure egunetaraño. Ta danok dakigu nolako jendetza eramaten duten ere.

Luzegi litzake On Manuel Lekuona-ren lan guztiak emen aipatzea.

Esan dezagun ordea, On Manuel Lekuona-ren liburu, itzaldi, idazki ta beste bere lanak aberastu egin digutela Euskal-erriarenganako ezaugera, ta bere iritziak azken-iritziak izan dirala gauza askotan.

1950-garren urte eskerotik degu Euskaltzain On Manuel Lekuona, ta Euskaltzaindiaren-buru ere izan degu iru urte.

Itz auek utzi zizkigun Euskal-erri-jakintzan ain aundi izan zan On Fausto Arocena'k: "Aundia da benetan On Manuel Lekuona-ren nortasuna. Aurrerapen asko zor dizkio euskal-jakintzak. Olerkari ta euskaltzaina bere erriarentzat bizi izan da beti. Ta bere erriari eman dizkio, Gazteiz-ko Apaizgaitegia euskera, gerker ta eberker irakasle zalarik, azaldu izan zituan adimen-doi aundiak. Bañan euskeari zor ba-dio bere nortasun aundi ori, ez dio gutxiago zor erti-landan izan zituan ondore zorionsueri". Ta leen aipatu ditugun bi "grecoak" aipatzen ditu gero.

ORA ET LABORA. Ona emen On Manuel Lekuona-ri zor zaizkion itzak, bai apaiz bezela, ta bai jakintsu bezela ere.

AITA JUSTO MARI MOKOROA

ORTIK ETA EMENDIK

1) *Noiz asi ziñan zure lanean?*

Aurten berrogei ta zazpi urte: lenengo aldiz Txile-ra bialdu nindutenean. Lendik-ere saoren bat egin-gabea ez nintzan; baiña 1926-ko raillean ekin nion len ez bezela, euskerazko itz-joskera ta esakuntza egokiak jasotzeari. Ez alegia, argitara ekartzeko asmoz; neronen aurzaroko izkuntza alik ondoen jaztearren baizik, etorkizun obeen amets gozoak buruan. Argitarako prestamenetan, berriz, askoz geroago asi bear izan det, eta ez neure burutik.

2) *Zer izen du zure lanak? eta zergatik?*

Asi-berri artako kuadernoen izena eman diet geroztikako beste guztiai-ere: "*Ortik eta emendik*". Argi-askorik esaten dizu deitura onek, zertsu dan lana bera: erriaren aotik eta idazle jatorrenen liburuetatik ederraren ederrez aukeratutako ale-pilla bat. Zer izen eman beariko ote zaion, zelaira datorrenean? Jaio dedilla beintzat aurra okerrik gabe... ta bataio-egunerako, zer-edo-zer pentsatuko al dute aita ta ama ponte-kok-ere beren aldetik...

3) *Nola eratzen ari zera, lan ori?*

Neronentzako ustean egiña izanik, beste arpegiera bat eman bear zitzaion, argitara aterako bazan. Iru eginkizun zituan bearrenak: a) esakuntza bakoitza nondik norakoa zan adiraztea; b) bere lausotasunak egiñala argitzea; c) zein bere lagunakin sailka jartzea, gaiak dakarrenez eta alik erosoan billatzeko moduan. Orra zertan ari naizen, urte t'erdiz onuztik, buru-belarri.

4) *Nondik nora jaso dituzu "esakun" oiek?*

Andik eta emendik, non-naitik, euskal-era guztietatik. Belarri erneakin ibiltzen oitua dagoanak, liburuetarara oraindik eratxi eztiran milla gauza jakingarri entzuten daki euskaldun garbien aotik; eta, etxeko eskolatik asirik, goiz artua det, ustez, oitura ori. Idazle errikoi batzuen euskerak-ere, izenbat pitxi bikain, iñongo iztegi egundaiño jaso eztitua-

nak! Orrelako maisuen atzetik ibilli naiz aspaldi luzean, nere bizimodu-ko zer-egiñak utzi dizkidaten lan-arteetan.

5) *Zenbat "esakun" dauzkazu jasota? Zenbat liburu gutxi gora-bera izango dira?*

Sinistuko al didazu eztakidala galdera orri erantzuten? Nere orri aundi onen neurrikoak, milla ta eun bete dizkiot txartel-gilleari, ogei ta lau milla esakuntzaren gaiaz. Eta beste lau-alakorentzat adiña leku beariko da oraindik, zai dauzkadan irurogei t amar kuaderno ustuko badira. Ni baiño adituagoa zera berdin arazo oetan: atera zazu zerorrek ortik aurrerako kontua.

6) *Zeñi eskeintzen diozu zure lana?*

Aita Kardaberaz-en orain berreun urteko esana oraindik-ere zutik baldin badago, ta "gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai badu", eginkizun aundi orri nolabaik laguntzea izan dedilla nere lanaren gaiñeneko buruzbidea ta aurrenengo ondorea. Bearrik-ere, eztu iñork kulterako izango nere laguntza au, ez bide orretan, ez bestetan.

7) *Noizko eratuta izango dezu, gutxi gora-bera?*

Beste egiteko-gabe edo gabetsu lanean diardudala ba dakizu; Jainkoak onez banau, azkeneraiño jarraitzeko gogo bizia dedala-ere bai. Zer geiago esan dezaizuket, irurogei ta amabi urte lepagaiñean ditudan onek? Zuk eta ibeste iñork baiño naiago nuke oraintxe, ia-iean naizela esan al baneza gezurrik gabe.

8) *Zenbat laguntza beariko dezu bitartean?*

Diruagatik au ta ori ta bestea esaten da, ta esango da: baiña, nere au ta beste asko bezelako lanak, aurrerapide gutxi dirurik-ezean. Bi laguntzaille eskuzabal egokitu zaizkit oraindaiñoan, eta ez eskean ibilirik: bilbotarra bata, txiletarra bestea (*Noruegan* bizi dana bigarren au, ta euskeraz *naiko poliki ikasi* duana). Lagun bi oei eskerrak egiñ al izan det bide-puska on bat emezortzi illabete ontan. Baiña laster arkituko naiz, nere kopiatazaille zintzo ta bizkorrari bere nekea ezin sariturik, nundik edo andik beste alderdirik sortzen ezipazait. Ez aztu au, Kardaberaz-tar adiskideok!

AITA LARRAKOETXEA BEDITA

SHAKESPEARE EUSKERAZ

Oñate'tik 1973-V-17'gnean.

Garmendia'tar Juan José Apaiz J.'ri.

Tolosa'ra.

Agur, ene Jaun: Emen doatsuz eskatzen daustazuzan zerak, al do-danik eta laburren:

1) Shakespeare'n antzerkiez beste libururik ez dot ni eginda, bai beste lan laburragorik, baña onetarikorbe ez asko.

2) Euskeraz idazten noiz eta non asi nintzan? Amaseia-amazazpi bat urte nebazala asi nintzan euskeraz idazten, baña orduan idazki edo kartak bakarrik. Aldi aretarako sartu yatan biotzean gure euskereaganako kezka bizi ta maitetasuna, baña aldi atan besterik ezin egin gure etxe onetan gure nagusien aldetik olango kezka ta zaletasunak begi onez ikusten ez ziralako. Oraingo gazteak konturatu be ezin leitekez zelango elorri gorriak igaro-bearrean aurkitzen gintzazan aldi atako gazteak euskeraren alde ezer onik egiteko!

Nire eskuetara etorten zan edozer pitxitzat eta yaki gozotzat neban nik orduan. AXULAR eskuetaratu eustan Zulueta'tar Felipe zalako euskaltzale batek-eta, ezta lez miatzatu neban idazti zoragarri a. Zori onez, gure euskereaz beste izkuntzarik ez ekian sendian yaio nintzan Bizkai'ko Zeanuri'ko Undurraga auzoan-eta gure euskerea iturri garbitik edan neban, Yaungoikoari eskerrak. Aitaren aldetik Bizkaitar garbi nozu; amaren aldetik Napar-Gipuzkoar.

3) Ameriketari (Argentina'n) 15 urte igarota, 1954'gn. urtean egin neban osterata bat gure Euskalerrri onetara ta emen gure euskerea kinka larri-larrian egoala ikusirik aren alde ta bizirik iraunazoteko al nebana egiteko asmo sendoa artu neban eta, orretarako ta gure erriari irakurgai atsegingarrien bat emoteko, Shakespeare Ingelandar idazle ospatsuaren antzerkin banaka batzuk gure euskerara itzulteko asmotan lanean asi nintzan, bein iru-lau bat egin nebazanean guzti-guztiak (37)itzuli bear ne bazala otu yatan, otu ta egin. Gu euskeldunok buru-gogorak gareala esango dabe gero! eta bai izan be, ni beintzat.

Oneixek dira Shakespeare'n antzerkien izenak:

1) EKATXA (The Tempest).

2) BERONA'KO GIZALZINDO BI (Two Gentlemen of Verona).

- 3) WINDSOR'KO GOGALDI ONEKO EMAZTEAK (Merry Wives of Windsor).
- 4) AMABIGARREN GAUA, NAIZ ZEUK ZER-GURA (Twelfth Night: or What You Will).
- 5) NEURRIRI NEURI (Measure for Measure).
- 6) Utsagaitik Otsak Ots (Much Ado About Nothing).
- 7) Uderdiko Gau-Ames (A Midsummer Night's Dream).
- 8) Alperriko Maitaketa-Nekeak (Love's Labour's Lost).
- 9) Binixa'ko Saleroslea (The Merchant of Venice).
- 10) ZEUK ZELAN NAI (As You Like It).
- 11) Ondo Dator Azken Onik Dauen Oro (All's Well That Ends Well).
- 12) Basatia Ezita (The Taming of The Shrew).
- 13) Negu-Ipuña (The Winter's Tale).
- 14) Okerreko Usteetatiko Barre-Antzerkia (The Comedy of Errors).
- 15) Yon Bakaldun (King John).
- 16) II Errikarta Bakaldunaren Bizitza ta Eriotzea (The Life and Death of King Richard II).
- 17) IV Endika Bakaldunaren Lenengo Zatia (First Part of King Henry IV).
- 18) IV Endika Bakaldunaren Bigarren Zatia (Second Part of King Henry IV).
- 19) V Endika Bakalduna (King Henry V).
- 20) VI Endika Bakaldunaren Lenengo Zatia (First Part of King Henry VI).
- 21) VI Endika Bakaldunaren Bigarren Zatia (Second Part of King Henry VI).
- 22) VI Endika Bakaldunaren Irugarren Zatia (Third Part of King Henry VI).
- 23) III Errikarta Bakaldunaren Bizitza ta Eriotzea (The Life and Death of King Richard III).
- 24) VIII Endika Bakalduna (King Henry VIII).
- 25) Toril eta Kerside (Troilus and Cressida).
- 26) Atenai'ko Timon (Timon of Athens).
- 27) Koriolan (Coriolanus).
- 28) Yuli Kaisar (Julius Caesar).
- 29) Andoni ta Kelopatere (Antony and Cleopatra).
- 30) Kinbelin (Cymbeline).

- 31) Tita Andornika (Titus Andronicus).
- 32) Perikel, Tiro'ko Errege (Pericles, Prince of Tyre).
- 33) Lear Errege (King Lear).
- 34) Erromi ta Yuletxu (Romeo and Juliet).
- 35) Macbeth (Macbeth).
- 36) Hamlet, Danemarka'ko Erregeseme (Hamlet, Prince of Denmark).
- 37) Otel, Binixa'ko Mairua (Othello, The Moor of Venice).

Bizkaiko euskalgiz idatzi dodaz nire idazlan guztiguztiak, Bizkaierea yatorrizko nire euskalkia dalako ta, orexegaitik, nire aragi ta odol eginan dodalako; ganera, Bizkaitarra be zerbait emon bear yake euren euskalkian gogoz irakurri dagien. Bizkaieraz idatziarren Gipuzkoarrak beintzat errez irakurri ta aituko dabe Bizkaieraz idatzia, guk bizkaitarrok Gipuzkeraz idatzia erraz aituten dogunez. Bein ORIXE zanak idatzari yarrai bear gintzakioz: yakintza-geietan izan ezik bakotxak bere euskalkiz idatzi, bestela idazten danak bere piper eta gatz guztia galduko leuke-ta. Arlo onetan ba-dot zer-esanik asko, baña bein-beinean esana bera be oraingoz asko izango dala nik uste, labur idazteko eskatu daustazunazkero.

Anaiarteko guda-aurretik "Granja Modelo Fraisoro"ko inkineru izandako Garcia Peña'ren "Patología Vegetal" zalako liburu andi bat be euskerara itzuli neban norbaiten eskariz, baña itzulketa-lana nik eginarren liburuagaz beragaz nik ez dot beste zer-ikusirik eta, orregaitik, a liburu ezin etsi nik niretzat; ganera, ez dakit liburu ori nondik dan be, guda-aldian Pantze'ra eroan ebela bai, baña besteriz ez.

Gudea asi zan urte berean yaso neban nik urte atako KIRIKINO-saria, aurreko urtean Bilbao'ko egunkari baten argitaratuko nire idazlan bategaitik.

YAUNGOIKOZALE'n eta EUSKAL ESNALEA'n be gitxi-asko idatzia nozu.

Paris'ko sariketa baten be, 1956gn. urtean-edo lenengo saria yaso nozu, Zaitegi Abeak eta Ibinagabeitia zanak ondo dakienez.

Bein, ez dakit zein urtetan, baña dana dala guda-aurretik Iruña'ko norgeiagoketa baten be lenengo saria nik bidali neban lantxoak yaso eban.

Zure itaunai erantzun dautsedala uste dot, baña zerbait argiagotu bear izatekotan, emen nozu beti be zuri edozetan laguntzeko gertu baño gertuago.

Agur, Garmendia biotzeko, ta urrengorarte beti zure esanera.

Zure

Larrakoetxea'tar B'k

5

Idazle-Eskolako Lanak

IDAZLE - ESKOLAKO LANAK

NOIZ "BERE"? NOIZ "AREN"?

LEKUONA'TAR M.

Status quaestionis

Erderazko "su" posesiboa, latíñez, batzutan *suus* da; bestetan, *eius* (*eiusdem, ipsius*).

Adibidez: a) "Oportebat Christum pati, et ita intrare in gloriam suam"; "Verbum caro factum est... et vidimus gloriam eius".

Erderaz bi forma oiek beti *su* esaten dira: a) "entrar en su gloria"; b) "hemos visto su gloria". Euskeraz, zer?

Historia apur

Latiñaren bide beretik ibilli izan dira beti laburditar, be-nafar, eta zuberotar idazleak. Batzutan BERE erabiltzen dute, eta bestetan AREN edo BERAREN. Gero ikusiko degu noiz bata, ta noiz bestea.

Bizkaitarrak gai ontan erderaren bideari jarraiki zaizkio: posesiboa beti ere BERE egitera jo izan dute. A. Lino'k, leengoan esan zigunez, A. Añibarro'k, Axular'en "Gero" bizkaieratu zuanean, AREN guztiak BERE itzuli zizkion.

Gai ontan oso otsaundikoa izan zan aspaldi batean, Orixe'k, Bilbao'n, "Euzkadi'n" zegola, bizkaitar batzuekin, Bizkai'ko oituraren aurka izan zuan polemika. Beti BERE erabiltze ori, erderakada zala, zion, ots! erderaren kutsu txar bat, *solecismo* bat, alegia.

Gipuzkoar klasikoak ondotoxo jarraiki zaizkio Laburdi-aldeko ta latiñaren legeari. Eta guk ere, Liturgi-lanetan, bide oni beroni jarraitzen diogu.

Dana dala, ikusi dezagun orain, nola dan latiñaren eta beste aldekoen legea.

"Bere" ta "aren"-en legea

Gauza argitzeko, ipiñi dezagun eskema bat:

NIK, NERE;
ZUK, ZURE;
ARK, BERE?

—Batzutan bai, bestetan ez.

—Noiz bai, ta noiz ez?

—Erantzun baño leenago, oartxo bat: Posesivo baten barruan (*su* baten barruan) beti ere pertsonal bat (*ura* bat) dabillega.

Orra orain legea: “Posesivoaren barruko pertsonala, eta esaeraren pertsonala bat-bera diranean, BERE izango da; beste bat danean, AREN, BERAREN. Eta guzti ori esaera bat-beraren barruan danean; posesivoa urrengo esaeran-edo baldin badago, berriz ere AREN izango da”. “Pedro BERE etxean bizi da”; “Gu, AREN etxean bizi gera”. Ori da legea.

Orain, esaera beraren barruko bi pertsonalak bat-bera izatea, lau eratarata gertatu ditekete:

1) Esaeraren pertsonala, *nominativo* danean: “Ura (Pedro) BERE etxean bizi da”; (“*Petrus in SUA domo habitat*”); “Ark (Pedro’k) BERE etxean lan-egiten du”; (“*Petrus in SUA domo laborat*”).

2) Esaeraren pertsonala, *acusativo paciente* danean: “Ura (Pedro) guk BERE etxean ikusi degu”; (“*Vidimus Petrum in domo SUA*”).

3) Esaeraren pertsonala, *dativo* danean: “Arri (Pedro’ri) guk BERE etxean itz-egingo diogu”; (“*In domo SUA loquemur Petro*”).

4) Esaeraren pertsonala, *ablativoa* danean: “Arekin (Pedro’rekin) BERE etxean egon giñan”; (“*Cum Petro in domo SUA commorati sumus*”).

Ing. erako *nominativoa* (*ura*, Pedro) alda dezagun, eta leengo BERE ori, orain AREN bihurtuko zaigu:

Ni, AREN etxean bizi naiz;
Zu, AREN etxean bizi zera;
(Beste) Ura, AREN etxean bizi da;
Gu, AREN etxean bizi gera;
Zuek, AREN etxean bizi zerate;
Aiek, AREN etxean bizi dira.

Ala ere, 2’gn., 3’gn., ta 4’gn. erakoetan, aurreko *nominativoa* aldatu arren, posesivoa BERE izango da ta ez AREN.

Nik, ura (Pedro) BERE etxean ikusi det;
Zuk, arri (Pedro’ri) BERE etxean itz-egin diozu;
Gu, arekin (Pedro’rekin) BERE etxean egongo gera.

Erderaz, barriz, guzti oietan beti SU esango dute: “Yo vivo en SU casa”; “Tú vives en SU casa” etab.

Bizkai’ko, gai ontako oituraren adibidetzat, ikus arako olerki bizkaitar ezagun -ezagun ura: “Azkatasun - eguzkia / basotik urtenda / BERE argia edonun / arin zabaltzen da”. Gure legetan, “BERE argiaren” ordeztu, AREN (eguzkiaren) argia” bearko luke izan; edo-ta bestela, (eguzkiak) “BERE argia edonun arin zabaltzen DU”, olerkiaren rima urratuaz.

Praxis

1.—2’gn., 3’gn. eta 4’gn. eraetan, esaeraren *nominativoa*, *ura* danean, esaera naasiak gertatu oi dira: “Ark (Joan’ek) Pedro BERE etxean ikusi du”. Ez dakigu zeñena dan etxe ori, Joan’ena ala Pedro’reña. Dagon bezela, ba dirudi Joan’ena dala. Orregatik, Joan’ena ez baño, Pedro’reña balitz, BERE orren ordeztu beste formaren bat bearko litzake ipiñi: ONEN, BERONEN, BERAREN, alegia: “Joan’ek Pedro ONEN etxean.

II.—Ildakoen eskelaetan azaltzen diran “BERE emazte I. ta I. eta BERE seme-alaba I. ta I.” oiek, Gipuzkoa’ko legearen barruan ez daude ondo. Eskelaetan ez dago esaera bat bakarrik: bi esaera datoz, bata bestearen ondotik: (aitaren eriotza, eta etxekoen eskabidea). Bigarren esaeran dagon posesivoak, legez, AREN izan bar luke. Bañan AREN orrek, esaerari zerbait urrutiko edo aspaldiko kutsu ematen bait dio, AREN ori ez dator or ain ondo. Beragatik, edo-ta emen ere BERAREN edo BERONEN esan bearko litzake (BERONEN emazte I. ta I. k..) edo-ta, obeto, ezer ez: soil-soillik “Emazte I. ta I. k eta seme-alaba I. ta I. k”...

III.—BERAREN ori, ederkitxo ageri da Eguerri-kanta batean:

“Kantatu dezaiegun / Aurtxo Jainkoari,
poz aundi bat emanaz / BERAREN Amari”.

Egoki dago or BERAREN ori; bañan ez legoke itsuski BERAREN orren lekuan AURRAREN ipintzea; ots! izen-ordekoaren lekuan, izena bera, alegia.

Estilistikaz, izen-ordekoak oso zallak dira egoki erabiltzen.

Beste arau praktiku, beraz: “izen-ordekoen ordeztu, izenak berak erabiltzea”.

—Z ATZIZKIA

—Z, ATZIZKIA (MODAL-INSTRUMENTAL)

—Z atzizkiari izenarekin datorrenan, Gramatikaetan, “sufijo modal-instrumental” esan oi zaio: oñez, zaldiz ibilli; eskuz egiña, atxurrez lurra jorratu...

Izenarekin ez baño, aditzarekin datorrenean, “gerundio” esan bi zaio: esanaz, aitortuaz...

Praxis. Izenarekin datorrenean, modal baldin bada, geienean ondo erabilli oi da : oñez, zaldiz ibilli, palaz jokatu...

“Instrumental” danean, ordea, sortzen da zenbait naaste. “Instrumental” ori, erderaz, con esan oi dalako, euskeraz ere batzuren-batzuek “kin” egi oi dute : lurra atxurrarekin landu ; atxurrez landu esan bearean.

—Z GERUNDIO

—Z atzizki ori, gerundio danean (izenarekin ez baño aditzarekin datorrenean alegia galdera bat dago egin bearrik emen : —z (edo-ez) al da? ala -az? agurtuz? ala agurtuaz?

Praxis.—Liturgian, batean esanaz irakurtzen degu, eta bestean jarraituz. Jarraituz al da, ala jarraituaz? esanaz, ala esanez?

Oarra.—Erderazko gerundioak (“siguiendo”, “diciendo”) euskeraz iru-bat eratara egin oi ditugu :

a) Aditzari, bere jokuan, -la atzizkia erantsiaz : “diciendo” - esaten duala, degula ; “viniendo” - datorrela...

b) Aditzari (aditz - izenari) -ik atzizkia erantsiaz : “siguiendo” - jarraiturik ; “diciendo” - esanik ; “viniendo” - etorririk (?)...

d) Aditzari (adiz - izenari), gure -z edo -az atzizkia erantsiaz. Au da, orain aztertu bear deguna : -Z? ala -az?

Aurrera baño leenago, beste oartxoak : -ik'en eta -z'ren artean, aldeapur bat ba dagola : -z'ak actio simultanea esan nai duala, eta -ik' ek, actio successiva (-ik' ek, -ta'ren antz-apur bat duala, alegia) esanik - esanda : “Au esanik etxera joan zan” - “An esanda, etxera joan zan”... Etorririk - etorrira ; ekarririk - ekarrira”. Beraz, actio non successiva ez baño, actio simultanea esan nai degunean, -ik ez baño, -z edo -az erabilli bear degu (edota -la, aditzarekin).

* * *

Bañan jarrai dezagun gure galderarekin : esanaz? ala esanez? ; jarraituz? ala jarraituaz?

—Guk, gure eskolako oituran, bi bide dauzkagu gauza au erabakitzeko : gure klasikoak nola egiten duten ikusi, edo-ta bakoitzak bere belarriari galde-egin.

Ikustagun lendabizi, klasikoak zer dioten :

Larramendi'k : ikusiaz eta arabilliaz, e—kiñaz, landuez, usatuaz...

Kardaberaz'ek : utziaz, argituaz, begiratuaz, irakurriaz, ekiñaz, aldegiñaz, jarraituaz...

Frai Bartolome'k : ikasiyagaz, lagundubagaz, ikusiyağaz, esanağaz, egiñagaz, emonağaz, emonağaz...

Juan B. Agirre'k : etorriaz, joanaz, egiñaz erantzunaz, poztuaz, goxatuaz, deseatuaz, begiratuaz, goxatuaz, naiez...

Gerriko'k : eginaz, esanaz...

Lardizabal'ek : esanaz, agurtuaz, esanaz, kendu naiez, esanaz, esanaz, janez, naiez, aldatuaz, onduaz, esanaz, zabalduaz...

Axular'ek : tiratuz, edoskiz, direnaz-geroz, eranez, etendez, partituz, deliberatuz, prometatuz...

Ondorenak.—Klasikoetan ageri danez, gauza bat esan bear da : ibaiez beste aldean, -z soilik erabilli oi dala ; Bizkai-aldean, -agaz ; Gipuzkoa'n, -az. Arau onek bereizkuntza txiki.—txikiren batzuek izan ditazke ; bañan geienean ola bete oi da... Gauzak, garbi-garbi, ortarako joera du.

Oar txiki bat orain.—Geografian ezik, itzen forman ere, Gipuzkoa, Bizkaia'ren eta Laburdi' eren bion erdian arkitzen dala. Bañan, ala bearean, -z'ren gauza ontan Gipuzkoa'k Bizkai - aldera geiago jotzen duala, Laburdi-aldera baño : beraz, -az forma, bi, baten aurka” bezela dagola.

Orrek, zera esan nai bait du : batasun-bidean, erosoagoa dala az forma, -z soil forma baño.

Praxis.—Belarriari-galde-kontuan, guk aditz-eredu batzuek aukeratu ko ditugu (bukaera bardin-ezeko aditz batzuek) bakoitzak bere belarriazterketa aditz oien gañean egin dezan.

Ora, aditz-erenkada : jarraitu, ikusi, ari, nai, egin, esan, egon, jardun, bete, bota, jo.

—Jarraituz? ala jarraituaz? Ikusiz? ala ikusiaz? Ariz? ala ariaz? Naiz, naiez? ala naiaz? Egiñez? ala egiñaz? Esanez? ala esanaz? Egoñez? ala egonaz? Jardunez? ala jardunaz? Betez? ala beteaz? Botaz? ala boteaz? Joz? ala joaz?...

Oartxo bat geiago.—Ez ditugula kontuan eukiko, “pronunciacion relajada” ren ondoren diran formak.

—A ARTIKULO, NOIZ JARRI, NOIZ EZ?

Txillardegik, orain berrero, Orixe'ren omenaldiko “Zeruko Argian” —Orixe'rentzat “omen” baño laido ta mendragai geiago dakarren artikulo luze batean— beste gauza askoren artean, auxe dio : “—a artikulo Orixe'k geiegitan kentzen du”.

“—A ARTIKULO, —A ORGANIKA”

Txillardegik eta aren lagunak, izugarrizko ardura artzen dute “—a organika” dalako orren kontuan ; izugarrizko ardura “—a artikuloa”

eta “e organika” elkarrengandik bereizten eta inola ere “—a organika-rik” bere itzaren ondotik ez kentzen... eta inork, dana-dalagatik “Donosti’ra” edo olakoren-bat idazten badu, gauza ori gogor arbuiazen dute, erejia aundi bat bailitzan (ba zegok aundiagorik baztarretan!).

Bañan oraingo ontan, Txillardegik Orixe’rangan, organikarena baño areago arbuiazen du artikuloarena. Orixe’k “—a artikuloari” gorroto omen dio “euskalfuntsarik ez duan gorrotoa”. Txillardegiren beraren itzak dira: “Orixe’k a artikuloari zion gorrotoak, ez du uskal-funtsarik”.

“Gorrotoa diolako orrek” ez du esan naiko, noski, Orixe’k a artikulo-rik inoiz erabiltzen ez duanik, bear baño gutxiago erabiltzen duala esan naiko du Bañan, berriz ere, or nere galdera: Txillardegik berak ere bai al daki ondo ta seguru, noiz erabili bear dan, eta noiz ez? ez erabiltzea noiz dagon gaizki ta noiz ondo? Ez bait da, ain gauza jakin-erreza.

Errez ez izate ori, zailtasun ori, gauzatxo batek egiten digu oraindik zallago: alde batetik, gaur oraindik, Gramatika-kontuan gure auzo egiten dan latiñak ez duala artikulorik, eta, bestetik, gure inguruko gaurko erderak (gaztelaniak eta frantzesak) artikulorik izan arren, berak, guk ezbezalako beste neurri batean erabiltzen dutela: geienetan guk baño urriago; itz bitan, auzi ontan Gramatica comparadak argi gutxi ematen digula.

Ala ere, zail-ta-guzti, saia gaitezen gu, gai ontan aal degun ondoen arau batzuek gure gobernurako eratzten.

ARAU BATZUEK ARTIKULOARI BURUZ

1. Morfologiaz; erderazko artikuloa “preposicioa” dan bezela, euskerazkoa, atzizkia, sufijoa dala: —a (=el, la, lo) —ak (=los, las): “gizona”, “etxeak”. (Gero aipatuko ditugu beste forma batzuek: ok, —ik: gizonok, etxerik etab. Ez degu aipatzen emen, zenbait forma relaxaturik, idibidez, inauterik edo inauteriik, inauteriak’en ordez).

2. Sintaxis’ez: Artikuloa, euskeraz, era-bat, erderaz baño ugariago erabiltzen degula; erderaz ez dala erabiltzen, ser aditzaren predikatuetan, sujetoan bakarrik baizik (“La casa es hermosa”); euskeraz, berriz, biotan (“Etxea, ederra da”) “La casa es la hermosa” balitz bezela).

3. Izenari bere inguruan adjetivoak pillatzen zaizkionean, artikuloa aiskenekoari ipintzen diogu: “Itz onek”; “Euskerazko itzak”; “Itz on eta ondo neurtuak”. Ala ere, adjetivoak nabarmen berezi bear diranean, adjetivo bakoitzari erantsi leikio artikuloa: “Itz onak eta ondo neurtuak”.

4. Izenari zenbaki bat (adjetivo numeral bat) erasten zaionean, bitan bat gerta ditek: edo-ta izena “mugatua”, definitua, ezaguna, leen aipatua - edo dala, eta orduan, beti bezela, azkenekoari erasten zaio artikuloa: “Etorri dira bost gizonak” = “Han venido los cinco hombres”; edote izena, izen “mugatzekoa”, indefinidua dala, eta orduan artikuloa

kendu egiten da: “Bost gizon etorri dira” = “Han venido cinco hombres”.

5. Esaera “ezezkoa” danean, izan aditzaren ondorengo predikatuak ba du artikulo (“Pedro ez da ona”). Bañan aditza “izan” ez baño, beste aditzen bat danean (jan, etorri), orduan, aditzaren inguruko elementuakin, bitan bat gertatuko da, berriz ere: edo-ta elementu oiek, mugatuak, definituak dirala —eta orduan elementu oiek artikulo “mugatu” —a, —ak artuko dute (“Pedro’k, sagarrak, ez ditu jan”); edo-ta elementu oiek, mugatzekak “indefinituak” dirala; eta orduan elementu oiek, —a, —ak’en ordez, beste artikulo bat artuko dutela, artikulo “mugatzekoa”, indefinitua: —ik, —rik: (“Pedro’k ez du jan sagarrak”).

Adibide ontan, aditza “zerduna”, transitiboa da. Bañan arau ori berdin betetzen da, baita, aditza “zerduna” ez danean, intransitiboa danean ere, Aditzaren “egillea”, mugatua danean, —a artikulo mugatua artuko du: “Gizona ez da etorri”; bañan egillea mugatzekoa danean, —ik artikulo mugatzekoa artuko du: “Gizonik ez da etorri”.

(Oarra: Artikulo “mugatzekoa” —ik orrek, esaerari alako indar aundiago, estuago, zorrotzago bat ematen dio. Eta, bide orri jarraituz, aditzaren egillea mugatu-mugatua izan arren ere, inoiz ezartzen zaio baita —ik artikulo mugatzekoa ere: “Pedro’rik ez da azaldu gaur emen”).

6. Esaera, “galdezkoa” danean ere, 5’gn Arau ori berdin betetzen da: “Jan al du Pedro’k sagarrak?”.

7. Berdin, baita, baldintzakoa, condicional danean ere: “Bearrik badu, aitortu bearko du”; “Munduan ederrik bada-ta, ba zan antxe gauza ederrik.”

8. Orain arte esan deguna, gauza jakiña da. Edozeñek daki, aditza “ezezkoa” danean, aren inguruko elementuak —ik artikuloa artzen dutela (“Guk ez degu txanponik”; “Emen ez da gizonik”).

Bañan aditza, ezezkoa ez baño, baiezkora danean, eta baiezkoaren señaie adigarri bat daramanean, zer egin oi da? inguruko elementuai zer artikulo ipintzen zaie? —a, —ak? ala —ik?

Arestian ikusi degun adibidean, —ik bat arkitzen degu, baiezko “ba” dun aditz baten ondoren: “Ba zan antxe gauza ederrik!”. Eta orren antzera eta orren antzekorik esan oi degu inoiz: “Ba degu aurreragoko lanik”; “Ba det nik ere zer-esanik”... Ez asko, bañan inoiz esan oi degu olakorik. Leen, ordea, ba dirudi maizago erabiltzen zirala olako esaerak. Begira, 1448’gn urteko, Mondragoe’ko Kantaetan irakurtzen degu au:

“(Ba eukan) Gomiz’ek asko lagunik,
zabal arabaarrik,
giputz sendo ederrik,
bizkaitar urduri gogorrik”.

Artikulo —ik oiek, esaerari nolako indarra ematen dioten ikusteko, ken ditzagun —ik guztiak, eta ipiñi, —ik'en ordezt, —ak :

(“Ba eukan) Gomiz'ek lagun asko,
zabal arabaarrak,
giputz sendo ederrak,
bizkaitar urduri gogorrak”.

Edozeñek igertzen bait dio, noraño txepeltzen dan ola esaera guzia.

(Oarra : gaur, —ikien ordezt, olakoetan, —tik erabiltzen dala iñoiz : “a zan antxe gizonetik”.

9. Aditza, ezezkoaren ordezt, “baiezkoa” danean (ba Batekin dato-rranean batez ere) ba da, gai ontan, beste lege bat ere : aditzaren inguruko izenai —a artikuloa kendu eta izena soil-soillik uztea : “Ba dek ordu!”; “Aurten ba degu gari”.

Esaera oietan, aditzaren konplementuai artikuloa kentzeak ere indar berezi bat ematen dio esaerari —artikuloarekin izango ez lukean indar berezi bat—. Ikus bestela : “Ba degu garia”; “Ba dek ordua”. —A artikuloak esaerari indarra kentzen dio; artikulo ori gabe, giarrago ta indartsuago gertatzen dira esaerak. Eta, ezertan bada-ta, nik uste, olako esaeratan zan maisu gure Orixe. Ori, ordezt, Orixe'k ez bait... bait zuan ikasi iñungo klasikotan, baserri basserian baizik... Artikuloa noiz kendu? noiz ez? Neretzat, ezkutuko jakinduri berezi bat da ori, edozeñek ez duan jakinduria, bañan Uiziko mutillak, umetandik, iñor gutxik bezela ikasia.

10. Aditza “inperativoan” dagonean ere, berdin kentzen ditugu artikuloak aren ingurutik : “Emaiguzu, Jauna, osasun ta pake”.

11. Ala berean kentzen degu —a artikuloa, baita, aditz osatuetan “verbo compuesto” diralakoetan, aditz “osatua” sortzen degunean; adibidez “Gizon-egin zan” (ez bait degu esaten “Gizona egin zan”), “uts-egin zuan”; “min-eman zion”; eta itzetik ortzera sortzen degun ainbeste aditz “osatu”; “bear izan”, nai izan”, “ederretsi”, “onetsi”, “maisuzan”, “oker-egon”, “aundi-egin”, “gorroto-izan”, “luze-etsi”, “amets-egin”, “uste-izan”, “argi-egin”, “arnas-artu”... Olakoetan, lenengo elementuari (dala sustantivum, dala adjectivum) beti artikuloa kendu egiten bait diogu... eta azkeneko adibide ortan, bear bada, baita —a organika ere...

12. Berdin kentzen da, baita, izen bat “adverbio” biurtu nai degunean : “Gizon portatu zan”; “Gauza garbi dago”; “Mutil dago Usurbi'en”.

13. Beste kasu bat, benetan kasu bitxia : artikulo-kentze ori egiten zaio izenari, baita, izena deikian ipintzen danean ere “vocativoan”, alegia. Adibidez : karlistateko Kanta ontan :

Aizazu, txiki! aizazu, maite!
nundik bera dagon Portugalete?

Gañerakoan, deikia jato-jator egiteko, ba dakigu bi bide dituguna auskeraz, bi bide jator : bata, izenari, artikulo —a'ren ordezt demonstratiboa ori, orrek, orri, orren... ezartzea; eta bestea, izena artikulorik gabe, bera sollsollik uztea.

Adibide batzuek :

- 1) Maria : nora zoaz,
eder galant ori?
- 2) Enkargu egin deusat
ama zeuriari :
gorde zaizala neutzat
prenda eder ori.
- 3) Josepe'k esan zion
Ama Birjiñari :
—Ostatu eman nai
ez digute guri.
Estalpe bat ba dakit,
eta segi neri.
Antxen deskantsatuko
zera, triste ori.

Artikulorik gabeko “vocativo”, deikiari buruz, Portugalete'ko “Aizazu, txiki! aizazu, maite!” orreteaz gañera, beste asko ta asko adibide aipa genezake emen :

—Zer dezu, maite?
maite, zer dezu?

“Zer abil, motell?; “Nun zera, seme?”...

Bi deiki oiek, Orixe'k ederki asko ezagutzen bait zituan; bañan berri-erri esanda ere, ez klasikoetan ikasita, erriaren izkuntza xurgatuta baizik... Euskera dana ez bait dago klasikoetan (1).

14. Arkitzen degu gañera, artikulo gabeko izenik, erderaz frases lapidarias” esan oi diran esaeraetan; eta oiekin batean refran-errepine-

(1) Arritzeko gauza : gure klasikoetan, ez deiki oiek bakarrik, ezta beste zenbait detalle bitxi ere ez bait degu arkitzen idatzirik, beurek beren izketan erabiltzen zituzte gauzak ziran arren; oietan bat bait— praefixum causale dalakoa; ez Kardabeeraz'ek, ez Larramendi'k, ez Mendiburu'k berak ere eez bait dut iñoiz ere erabiltzen... Larramendi'k ezta bere Gramatikan, ere beste partikula causalen artean ez du sartzen. Berriz esateko ere, egia bait da, Euskera osoa ez dagola klasikoetan, ba dala zenbait gauzatxo, klasikoai igertzeke pasa zaienik...”.

tan: "Noruntz eguzki, arunt buruzki": "Goiz gorri, arrats euri"; "Donostia'n Donosti; gorostian gorosti"; "Pikak eguak xuri-ñabar"; "Okin berriak ogia zuri"; "Zozoak beleari... —beltz"...

15. Eta ortaz gañera baita beste esaera asko ta askotan ere, zaku naasi batean bezela bereizten errex ez diranak. Adibidez "superlativo"; "Eder-ederra"; "correlativo": "Senar-emazte"; "Zeru-lurrak"; "imperativo": "Iguzu pazientzi; eta oien antzeko ainbat; "Berriketa ta komeri, etzan izildu"; "zuri esker"; "Jainkoa lagun" "Esker Jaunari" etab. etab.

A ARTIKULO A O R I X E ' R E N I D A Z T I E T A N

Lenengo Ikasgaian ezarritako "—a" artikuloren legeak (asko beintzat) guk, ezarian-ezarian, poliki - poliki, Orixe'ren arieratik atereak ditugu: bera ari, eta guk aren arieran lege batzuek, "constante" batzuek ikusi...

Gaur, orren ondore bezela, atzera-begiratze bat egingo degu, eta ikusi, ea nola Orixe'ren idaztietan betetzen diran, guk lege bezela lenengo ikasgai artan ezarritakoak.

Ortarako ar dezagun, aren liburuetatik Klasikoena: "Meza - Bezperak"; eta liburu ortan "Illekiko Eliz-otoitza (1.229 gn. or.) Eta ikus:

1) "Zatozte... egiogun txalo". Ez dio "egiogun txaloa". txalo baizik, artikulorik gabe. "Txaloein" aditz osotu bat bait da.

—A'rik gabeko esaera au, gure 11' gn. legean sartzen da.

2) "Egiogun jai". Ez dio "egiogun jaia", jai baizik. Berriz ere aditz osotua: "Jai-egin", 11' gn. legean sartua.

3) "Jaun aundi baita (bait da) Jainkoa". Esan zezakean "Jaun aundia bait da"; (aundia izan'en predikatu bezela) eta beste idazle askok ola idaztuziko zuan, artikulodun; berak, ordea, kasu au ere aditz osotu egin naiago izan du: ots! "Jaun-izan" aditz osotua, erderaz "señorear"—edo esango litzakeana.

Ortaz gañera, Jaunari "aundi" adjectivum bat erantsi dio ("Jaun aundi bait da"; eta, egia esan ola Orixe'ren ariera ori naasixego egiten da: bañan ezin esan bait diteke ariera okerra danik; eta gañera, bestalde, ariera orrek esaera azkarrago, giarrago egiten du, esaera artikulodun balitz baño giarrago, indartsuago. Olako esaera asko arkituko diogu gure Orixe jatorrari. Au ere 11'gn legean sartzen da.

4) "Itsasoa bere du". Ez dio "berea du", bere baizik. Berriz ere, "bere-izan, bere-egin", aditz osotua; erderaz "apropiar" esango litzakeana. Au ere, 11' gn. legean sartzen da.

5) "Legorrari, bere eskuz, oñarri eman dio". Ez dio "oñarria eman", oñarri baizik. Berriz ere, oñarri-eman" aditz osotua; erberaz "cimentar" esango litzakeana. Esaera azkarra; 11' gn. legean sartzen bait da au ere.

6) "Bere bait dugu Jaun eta Jainko". Ez dio "Jauna eta jainkoa". lasaigo ta gezaigo esan zezakean bezela; bi formak, legezkoak dira; bañan berak bi formaetan giarrena ta bizkorrena aukeratu du; erriak ere, itzetik ortzera esaten baitu orren antzera arako "jaun ta jabe" esaera jatorra. Berriz ere, aditz osotua: "jaun-izan", "jabeizan", erderaz "señorear" esango litzakeana. 11'gn. legean au ere.

7) "Gu, berriz, bere erri gaitu". Bide beretik: 11' gn. legean.

Oarra: Salmoak arruntean irakurriaz arkitu dizkiogu Orixe'ri esatera jator oiek. Eta, nai dana esango da, bañan aitortu bearra dago, Salmoak euskeratzeko ez dagola estilo egokiagorik: gizenak ken! eta esaera, giar!

8) "Ernai, nere Errege ta nere Jainko!". Ez dio "nere Errege ta nere Jainkoa"; Errege ta Jainko: baizik: artikulorik gabe. Ez, ordea, beste oien bidetik, 11' gn. legetik; 13' gnetik baizik; ots! deikiaren, "vocativoaren" bidetik.

9) "Etzera Jainko gaiztozale". Esan zezakean "goiztozalea"; bañan baita "gaiztozale" ere, Berak "gaiztozale" aukeratu du, esaera giarrago egiteagatik. Sar diteke 11' gn. legean: "gaiztozale-izan" alegia; otsi aditz osotua, berriz ere; bañan sar bait liteke baita 12' gn legean ere; ots! zale adjectivum, adverbio biurtuaz, adverbium módale... Ikus arako Xenpelar' en.

"Ez naiz ni gerraren zale;
baizik pakearen alde".

"No estoy con ganas de guerras" "esango balu bezela". Itz berori bertsolari berak iñoiz adjectivum bezela ere erabiltzen duan arren. Ikus arako beste ura: "Orren zaldalea / ez da debalde: gauz onen zalea... / bizkotxo-ja-lea...". Bañan, beti ere, aitor bearra bait da, artikulorik gabe esaera bizkorragoa dala.

10) "Gizon zirtzillik ezin dagoke zure aurrean". Ez bait dio "gizon zirtzillak ezin dagozke". Gauza jakiña da, aditza esezkoan dagonean, aren egille eta complementuak, —a'ren ordez—, ik artzen dutela: "Emen ez dago gizonik"; "ez degu ikusi gizonik". Guk ori 8' gn. legean jarri degu.

11) "Maltzurra, gorrotagarri zaio Jaunari". Berriz ere, aditz osotua: "gorrotagarri-izan"; erderaz "abominar" esango litzakeana. Berriz ere, 11' gn. legea.

12) "Ni, zure errukiaren zai (nago)". "Zai-egon" aditz osotua 11' gn. legea.

13) "Aiek ez dute aoan egirik" —a'ren orde, artikulo (r) ik: 8' gn. legea.

14) "Aien zintzurra, illobi zabal da". "Illobi zabal" adverbio bezela; 12 gn. legea.

15) "Zugan itxaropide dutenak". "Itxaropide", artikulorik gabe: "itxaropide-izan" berriz ere aditz osotua; 11' gn. legea.

16) "Poz eta jai bezate", "poz-izan; jai-izan", aditz osotua: 11' gn. legea.

17) "Zure odiez babestu gaituzu; babeskiz inguratu". Ez bait dio "odeiaz, babeskiaz"; "odeiez, babeskiz" artikulorik gabe, indefinituak, mugatzekeak diranez.

18) "Alde Nigandik, gaiztagin guztiok". Ez dio "gaiztagin guztiak", guztiok baizik; izen ori deikian, vocativoan bait dago. 13' gn. legea.

19) "Olakorik egin badut Jauna". Ez dio (olakoak egin daditut). Aditzaren complementua, mugatzeke indefinitua da; eta aditza bera esaera baldinkatuan, "condicionalean" dago. 7' gn. legean sartzen da.

(20) "Nere eskuetan kutsurik baledi", Au ere 7' gn. legean sartzen da; aditz baldinkatuaren legean, alegia.

21) "Txarkeri egin badut". Esan zezakean "Txarkeriarik egin badut" aditz baldinkatuaren bidetik; bañan naiago izan du, aditz oso tuaren bidetik matizen baten billa ibilli. Ez bait da berdin, simpliciter "txarkeri egin badet" edota absolute "txarkeriarik egin badet" biok mugatzeke edota mugatuki "txarkeria egin badet"; ontan Orixe olako matizen baten billa bait zebillen. Nolanai dala, aditz osotuaren bidetik jo zuan; "txarkeri-egin", 11' gn. legearen barruan.

22) "Nere entzute ona auts biurtu beza". "Auts-biurtu", aditz osotua; 11' gn. legean.

23) "Jeiki zaite. Jauna, asarre". "Asarre" izenari, artikuloa kendurik, izena adverbio biurtu zaigu. 12' gn. legea.

24) "Jauna da errien ebazle". Berriz ere aditz osotua: "ebazle-izan" erderaz "juzgar" esango litzakeana. 11' gn. legea.

25) "Biotz eta giltzurin, ikertzen dituzun...". "Biotza ta giltzuriña ikertzen dituzun" en orde, "biotz eta giltzurin" dio, artikulo gabe. 15' gn. legean sartzen da, bete betean: ots! orrenbeste ta orrenbeste, —a gabeko esaera-sallean, alegia: "buru-belarri; ezker-eskubi; aurre ta atze"; esaera correlativoetan ere berdin gertatzen bait da: "senar-emazte; seme-alaba" etab.

26) "Ikertzen dezu, Jaun orrek". Euskerazko deiki vocativo jatorra, —a artikuloren orde, "ori, orrek" demostrativoa ipiñiaz egiten deguna, 13' gn. legea.

27) "Jainkoa, ebazle zuzen, bizkor eta iraunkor". Iru adjectivum, irurak artikulorik gabe, esaera giarrago, indartsuago egin bearrez. 9' gn. legea.

28) "Lezea Berak ideki du sakon", "Sakon" adjectivoa, artikulorik gabe, adverbio biurtu zaigu. 12' gn. legea.

29) "Eresi egingo diot". "Eresi-egin" aditz osotua, erderaz "cantar" esango litzakeana. 11' gn. legea.

OAR BAT.—Artikulorik gabeko 29 esaera ciek, "Illekiko Eliz-Otoitzetako" lenengo "Gau-alditik" artu ditugu.

Orixe'k, olaxe, besteak beste, artikuloak kenduaz, izkuntzari alako giartasun berezi bat ematen dio-leen ere esan degu-ta —"Dabid'en Salmoi" ain egoki dagokion giartasun ta trinkotasun berezi bat.

Guzti ori-ordea, olerki-gauza izanik, egoki legoke emen Orixe'ren prosa-troxuren batzuek ere, gai oni buruz, artertzea. Bañan ori beste egun baterako utziko degu.

Nolanai dela, nik uste, Orixe'ren trebetasun berezia gai ontan, gure 11' gn. legean aipatu degun "adits osotuaren" teknikari zor zaio. Ori bai: zenbait aditzi, bere konplementua bereiz eta artikulodun ipiñi bearrean, Orixe'k konplementu ori aditzari berari erantsi egiten diola, bien artean ola "aditz osotu bat" egiteko; eta ortik-teknika ortatik-dator esaeraren giartasun ta trinkotasun ta azkartasun berezi ura. Teknika ori, berak, askatasun aundiz erabiltzen bait du; ezker-eskubi, aide ta bote; adibidez; aditza "txaloezin" dalarik, aditza inperativoan datorrenean, "egiogun txalo" esango du. Berdin baita aditza "ebasle-izan", "juzgar") danean, bear bada, berak gauza onela eratu du: "Jauna da errien ebazle", aditzaren eta konplementuaren artean beste izen bat —"errien"— sartuaz. Beste orrenbeste egiten bait du, adibidez, beste ontan: aditz osotua "bere-izan" ("apropiar") danean, Orixe'k "gu, berriz, bere erri gaitu" esango du, "bere" ta "gaituren" artean "erri" sartuaz, eta ola beste aditz berri bat sartuaz; "bere erri egin", erderaz "adoptar" esango litzakeana.

Joku oiek —Orixe'k orren maiz egiten dituan joku oiek— oso jo

ku errikoiak bait dira; ortan ez dago dudarik; errikoiak eta eleganteak, esaera, bizkor eta arin egiten dutenak.

Artikuloak urritzea, esaeraren edergarri izan oi da askotan; ondo egin bear, ezik. Orixe'k ba daki, bear danean artikuloak sartzen; bañan baita, esaerak giarrago ta biziago egiteko, kentzen ere. Zail dala, ezik, ori ondo egiten; belarri fiña bear dala. Baña Orixe'k, iñork bada-ta, fiña bait zuan benetan, baserritan jatorra zanez.

Bukatezeko: Txillardegik Orixe'ri akats au egozten dio: —a artikuloa geiegitan kentzen duala.

Guk, gai oni buruz, Orixe'ren Libururik klasikoenean (“Meza-Bezperatakoan”). Illetai dagokien zatian, lenengo lau orrietan) ain zuzen, artikulorik gabeko itzak aztertu ditugu; eta lau orri-alde oietan 29 izen, artikulorik gabeko, arkitu ditugu; eta, ikusi degun bezela, danak legezkoak, gure 16 legeen naurri-neurrikoak.

11'gn. legekoak dira kasurik geienak: aditz osotuari dagozkionak, alegia: “txalo-egin”. “jai-egin”, “jaun-izan”, “bere-egin”, “oñarri-eman”. Eta, bear bada, oiek dira, Txinllardegi'ren belarrietarako kasurik latzenak. Ez dakigun arren, ori uste degu. Guk, ordea, kasu guzti eiek oso legezkoak arkitzen ditugu. Klasikoetan, bear bada, ez dira ain ugari topatuko, bañan erriaren aotan oso erabailiak dira, eta euskal-belarri fiñari ondo eraxten zaizkio-netakoak: itz bitan, oso jatorrak.

Eta ez goaz ezer geiago esatera.

NOIZ ERABILLI -TZAZ ATZIZKIA?

LINO AKESOLO

Atzizkia asko zabaldu zan idazle batzuen artean mende onen asieratik gora. Azkuek gogor egin zuen, bere *Morfologian*, atzizki ori izenekin erabiltzea gaizki zegoela-ta. Oraintsurarte ez omen zuen iñork orrela erabilli. Noiz edo bein agertzen omen da Intxauspe Zuberotarraren *Imitazionian*, pluraleko izenekin. *Eguzkiza* jaunak -tzaz pilla aundia atera ta erakutsi zizkion Azkueri antxiñagoko beste “Imitazionia” batetik artuta (Zuberoko euskarazkoa au ere); baiña guztiak ziran pluralekoak, bat ere ez singularrekorik. Baiña Gavel jaunaren oar zekarren azkenean: zuberotarrek atzizki ori singularrean erabiltzea ez zeukala gauza eziñekotzat.

Lafitte'k dio, berak iñoiz ikusi duela, oraintsu, *euskaraz* eta *euskaratzaz*, bata bestearen bereizgarria, alegia, euskaraz itz egin eta euskera gaitzat arturik itz egitea bereziteko.

ATZIZKI AU GURE IDAZLE ZARRETAN

Atzizki au, askotan, -z atzizkiaren ordezkia da, itzaldiaren edo solasaren gaia adiarazteko. Eta emen ez dute lege berdiña erabilli Bizkai-Gipuzkoako idazleek eta besteek. Gipuzkoako ta Bizkaikoak olako esae-rak *gaiñean* atzizkitzat jarrita egiten izan dituzte. Bestee, aldiz, -z atzizkia izan dute eta orain ere dute ortarako.

Kempis-en itzultzilleak ikustea besterik ez daukagu. Lapurtarretan maiz irakurriko degu: zeruko *donatsutasunaz*, eta munduko *miseriez*; ez gaizki iuia edo mintza *bertzeez*; gutizia *desordenatuez*. Eta beste edozein liburutan ere berdintsu: *eriotzeaz*, *Meza Sainduaz*, *garbitasunaz*, *pairamenez*, *sakramenduez*.

Zuberotarren liburuetan: egiaren jakitiaz, Jesukristoren imitazio-niaz, estekamentu gaiztoetzaz, bizitze huntako *miserietzaz*, saintien *exenplictzaz*, Jainkuaren amorioak eragiten dutien gauza *miragarriez*.

Gipuzkoakoetan: Bizitza onetako miserien gaiñean, egiaren dotriñaren gaiñean. Eta abar.

Gaiñean atzizki au aspalditik ona erderatiko itzulpen gaiztotzat dago. Azkue jaunak, bere Iztegian, bata ta bestea erdal-kutsuduntzat dauka.

GRAMATIKALARIEK ZER DIOTEN

Gramatikalariek zer diote atzizki oiei buruz?

Lenbizi -z atzizkiari buruz. Azkuarentzat atzizki onek gaia aipatzen

du, *causa material*; lenengo: larrez, mugitaz, askiz, garduz, zalgaz, zorigariz beterik (Peru Abarka).

Bigarren: bidea, *medio*. Betak ogiaz jan. Atzizki au -gaz atzizkigaz bat egiten omen dute (ogiaz jan), eta Gipuzkoan -kin atzizkiarekin (Ogiakin jan).

Irugarren (BN, L, S). Izketan zer gai erabilien dan agiarazteko. (de, se trata de).

Lafittek diona: Z atzizkiak adiera asko ditu, makillaz jo, gaixtake-riaz egin, zaldiz ibilli, egunaz etorri, sei egunez. Et azkenez, izketako gaia, *au sujet de*.

—Tzaz atzizkiari buruz zer? Azkuerentzat, -tzaz eta -zaz berdiñak dira, eta “medio” edo “instrumento” esan nai du, baiña izenordeekin ba-karrik erabilten da. Izenordeekin eta demostrativoekin: Zutaz, nitzaz, onetzaz, onezaz gainean, azaz gaineti. Euskalki batzuetan -taz egiten du-te: zutaz, nitaz.

Lafitte jaunaren iritiz. Gaia, izketako gaia (*questio qua*) esan nai du. Baiña Lapurdin *taz* erabilten dute, eta pluralean -etaz. Eta Zube-roan -etzaz.

—*Gaiñean* atzizkia ere erabili da iñoiz Lapurtarren artean, baiña, bear bada, ez du gauza bat bera esan nai (Touchant à, à propos de), Orren gainean erranen darotzut).

Bizkaian bada, *gaiñean* onen orde, beste esateko era bat: Gora be-ran, Orren edo aren goraberan asarratu dira (ori dala-ta, orri dagokala-ta, dagokionez).

Gaiñean ori, beraz, nozik bein ez da erdal-kutsuduna izango. Erde-razko a *vueltas de*, a *propósito* de esan nai du.

BERAZ

Len aipatutako esaerak arturik, auxe esan gantzake:

Lapurtarrek ongi jakin dute bakoitzari berea ematen. Singularrean gaia, izketako gaia adieraz teko -z erabili dute: eriotzeaz. Pluralean -ez: miseriez, eta baita miserietaz ere.

Zuberotarrek, singularrean berdin; pluralean, etzaz eta -ez: exen-pletzaz gauza *miragarriez*.

Au danau, atzizki oiek izenekin dijoazenean. Izenorde ta demos-tratiboekin *zaz* edo *tzaz* aurkitzen degu.

Eta Bizkai ta Giluzkoan ere berdin da, gutxi gora bera, demostratibo ta izenordeekin. Zutaz, nitaz, zuetzaz, zuetaz.

Tzaz ez da aurkitzen izenekin Zuberoan izan ezik, baiña pluralean.

Beraz: gizonaz, zeruaz, ez gizonatzaz, ez eruataz.

Pluraletan: gizonaz, edo gizonetaz (Zuberotarrez, gizonetzaz).

Ezta *gizonaren* edo *gizonen gaiñean* ere;

Erakusle ta izenordeekin: nitaz edo nizaz edo nitzaz, iru modutama.

Kardaberaz-en esaera batzuk: eskuaz ukitu, fedez egin, fedez ja-

kin, orrez gainera, zerbaitez baliatu, salbazioaz oroitu, akorda zaite zure agoniako iru ordu aiez, zer izango da nizaz, pekatari gaixoaz zer izan-goda, zertzaz arritu.

Gaiñean atzizkiak ongi egindako esaera nere ustez: Baldin beste gauza denboralen gainean artu emanik izan bada (a propósito de).

EGARRIAG NAGO TA OLAKO ESAERAK

Azterketa gure gramatikalarri, iztegi gille ta idaz leetan barna.

1. Gramatikalarrietan. Ez degu ezer arkitu gai oni buruz.

2. Iztegietan. Argirik geien Azkue-ren iztegiak ematen du.

K-letran onela dio; (G..., L..., R...). Se dice con palabras que denotan pasión, en vez del sufijo -z. *Otzak dago*, está de frío; *goseak dago*, en vez de *gosez dago*; *egarriak gaude* estamos de sed, en vez de *egarriak gauda* (Azkue, OVEF, t. 1, p. 456).

Mujikak ere aipatzen du (Iztegiaren geigarrian, *Afijos Vascos*, p. 1885) -K. 2. con palabras de pasión: *Otzak*, otzez, otzik nago: estoy de frío; *goseak*, gosez, goserik nago: de hambre; *egarriak*, egarriaz, de sed.

Esaera oiek noraño edatzen dira Euskalerrian? Azkuek Gipuzkoa, Lapurdi, ta Erronkari izendatzen ditu; baiña noraiño zabalera duten ez du esaten. Lafittek oraintsu esan du Zuberoan ez dala olako esaerarik oitutzen. Bizkaian ere ez dira ezagutzen.

Zein itzekin erabiltzen dira? Egarri, gose, otz, beldur itzekin bai. *Bero* ta *miñ* itzekin? Batzarrean izan apaiz batek esan zuen berak entzun duela irudi edo irudituak itzerekin: *Irudiak*, edo *irudituak nago*. Lais-ter ikusikodegu *nai*-kin ere erabiltzen dala.

3. Literatura zarrean. Azkuek ematen ditu bere iztegian Mendibu-uren esaera batzuk: Beldurrak negoen (Jesusen Bihotza, 8, 27); *Goseak dabila* (Otoitzgaiak, III, 195, 23). Eta esaera au ematen du Alduden artutakotzat.

Jesusek itzak idazle zaarrenak *egarri naiz* itzultzen dituzte, San Joanen Ebanjelioan. Lengo gizaldian, orain dala ia eun urte, protestan-teak argitaratutako Ebanjelio batean dator: *Egarriak nago*.

Lizarraga Elkanokoak Koplak izeneko bertsozko liburuan olako esaer-ak ditu *naiak* itzarekin. Jesusekin diarduala onela dio bein:

Amorezko sutan - or guzia itxekirik,
ni, naiak barinbanago, - erretzeko bizirik.

Eta Jesusengatik dio: Eman-naiak beti dago-pobreen konbidatzen (225-garren laukoan).

Eman-naiak pobroei Jesus emen...
(326-garren laukoan).

An onaren kontra dire-guziak. nior fabore: ala ere nola ai-di-re-eman-naiak on kolore!
(494-garren laukoan).

Ala ere, Lizarragak Jesusen itzak Gurutzean *egarri dut* itzultzen ditu.

Esan bearrik ez, orainagoko literaturan gipuzkeraz maiz erabiltzen dala esaera au. Ona emen oraintsu argitaratu dan Txirritaren liburuan, *Auspoa* liburu-saillean:

Ardi gaiztoak paotxa jaten (daude),
onak *gosiak* lanian. P. 112).

Nondik nora esaera oiek? Badirudi emen aditzen baten utsunea degula, *constructio praegnans* esaten dioten oietakoren bat. *Goseak il*, *egarriak ito*, *goseak amikatu*, *argillatu* ta olako esaerak zabal dabilta beste euskalerrietan. Goseak jo, goseak jo, otzak artu edo olakoren utsa dagoe-la esan genezake, *loak artu* ta esaten dan bezelaxe.

Esaera jatorrak dira, noski; baiña ez, bearbada, jatorrenak.

"ERION" ADITZAREN ERABIL-ARAUUEZ

J. OREGI

KARDABERAZ idazle-eskolaren batzarrerako egin zuten azkenengo deiean, beste galdera batzuen artean onako au ageri zan:

(aiek, ura) dariela? dariotela?

Nakion, beraz, aditz orren erabil-arauak aztertzeari, nere jarduna norbaiteri argigarri gerta dakiokelakotan.

ERION aditz murriztarikoa dugula jakiña da. URA edo AIEK aditzgaidun flesioak baizik eman ez ditzakenetarikoa ain zuzen.

NORK gabeko aditzetan murriztasuna, geienetan edo beti, ontan dazta: NORI-dun flesioez beste eman eziñean. Onelakoak ditugu, adibidez, EUTSI, EKIN, JARRAI e. a., bere flesioei bagagozkie, egun laguntzallearekin darabilzkigunean NORK-dun biurtu bazaizkigu ere:

ni orri nautso (eusten natzaio) — nik orri eusten dioT

ni orri nakio (ekiten natzaio) — niK orri ekiten dioT

Ni orri narraio (jarraitzen natzaio) — niK orri jarraitzen dioT

NORK gabeko aditz oiei bere murriztasuna nundik datorkien argi dago beraz: Berez NORI-dun izatetik. Bestalde, berezko NORI-tasun ori aditz-izenetan bertan nabari dala dirudi, EUTSI-gan bizkaieraz NORI-duntasunaren ezaugarri dan TS eta EKIN-en gure KI ikusteak ez baitdu bidegabekeria ematen.

NORK-dun aditz murritzei bagagozkie ere,

inoTSi, irauTSi, eRAgon, izeKI

eta onelakoez beste ainbeste pentsa diteke, NORI-tasunaren adierazle diran TS, RA, eta KI bere baitan daramazkitela alegia. Ortik letozke

euriaRI dinoTSO, elurraRI daRAgoiO, egurraRI dizeKA (1) e. a.

(1) Orain NORK-dun bait-litzan (nik dizekat, ik dizekak...) ikusten dugunarren, Leizarragak

berroaRI suz iexeki

dio (eta ez "berroaK"), eta Larramendik eae

zure biotzaRI dizeka;

Schuchardt-ek ere Gipuzkoan EGURRARI DIZEKA erakoak jaso zituala diosku. Azkuek Larramendiri zuzenketa ustel bat egin zion beraz "zure biotzaK dizeka" bear lukela dionean.

Nik neuk, ERION-i ere oietarikoan itxura osoa artzen diot; uste orren indargarri, Leizarragan

(haRI) ur bicizco fluvioac iariaturen ÇAIZCA.

Azkuek ere nai ta nai ez NORI-dun diranekotzat jotzen du,

neRI (odola) dariT
iRI (odola) dariK
aRI (odola) dariO

flesioak dagozkiola; ala ere,

niK (odola) darioT
iK (odola) darioK
arK (odola) dario

erabilli oi dirala dio.

Lardizabalek,

niK darioT
neRI dariT

bietarikoak ematen ditu.

Ithurrik bere kuadroetan "niK darioT" erakoak dakarzki, bañan orrialdepeko oarretan

Pouvreau-n DARIE

Gazteluzarren DARIGU eta DARITE, eta

1654. garreneko DARIZU

ematen dizkigu.

Lafittek "niK darioT" erakoei derizkie egokien; ala ere, egun

ERION-en flesioei NORI-duntasun antza eman eta

gizon horri odala burrustan zarioOla

moduko esakuneak erabilli oi dirala dio.

Bestalde, AIEK aditz-gaidun flesioen itxura ere gure ustearen sendo-garri dugu. Izan ere, ERION aditz soilla balitz, aditz-guna RIO bearko lukela dirudi, eta

gizon ari malkoak dariZkio

bezelako flesioak, dalako RIO ori askargilleak erdibiturik daramatenak alegia, arrigarri lirake (2).

(2) E(D)UKI-rekin ere berdin gertatzen da. Jatorriz E(D)UN-en NORI-dun izaki, (D)UKA aditz-guna bi zatitakoa dugu,

(D)U KA

alegia eta ortik, noski, askargillea bien artean jarri ta

da-(d)uZka

erako flesioak sortzea. EDUKI-ren jatorrizko NORI-duntasunaren lekuko, bizkaierazko "daukOt, daukok..." flesioak, ARI-tasuna ageri-agerian daramatela.

Beraz, asieran ERION NORI-dun izan, eta bere flesioak

neRI (odola) dariT
iRI (odola) dariK
aRI (odola) dariO

ziratekela ematen du. Baiñan "izerdia darion gizona" edo "aurrera odola dariola dago" moduko esakunetan ezin ordea "gizonaRI,aurraRI" edo "gizonaK, aurraK" diran antzik eman; ori dala ta, eta agian aditz onen erderazko itzulpenak daukan NORI-tasunak ere eraginda (ME mana, TE mana...),

aRI (odola) dariO arK (odola) dario

billakatu, eta Dario orren gaiñean eraikiak genituzke

niK darioT, iK darioK...

NORK-dun flesioak (3).

Bi erapide oiek, orain-aldiko ez diranetan ere bi flesio-sail dakarzkite, onela:

neRI (odola) dariT / zeriDan
niK (odola) darioT / Nerion.

Landizabalek, ain zuzen ere, biak ematen ditu.

Bukatzeko, bi flesio-sail oiek osoan eman ditzadan.

neRI (odola) dariT
iRI (odola) dariK -N
aRI (odola) dariO
guRI (odola) dariGU
zuRI (odola) dariZU
zueI (odola) dariZUE
aieI (odola) dariE

nik (odola) darioT
iK (odola) darioK -N
arK (odola) dario
guK (odola) darioGU
zuK (odola) darioZU
zueK (odola) darioZUE
aiek (odola) darioTE

neRI (malkoak) darizkiT
iRI (malkoak) darizkiK -N
aRI (malkoak) darizkiO
guRI (malkoak) darizkiGU
zuRI (malkoak) darizkiZU
zueI (malkoak) darizkiZUE
aieI (malkoak) darizkiE

niK (malkoak) darizkioT
iK (malkoak) darizkioK -N
arK (malkoak) darizkio
guK (malkoak) darizkioGU
zuK (malkoak) darizkioZU
zueK (malkoak) darizkioZUE
aiek (malkoak) darizkioTE

Eta orain-aldiko ez diranetan,

neRI (odola) zeriDan
iRI (odola) zeriKan -Ñ-
aRI (odola) zeriOn
guRI (odola) zeriGUn
zuRI (odola) zeriZUn
zueI (odola) zeriZUEn
aieI (odola) zeriEn

neRI (malkoak) zerizkiDan
iRI (malkoak) zerizkiKan -Ñ-
aRI (malkoak) zerizkiOn
guRI (malkoak) zerizkiGUn
zuRI (malkoak) zerizkiZUn
zueI (malkoak) zerizkiZUEn
aieI (malkoak) zerizkiEn

Asierako galderari erantzunaz "aieK darie" aizu ez dala esan bear beraz, "aieI dariE" bear bai-luke.

niK (odola) Nerion
iK (odola) Herion
arK (odola) zerion
guK (odola) GENerion
zuK (odola) ZENerion
zueK (odola) ZENerioTEn
aieK (odola) zerioTEn

niK (malkoak) Nerizkion
iK (malkoak) Herizkion
arK (malkoak) zerizkion
guK (malkoak) GENerizkion
zuK (malkoak) ZENerizkion
zueK (malkoak) ZENerizkioTEn
aieK (malkoak) zerizkioTEn

JESUS'I JARRAITU ALA JESUS JARRAITU

¿ZEIN DE JATORRENA?

Gaztelaniz SEGUIR a JESUS esaten dute, frantzesez berriz SUIVRE JESUS; euskeraz jatorrena zein ote dan zalantza askotan sortu izan zait. Ori garbitzeko' esaera zaarretara jotzea iduritu zait egokiena. Batetik' esaera zaar sortak bi milla ezaera baiño gutxiago ditudelako, beraz saill osoa lasterr ikertu litekelako; eta gaiñera euskalki batzuetakoa ditugun ezkeror' euskaldunik geienen joera ortik atera ditekkelako. Alegia' idazle baten idazki guztiak irakurtzeak askoz ere denbora luzeagoa bearke lukeala, eta gaiñera idazle bakarr orren joera besterik emango eligukelako. Ona beraz ediren ditudanak:

(RS = Refranes y Sentencias; O = Oihenarte; I = Isasti).

- RS 183 Iñurriari arrayo
RS 440 Beluko ezkontzea deunga, goxetikoa ez oba;
aldia gauzak daude, aroari jarrain gakioza.
O 17 Alaba ezkontu-ondoan' ezkontgeiak darraist ondoan.
O 33 Arraika ahuntzari, agozke kaparrari.
O 136 Emaztea hartzen duenak ezkontsari hutsagati' biharamuna du dolu-eguna, gaitz darraikonagati.
O 303 Loila, ezadila hoila, ondolik darraik Barandaila.
O 520 Goiz jaikitea baliatuko etzaik, zori ona ondoti ezpadarraik.
O 555 Behiari darraikola doha gaizkintzetara xahala.
O 663 Othoitzen eztakiena Jainkoari' berraio itsasoari.
I 24 Darrayonarentzat da izia.

Besterik eztet ediren. Garbi dago danetan JESUS'I JARRAITU araua agertzen zaigula.

BAT, BATA, BAGA; MATEAN, BATETAN; BATEON BAT, BAT-
EDON BAT; ALA, ONELA, ALABEREAN, OLA, ORLA, ORRELA.

ZATARRAIN'DAR A.

Berrondo jannak gai au ill onen amaikagarrenean eman zidan, eta arinki aztertu bearrean gertatu naiz; alegia'astirik aski eztudala edun. Azkue'ren "Morfoloía"n eztut argitasunik ediren, baiña Lafitte'ren

“Grammaire Basque”n bai. Ona beraz liburu ortan ediren ditudanak.

246.—BAT, *un*, se met toujours après le nom qu’il détermine.

Il se *décline* à l’indéfini, au singulier et au pluriel.

Au singulier, BATA signifie *l’un*, par opposition à BERTZEA, *l’autre*.

Ex. : ETXE BAT, une maison; ETXE BATA, l’une des maisons.

Cependant aux cas locatifs les modernes tendent à ne pas employer l’indéfini; ils ne distinguent plus entre: ETXE BATETAN, dans une maison, et ETXE BATEAN, dans l’une des maisons; ETXE BATETARIK, d’une maison, et ETXE BATETIK, de l’une des maisons; ils disent toujours ETXE BATEAN, ETXE BATETIK. C’est dommage.

Au pluriel, BATAK, les uns, s’oppose à BERTZEAK, les autres.

Askotan bezela’ oraintsu sortu diguden auzia liburu zaarretan arkitutako forma aaztuak piztu naia besterik eztugu. Bizi danari bizitzen lagundu bearrean’ illak pizten ari nai. Baiña orain dator politena: ildako forma aiek beziñ onak edo obeak baditugula, eta oiek aintzakotzat eztitudela artu nai eduten. Ona Lafitte’k nola jarraitzen duan :

NOTA.—A lire les vieux textes, on a l’impression que BAT s’est construit jadis avec une sorte de génitif partitif; on disait, comme on le fait encore en Guipuzcoa, ETXEREN BAT, *une de maison*. De cet ancien état de choses, il ne reste que des traces comme HUNENBAT, HORRENBAT, *tant*, où HUNEN et HORREN sont bien des génitifs. (Cf. nos. 176 et 166, HAMARREN et HAMARGARREN, *dirième*, qui semblent bien aussi être un collectif HAMARGA analogue de BIGA).

Beraz’ badiduri Lafitte’k ETXE BATETAN baiño jatorragotzat eta zaarragotzat jotzen duala gure Etxeren batean, eta guretzat askoz ere argiago dugu. Eta ETXEREN BATETIK ere’ ETXE BATETATIK baiño jatorragotzat. Orra beraz gure batasun-zale batzu nola ari zaizkigun: formarik jatorrenak eta argienak bizi ditugularik’ illik dagoden forma kaxkarrago batzu ostera biziratu nairik. Euskera liburu zaarretan bestetan ikasi ez tudenen berezko joera da ori, baiña aurtzaroan euskera bizia ikasi genduanok ezkenuke orrelakoetan amore eman bear.

BATEONBAT eta BATEONBAT ez Azkue’gan eta ez Lafitte’gan ez titut ediren. Baiña emen ere erriak arrazoi ote-duan nago: etxeren bat bezela baten bat ote-dan. Izan ere’ guk orrelaxe esaten dugu: *batenbat*, *batenbatek*, *batenbati*, *batenbaten* eta *abarr*. Noiz-edo-noiz eta orren antzekoen sailleko bat ere izan diteke: bat-edo-bat alegia, edo eta *bat-edoren-bat*, baiña neretzat bestea argiago dago, eta gainera erriak darabillen forma da.

ALA, ONELA, ALABEREAN, OLA, ORLA, ORRELA

Oetarako argirik eztut Lafitte’gan arkitu: Azkue’gan berriz neri okerak iduritzen zaizkidan iritzi batzu. Azkue’k dionez’ jatorriz O eta A besterik ezkenuan. Eztiot itxurik ematen. A jatorrizkoa dala’ argi dago, baiña Azkue’k dion bezala O’tik AU, HAU, GAU eta KAU atera diranik eztut sinisten. Izan ere’beste itzetan ikusten dugu joera alderantziz da: kume, hume, ume; kabia (kafia), habia, abia; kazal (gg. azkazal), azal, eta abar. Kau gau hau au; kori gori hori ori; kura gura hura ura zigurrak, ezagunak eta argiak ditugu. AU O ere txit ezaguna dala. Badakit beraz Azkue’reu eta Altube’reu iritzien kontra ari naizela, baiña iritzi oien aldeko arrazoi onik eztut ikusten, eta MAGISTER DIXIT ezagutzen dugun joeraren kontrako aldakuntza bat besterik gabe sinisteko eztugu aski.

Beste zerbait ere esan genezake: etxeau, etxeoi, etxea itzetan -au, -oi eta -a atzizkiak dira. Izan ere’ etxiau, etxioi, etxia esaten ditugu, baiña ez etxi aundi bat, etxi ori bat, etxi- atzetik; eta *etxe a ikusi dot*, orrela a berezirik idatzita bizkaieraz bakarrik agertzen zaigu. Hau, hori han idazten ditudenoik, eta orain bizkaieraz *ha* idazten asi diranek, ¿zergatik eztitude *etxean*, *etxehoi*, *etxeha*, *mendiha*, *soroha*, *buruha* idazten?

Baiña emen beste zerbait dugu ikusi bearrekoa: ¿Zergatik *onelako*, *orrelako* eta ez *aulako*, *orilako*? Ikusten dudan arrazoi bakarra aipatuko dut: jatorriz *onen erako*, *orren erako* izan zitezkeala. Orrek beste zerbait eskatzen du: alegia -era leenago -ala zanakoa onartzea. Baiña au ezta arenbesteko aldrebeskeria; ezpaitugu *eusker* (a) *dun* esaten, *euskal* (a) *dun* baizik. Letra bakarti-bitarteko *l* euskeraz *r* biurtzea gertaera jakiña da: or ditugu zelv = zeru eta aingeru.

Beste alde batetik ere bada iritzi ori sendotzekorik. ALABEREAN, esan-naiez *eraberean* edo *era berean* bezela da, eta Azkue’k (M. 231a, 4) *atxoala* (BN-s) = *a manera de ancianas* dio, eta gero: En este modismo salacenco habrá influido la locución extraña “a la francesa, a la inglesa?”. Beste bat ere bai: “En Uztarrotz (R) oí *berbereanala* de la mismísima manera”. Nere ustez naiko arrazoi badugu -ala = -era dala sinisteko.

Korapillo ttiki bat bada oraindik: *ala ordez arenla* = *arela* bear lukeala diduri. Baiña “Refranes y Sentencias” liburu zaarrean beti edo geienetan AEN agertzen da, eta ez AREN, beraz AEN ALA AEALA ALA aldakuntza errez onartu genezakeala uste dut.

"KALEAK DAKARRENEZ GIZARTE IDEA-GAIRIK BIZIENAK GAUR"

YON OÑATIBIA

Eginkizun au neregain artu nuen bezin laster, gazteekin elkar-izketan astea izan zan nere lenengo asmoa. Gazte askoekin mintzatu; era guztietako gazteekin: ezikera jator bat jaso ta bide berean irauten dutenekin; ezikera elizkoya izan eta gero bestelako bideetara jo dutenekin; eta baita kristau ezikerarik jaso ez dutenekin ere.

Elkarrizketa oyetarako iru gai dira, nere ustez, garrantzirik aundiena dutenak: Lendabizi, Eliza ta xinixmenari buruzko iritzi ta esanak. Gero, Gizarte Arazoetako gazteen uste ta burrukak. Eta irugarrenez, sexoa dala-ta gazteen artean darabilzten zabalkundeak. Iru gai oyekez aztertuaz, gaurko gazteak zer dioten jasotzia da, beraz, gure eginkizuna.

Alaxe, gazte oyetako batengana urbildu naiz aste ontan, eta berarkin euki ere bai elkarrizketa luze eta jakingarri bat. Gazte au, asieran aipatu ditudan gazte-sail oyetatik, lenengokoa da. Au da, kristautasuneko ezikera izan eta artan jarraitzen duna. Beraz, eztabaida gutxi sortu araziko digun mutilla. Itz batean, gure usterako, mutil zintzo ta zuzen bat.

Gazte ori ikaslea da; ESTE Ikastetxe Nagusian ari dana, eta bere ikasketatan, azken elburua lortzeko bidean, urterik galdu gabe aurretantz zuzen dijoana.

Maitasun gayetan ere zoriontsua da. Bein maite-mindu zan, eta arrezkero, ezere aserrerik gabe, bere andregayarekin pozik dabillena.

Ikusten dugun bezela, gazte orrekin auki bear nuen elkarrizketa oso errez eta eroso zan, bañan orrek ez du esan nai, alegia, elkarrizketa ori ezin zitekeala izan interesez betea. Eta alxe izan zan: guztiz maitasua!

Gaurko egunetan, eta bereziki ikasleen artean zabaltzen diran "slogan" eta esaldirik nagusien zerrenda luze bat eman dit gure lenengo gazte orrek. Ona emen lenengo sail bat:

ELIZA TA XINIXMENA DIRALA-TA ESAN OI DIRANAK

1. "Elizak ezin dio soluziorik eman gaurko gizarte-arazoari".
2. "Relijioa erriaren opioa da; erriari ematen zayon droga bat, gizarte arazoetarako ardura galdu dezan".

3. "Eliza beti burgesiarekin elkartua agiri da".
4. "Gizarte gayetan, Elizak ez du inoiz agertzen benetako kezkarik".
5. Gaurko arazoetaz mintzatzekoan, Elizak ez du konbenzitzen; atzeratua dago.
6. Gaurko bizi-moduan ez dugu eliz-xinixmenaren bearrik".

GIZARTE-SOLUZIO BIDEAK DIRALA-TA

1. "Gizarte arazoa marxismoak bakarrik konpondu dezake".
2. "Burgesia birrintzeko iraultza egin bearra dugu".
3. "Bizikera on batera eltzeko komunismoa (edo sozialimoo) nagusi jarri bearra dago".
4. "Inperialismo danak (eta bereziki Yanki-tarra) xeatu egin bear dira".

SEXOA DALA-TA

1. "Sexoaren berri osoa jakin bearra dugu".
2. "Sexo-gayetaz ez zaizkigu mintzatzeko, ez ezitzalleak (ikastetxeak), ez eta ere gurasoak".
3. "Gai au aitatu ordu, umetzat artzen gaituzte gurasok".
4. "Sexoari buruzko gure galderak erantzunik gabe gelditzen dira iya beti. Eta erantzunen bat ematen digutenean, txepelak izan oi dira; adibidez, sexo gayetan gurasoak duten ezaguera naikoa dala, eurek esperientzia ba-dutelako. Eta orlako erantzunak entzunean, gazteak diotena: "besteen esperientziak ez digu batere laguntzen gai ontan".
5. "Sexoaren askatasuna lortu bear du gizadiak".
6. "Maitasun-askatasuna (amor libre) bear dugu zoriontsuak izateko".

Ainbeste "slogan", ainbeste burruka-itx nasi ta okerkeriz beteak aurrean genitularik, euren aurka ekintza berri ta sendo baten bear gorria ikusi dugu gazte orrek eta biok. Ze bide artu? Ekintza ori nola eraman? Ara bat, asi-asierako, beintzat:

Gazteak iru salletan banatu:

1. 16 urtetik 20 bitarterañoak.
2. 20 urtetik 24 arterañoak. Eta 3'gn. sallean, 24 urtetik gorakoak.

Berealako batean, alik eta gazte geyenengana urbildu ta galdera jakin batzuen bitartez, fitxak egin. Eta fitxa oyetan xeetasun abek bildu:

1. Izen-abizenak (ixillean gorde ditezke, ala nai izan ezker).
2. Gizasemea edo emakumea dan.
3. Ezkondua ala ez.
4. Ze bizibide dun edo ze ikas-malletan dagon.
5. Erriaren izena (lantegi edo nekazari-erria dan bereizteko).
6. Gazte bakoitzaren bizitzako xeetasun batzuek (garaipenak, fakrasoak, ikasgai edo lan-aldatzeak ota abar).
7. Senargai-andregai arteko artu-emanak (noiztik, aldatzeak).
8. Bakoitzak bere sendiko, eta bereziki gurasoekin ditun artu-emanak nolakoak diran.
9. Gizarteko artu-emanak (Gizarte-kezkarik ba-dun ala ez).
10. Bere astia (denbora) zertan erabiltzen dun.
11. Umetandik onera, xinixmen gayetan nola joan dan aldatzen.
12. Zein gai dan geyen erakartzen duna.

(Beste xeetasun batzuek geyago erantsi genitzayoke fitxari).

Fitxa oyen bitartez, gazteen egoera ta kezkaen berri osoa eukiko genduke, eta orduan, gure ekintza gazte sail bakoitzari (adiñari begiratuaz, alegia) nola zuzendu bearko genduken ere bai. Ortarako, nere ustez, gai zeatz bakoitzari eldu bear genioke, liburuxka irakurgarriak idatzi eta itzaldien bitartez zabalkunde bizi bateri asiera emanaz.

Bukatzeko: nerekin mintzatu dan lenengo gazte ori Gizarte-Gayak sakonki ikasteko irrikitzen dago.

6

Euskal-Errietako Berriak

EUSKAL-ERRIETAKO BERRIAK

EUSKERA ARABAN

Arabako lurraldeetan Euskera galtzen asi zala badira gizaldi batzuek. Alan be oiñdiño guztiz ez da galdu. Ainbeste etsaiez inguraturik egon arren bizi da oraindik. Badu euskerak bere-berea duan doaien bat nunbait. Eta arabarrak daukaten zaletasunagaz gaur egun aurreraka doiala esango neuke.

XIIIgizaldian gutxi gora-beera Arabako euskerari neurri eta muga auek ezarri genezazaiozke: Logroño aldetik asi ta Elciego, Haro, Miranda, Sobron ta Bobeda aldeetaraño. Au Baldegobian, Burgosko probintziaren urre-urrean dago.

XVI gizaldiraño, sute batek artuta daraman lur bat bezela, aldenik-alde, euskera erretiran ta atzeruntzka joan zen Kanpetzu aldetik, Trebiño, Zuazo aldetik Berberana inguruetaraño.

XVIII mendean, ia erdiraño, barriro be galduaz eta atzeruntzka doa Salbatierra (Agurain) ondoraño. Gazteiz, Gebara,, Gamarra eta Ozaeta aldeetan, 1850'gn urtean mintzatzen da zerbait oraindik.

XIX mendean barriro be atzeruntzka doagiku Gipuzko ta Bizkai alderuntz. Orregaitik Zigoiti-alde guztietan, Zuia aldeetan, Bizkai aldea dalako, oraindik ondo egiten da XX mendean be, asieran ia erdiraño, gerora galduaz. Neuk be ezagutu nebazan zuiar eta zigoitiar euskaldunak (1936)'ean. Baita eurakaz berba egin be beiñean baño geixagotan. Or be atzeruntzka, Gudaketa eta zalapartak, atzerritar jenteakaz, ez bait dire euskerarentzat lagun onak izaten beiñere. Villarreal edo Lagutianon be egiten zan eta oiñdiño be egiten da; banan, zoritxarrez, ez larregi. Euskeraren barriak onela izanik, gaur egun euskeraz sendo egiten dan ballera osoa Araban Aramaxoko ballera bakarrik dugu. Antxe, mendi bitarteetan gorderik, Anbotoko sorgiñen antzera (lenengo sorgiñak emen agertu zirala diñue gaur jakitun batzuek), irauten du oraindik gure euskera maiteak. Iraungo al du betirako.

EUSKERA GAURKO ARABAN. Aramaxo aldea eta Gazteiz kendu ezker euskera gutxi egiten da gaur Araban. Bañan azkeneko 7 edo 8 urte auetan, gipuzkoar eta bizkaitar sendi edo pamili asko etorridirelako eta, industri barri asko jarri direlako, beste giro bat eta euskenaren egizko piztualdi bat gertatu dala aitortu bearrean gagoz. Gipuzko-Bizkaitik etorrita ia bi milla pamili euskaldun Gazteizen badirala diñoe. Orreik

danak gartsu euskeraz egin ezkeru, euskal giroa benetan sortu bear. Batez be euskal kontzientzia bizirik euki ezkeru, ez legoke dudarik be, Gazteizen euskera txori kantari bat bezela litzakela. Pamili oiek etxean edo kalean edo bardiñ pabriketan euskeraz berba egingo balebe ¿ze indarra sortuko litzaken! Bañan bai erdalduntzeko arrixku galanta. Orregaitik pamili oientzat euskal-etxe aundi bat sortu eta lortzea bearrezkoa litzake gaur. ¿Ez ete litzake lortuko Diputazio eta Aurrezki-kutxak lagunduta?

IKASTETXE ETA KOLEJIOTAN. Ezer gitxi edo ezebez irakasleak erdeldunak dirala ta. Orregaitik bearrezkoa litzakela uste dot euskaldun irakasle asko sortu eta ekartzea, euskera eta euskal-kultura zabalteko ikastetxe eta kolejio guztietan.

IKASTOLAK. Aueri esker 400 edo 500 umetxoak euskera ikasten dabe Gazteizen. Txalogarria benetan. Auek bai benetako laguntza bear lutekela eta gero eta geiago zabaldu Arabako errietan. Diputazioak zer egiten dau? Ezer gitxi. Oraintxe orraitioño Kili-Kili zabaltzeko laguntza emon dau. Zerbait da.

ELEIZ LITURJIA. Seiren bat meza emoten dira Gazteizko elleixetan euskeraz. Batzuek zapatuetan, arratsaldean, eta domeketan besteak. Ori be arnas bide da. Eta Elizak ortan ez dau eragozpenik ipiñiko edo ez leuke beintzat ipiñi bear. Erri bakotxak bere izkuntzan egiteko eskubide badu noski. Bidezko eta naturala da ori.

EUSKAL JAIALDIAK. Tarteka-tarteka euskal jaialdi bikaiñak be-sortzen dira Gazteizen. Badagoz bi abestaldi bikaiñak: Manuel Iradier eta Araba. Aueri esker euskal abestien zaletasuna sortu egin ei da Gazteizen. Pozgarria benetan au be.

KARDABERAZ BAZKUNA. Gipuzko-Bizkai-Naparroan bezela Arabarako ere sortua da. Gabonillaren 17'an edo egin zan Gazteizko Apaizgaitegian (Seminarioan) batzar bat, gure antxiñeko Manuel Lekuona buru zala. Iru probintzitatik ogeikon bat batu giñan eta Arabarako lendakari, Azkoaga'ko (Aramaxo) abade dan Tolosa'tar Pilipe aukeratua izan zen. Jaio berri da bañan politto-politto ekingo dio gogor euskeraren alde.

ITXAROPENA. Itxaropena da asmo askoren berogarri eta badugu, bai, itxaropen. Arabar eta gazteiztar askok gaur gogoz entzuten dabe euskera. Bai badakite eurren izkuntza izan zala leen eta gaur be euren bear leukela izan. Ezagutu neban nik gazteiztar bat euskera entzutean, barreka eta pozaren-pozez egoten zana. Beste batzueri be orrelan entzun izan deutset. Ikastola, giro on, jakintza-bazkun eta abar ez ete dogu euskera leengo eta lenengo mallara jasoko? Nik bai uste. Eta baikortasun onegaz lantxo au bukatzera noa. Urrengora arte beraz.

Txindoki. Aramaxotik.

BIZKAIA'N 1972

Bizkaia'n, Kardaberaz-Bazkunari indarra emoteko gogo bizia ba daukagu. Egia esan, ba ditugu geure eragozpenak be, baiña aurrera joteko gogo bizi da.

Il onetan bazkide barriak billatzeko zabalkundea egin dogu. Abadeekandik asi-gara, baiña urrengo oinkadea abade ez dirakana izango da.

Eun eta ogei bat eskutitz bialdu dautseguz eleiz-barrutiko abade euskaldun eta euskal-zaleai, eta oraintxe asi gara erantzunak artzen. Erantzunik bialtzen ez dauskuenai ikustaldi bat egingo dautsegu, onelan zalalkundeak indar geiago izan dagian.

Artzeko diran erantzunak artzen ditugunean, batzar orokor bat egingo dogu eta an artuko dira aurrera joteko bear diran erabagiak.

* * *

Lendik bazkide garanok, lanean diardugu.

Astean bein batzen gara Gernika'ko Gizarte-etxean.

Gure batzarretako egiteak oneixek izaten dira :

Geure arteko goraberak aztertu : zabalkundea, ordaintzea, diru-emote txikiak...

Guztiok eta bakotxak ekarten dogun idazlanetatik bat aztertu. Iñoz aurkitu gara idazlanik бага eta orduan Aldizkari batetik arturikoen bat aztertzen dogu. Idazle-ikastola au garrantzi aundiko lana dalakoan gagoz eta geroago ta obeto antolatu gura geunke.

* * *

Zer esango dogu geure bazkun oneri buruz? Ondo diardula? Makaladala?

Nire ustez oindiño askeran gagoz, bizitasun geiegirik ez daukagu, batzarretara etortzen diranak be ez dira asko. Baiña egin dogun zabalkunde oneri ondo erantzuten ba'dautsoe, bizkortasun berezi bat artuko dau bazkunak eta Gipuzkoarren maillara eldu al izango dogu. Areik bai bizi ta gogotsu diarduela!

Talde edo bazkun onek, bear dan lez asi ta berotzen ba'da, zalantzarik бага, Euskalerrria'ri on aundia egingo deutso : liburuak argitaratzen, erri-miña sortzean, aldizkariak indartzen, ikastolai laguntzen, jakintzea goraltzen...

GAMIZ

IBINAGABEITIA-REN SARIKETA

Abenduaren 8 an Caracas'en 1972 garren urtea.

Jundan urtetan beselaxen
aurte ere, ementxe gera batu,
Ibinagabeitiarren sari ederraz,
liburu onenak, ditzagun saritu.
Liburuak bear ditugu, anitz,
liburutegi, ta ikastoletan zabaldu,
ta'gure eusko idazle jatorrai,
aal-degun geienen lagundu.
Ibinagabeitia, aundia bizi izan bazan,
ta ikusi, Euzkera Lagun Elkartea'aren lana,
txalotu, ta, esango zuan arro!!
Alperrik ez da izan, egin nuen dana!
Ondo dakigu zer egin zuan
Ibinagabeitiak, Aberri, eta atserrian
gu, izan gaitezen orain, bere ondorengo
jarrai zagun gogoz, lanean.
Gauz asko egin genezakegu
Euzkera Lagun Elkartea babesean,
gure eusko idazleai lagundu
jarririk berakin, artu emanean.
Nere aberritik, etorri berri naiz,
ta nai dizuet gaur, emen azaldu,
eusko idazle, zar ta gazteak
E L E ko zeraten guziori, nerekin
esker'ona dizuela bialdu.
Jundan urtean Aita Egiaren
neuriztia, zenduten saritu,
esan zidan, E L E ri ezkerak
bere liburua dala argitaratu.
Ekarri det ikusi dezazuten
ara... oraindik, ez dute amaitu,
ikusi E L E ren lan ederra
onek, guziok pozten gaitu.
Garrantzi aundiko lan asko daude
an; atera ezinda ixilean urtetan
oietako bat, "Esaera Zarrak"
Mokoroa'ren lan ederra benetan.

Lan au, aurrera ateratzeko aiek,
guzion laguntza ezkatzen dute,
euskaldunak, aal dezuten eran,
guziok, erantzun bear dezute.
Eusko Etxeko Lendakari
euskatzale jatorrak,
artu du gai au, bere eskuetan,
gure aldetik eman deiogun,
bear dun laguntza benetan,
Esango dezute, ez dala au gaia
gau ontan emen azaltzeko,
bai da. Euzkera Lagun Elkartea
Eusko-Etxearen eskuetan
jartzea nai izan dualako.
Gaur da bai, gau ederren
zerbait esan nai badegu azaltzeko,
ireki-ba guziok biotzak Ez gorde ezer!
Izkutz-anaiak danok geralako!
I'anai arteko iritxiak, bear ditugulako.
Urrutietan degu Kirru lagun ona!
Euzkera Lagun Elkartea'gatik
ainbeste lan egin zenduana!
Kirru! Gaur ementxe
gure artean zaude
ez gera zurekin artu,
ta ezaitugu ere aztuko,
zuk, Euzkera Lagun Elkartean
egin zenduan lana
gogoan beti degu eukiko.

Balendiñe Albisu

7

Kardaberaztarren Lanak

KARDABERAZTARREN LANAK

I

AITA OLABIDE ETA BERE ITZULPENA

S. ONAINDIA

Gizaseme langille batzuei buruz, nekez itz egingo dugu geiegi. Aita Olabide dugu oietako bat. Lan izugarria egin zuen, Idazteuna (Biblia osoa) itzultzerakoan; eta, tentelkeri askotxo esan diran arren aren lanaren inguruan, auzi ortan zerbait dakianak ez digu funtsik gabe itz egingo.

Izatez gara arrosko ta lurrin-zale, ta, jakiña, geure burua erakutsi naiez, aundiak egin eta esan oi ditugu; baita suster aundi barik ere. Iñoren lan bat aztertu ta iritzia ematean, askotan bekaitzez edo, iñoren lan ori beztu, muzin egin eta erdeiñatzen ibilli oi gara; baita, ez gutxitan, iñork esan ez ditunak esanik, geure burua ospe pixkat ekarri nairik ere. Gure literaturan sarri egin da olan; adibidez, L. Mitxelena'k A. Olabide'ren itzulpenari buruz, I. Sarasola'k bere Euskal Literatura'ren edestian klerikalismuaz itz egitean eta Txillardegik oraintsu "Zeruko Argia"-n Orixe'ren inguruan mintzatzean. Idatzia idatzita gelditzen da, eta obe griñarik gabe jokatzea.

Ez noa orain lan sakonik osotzen; ez dut astirik, ezta premiarik ere. A. Olabide'ren itzulpena, ala ere, ederra dala aitortu bearrean gagoz. Neronek ere, gaztetan, 1931'ko itzulpena sarri irakurria izanagatik, ez nuen uste ain bikaiña zanik. Baiña aurtan, Erregen ostean jantokian euskerazko zerbait irakurri bear genduala-ta, Olabide'ren Idazteuna aukeratu gendun. Ba-dakizute guk prailleok jan artean zerbait irakurten duguna. Irakurteko Isaias'ena artu gendun, eta au mamiz danak dakigu nolakoa dan, ederra oso; eta azalez, Olabide'k egiñiko itzulia? Lendik ere ona iruditzen zitzaidan, baiña orain iñork irakurrita, askoz ederragoa derizkiot; entzuten eta irakurten zerbait oitu ezker, beste edozein irakurgai bezain erreza ta joria.

Irakurten? Bai, irakurteak ba-ditu bere koskak; edonork ez daki irakurten, ez erderaz ez euskeraz; ondo irakurtea gauza dotorea duzu, ta ikasi egin bear, agirian irakurri bear danerako batez ere. Gure irakurleak —ixilleko aiterra da— aisa irakurten dute, aurretik ondo gertatuta, itzak nun ebaki ta nun batu dakitela. Ta olan bai dala atsegiña Olabide'ren itzulpena! Ba-ditu itz arunt-ezak, baiña zenbat?, askorik ez; berrogei bat guttiz ere, ta beti darabilzki itz berdin samarrak gauza zen-

tzun berbera emanik, eta oiekin jabetu ezker, oso erreza duzu irakurgaia. Ba-ditu aditz sintetikuak, baiña auk ere zerbait dakianak laster ulertzen ditu, euskal senez eratuak dira-ta. Joskera ona du. 1931'ko *Itun Berria*-k zitun akatsak A. F. Etxeberria'k zuzenduak ditu azkenengo argitalpenean. Gaur, dana, garaituak dira Olabide'ri ezartzen zitzaizkion akats eta oker guztiak.

Beioa emen Orixe zanak 1931'ko itzuliari buruz esan zuena. "Naiz —dio— eleizan bertan, naiz etxeko sukala-baztarrean irakurtzeko liburu oberik ezin asma, Jainkoak berak idatzia da-ta. Zerutik jausten dan intzaren antzera jotzen du Jainkoak Berak bere Itza. Lurra garastatzen du, ta berriro ez da gora itzultzen. Alaxe Jainkoaren Itza ere, Berak dionez. Zabaldu ditzagun bada, gure gogoko lur onen arrakak eta irrikituak; iretsi dezagun itz eder ori, ta gure gogoa zabaldu bedi, garasta bedi, uanditu bedi, ase bedi, guziz jainkotu gaitezen arte..."

Euskerara bikain itzulia dago. Orain arte egin ziran itzulpenen aldean lana ta nekea ugari du. Besteen lana urruñatu gabe, ta beti begien aurrean idukita beren joera eman dio Aita Olabidek. Onetaz aurrekoak, oztoporen bat billatzen zutenean, itzulinguru egiten zuten geienez, al zuten bezala, beti argalkiro, Jainkoaren itza adieraziz; onek ordea, oztopoari bekoz beko begiratzen dio, ez dio egika edo aldear egiten, eta bidea zuzen urratzen du oztopoari bizkor alderagiñez.

Lau Ebangelioak dira errezenak, eta ala bear ere, mundu guztiak ulertu ditzan. Itz bat edo beste ba dira erri txekak bakarka ulertuko ez ditunak; baiña oriek ez dute ainbesteko oztoporik, batez ere eleizan Jainkoaren itza entzunten oiturik daudenentzat. Inguruko itzak argirik aski ematen die agiz, eta neketan geldituko da iñor euskera ori ulertzeke".

Ni, Orixe'k esanakin gelditzen naiz. Eta, iñori onurik emateko lain baldin ba naiz, baita auxe esan ere egingo dut: beti ere, iritzia emakeran bereziki, kirioai neurria jartzen jakin bear dugula; askotan idazle ona izan arren, lelokeriak ere esan oi dirala; zenbat aldiz liburu bat azal xamarretik irakurriaz bakarrik, Jupiter laino-arteko jar-aulkitik bezela, ostoska asten garala; etsai iritzia balio gutxi duela; peillokeriak irakurriaz, irri-par ergela laister ezpafiñeratzten zaigula...

II

ZINEA TA EUSKALDUNAK

LUIS LARRANAGA

I.—IRUDI KULTURA

Gure egunetan gauza azko lortu ditu gizonak, eta baita bizitzarako ondasun asko iritxi ere. Gauz oien artean ba dira garrantzi audikoak ere, baiña berezienetako bat, bear ba da, gure kulturaren aldaketa. Aldaketa au bi mallatan izan degu. Batetik, betiko kulturaren ondasunak geitu ta aberastu bait-dirala. Bestetik berriz, ondasun oiek norberegianatu ta zabaltzeko bide berriak sortu dira. Eta bide berri oien aldetik esan leike gaur sortu zaigula kultura berri bat: orain arte idazlanez eraturako kulturaren bizi izan gera; orain ordea, poliki-poliki, irudien kulturara etorri gera.

Bizits adierazialak: a) Gure adimenean ez da gauz aundirik urte batzuetan bizi arte; here aberastasuna zentzunen bitartez iritxi bear bait-du. Eta zentzun guzietan argiena ta garrantzitsuena ikusmena degu. Entzun ta usaindako gauzak gero ta gero ere gogoan ditugu: baiña oien oñarri beti degu irudiren bat gure irudimenean. Ezagunak dira gai onetan MARCEL PROUST'ek idatzitako orri ikusgarriak bere A LA RECHERCHE DU TEMPS PERDU liburuan. Garbikiro agertzen du bertan gure barruan beti bizirik dirala, gure nortasuna erabakitzena, ainbat eta ainbat irudi. Eta irudi oien lagun eta osagarri beste zentzunak diotena. Ona emen azalduta garbikiro gizonaren izaera: kulturaren aberastasunak here barrura sartzeko ez du gizonak irudien bizitasuna lakorik noski.

b) Orrez gañera, gu bizi geran ludi au dana irudiz betea daukagu. Gure bizitzan argirik ez ba'gendu, edo begi gabe ba'giña —itxuen antzera— gure bizia ta izaera guzia osorik aldatuko litzake. Ez genduke orduan ezagutuko ez goiz argiaren eta ez illun-abarraren edertasunik; ez genduke nabaituko zeruaren edo itxasoaren urdintasunik; ez genduke geureganatuko lurbiraren zabaltasunik ez genduke iritxiko margoen bizitasunik eta aberastasunik; ez genduko irakurriko gizonen begietan agertzen dan maitasunik edo gorrotorik...

c) Gaurko egunean berriz, gure begieri itzegiteko zorian diran gauza asko eratu ditu gizonak. Etxe barruetaraño datoz urrutikuskiñaren irudiak. Zinea, lurbira osoa garaitu ondoren, sartu zaigu gure ikaste-txeetaraño. Liburuak berak ere beren orriak gero eta geiago irudi biziz apaintzen ari dira. Alderdi guzietan publizitateko teknikoak gure begientzat gertatu dituzte beren "spot" eta adierazpen guztiak, beren indarrik aundiena irudi ta margoen bizitasunean dijoa-ta.

Irudiak kultura zabaltzen: a) Era ontan jokatzen asi da gizona irudien indarra —gizonaren adimenera eltzeko— ikusi duanean. Irudiak gure bizitza osoa erabakitzen dute geienean. Sikologoak aspaldi erabaki zuten margoen gora-bera gure barruko egoeran bertan. Zertarako ez, orduan, gizonari eman, bezte gai danetarako bear dituan irudiak, kultura bereganatzeko ere?

Orduan, gizonak beste gai danetarako bear dituan irudiak, ez al ditu kultura bereganatzeko ere erabilli bear?...

b) Asmo auekin, gaurko irakaspen guztietan sarturik dago —edo sartzan ari da— irudien izkera. Liburuen lagun ibiltzen dira dibujoak, argazkiak zinea, TV t. a. Ba-dira, ordea, esango dutenak gauza auetatik asko aspalditik ibilli izan dirala ikastetxetan. Ala da noski, baña, bate-tik len ez genituan bide asko zabaldu zaizkigu, ta bestetik —eta au da alderdirik berezi— len idatzitakoa zan kultura gaur irudietara biur-tzen asita degula, ta irudiak, idatzien laguntza izateari utzita, beren na-gusitasuna artzen dijoazela kultura bidea idazkietatik irudietara osorik aldatuaz. Orregatik egitan esan dezalegu kultura berri batean sartuak gerala: irudien kulturana.

II.—IRUDIA GIZONEN ARTU EMANETARAKO BIDEA

Marcel Proust'ek zionez —eta gero zineak erakutzi digunez (gogoan izan ALAIN RESNAIS'en eta bere lanak jarraitu dituzten pelikula)—gure barruan —erne gauden bitartean— beti degu irudiren bat. Irudi auek pelikula bat bezela dijoaz gure irudimenean bata bestearen ondo-ren, eten gabe, berai derizkien eran, gure gogapen eta gure egintzak erabakiaz edo gure izaera bereziak berak erabakita, lengoak, oraingoak eta baita gerokoak ere alkarrekin naastuaz, eta geienean bizitzak berak duan bizitasuna irudi aueri ezarriaz.

Bakarrik gaudenean irudi oiek gure barruan gurekin erabiltza nai-koa zaigu. Baña beste iñorkin gaudenean, gure irudi oiek besteeri adiera-zi bearrean arkitzen gera, ta besteak ere beren barru-irudiak eman-naiean dira. Gure gauzak besteei adierazi ta besteena geureganatu, orra or zer dan izkuntza. Izkuntza, ordea, era askotakoa izan leike, gu besteengana ta besteak gurerana eltzeko bide asko dira-ta. Ortarako gure barruko ger-taeraren ikurren bat arkitzea degu naikoa. Ta ikur oiek era askotakoak noski! Aotik datozen ots edo itzak, idatzitako lerro edo idazkiak, soi-ñuak, aukeratutako ikurriñak, ezkuak ibiltzeko era bereziak, t. a.

Ikur oien danen artean egokienetakoa, ordea, irudia izango da. Batetik, gure barruan ere irudiak izanik, ez da errez irudiak beste iru-di batzuekin baño obeto agertzea. Baña, orrez gañera, irudiak ba-du bes-te aberastasun berezi bat. Beste izkuntzetako ikurrak gizonak berak as-matuak dira, ta itzak ez du geienean adierazi nai duan gauzaren antzik

ere. Gañera, gauza berarentzako ez du ikur berdiña izkuntza bakoitzak. Irudien izkeran ordea ikurra eta adierazia berdiñak dira ta lurralde osoan ezin du euki ikur bat —danean berdiña— besterik. Adi bidez, gi-zona bizi oi dan lekuari euskaldunak “ETXEA diogu; HOUSE berriz inglesak; MAISON prantzitarak; CASA españiarrak; DOMUS erromatarrak; OIKIA grezitarrak; t. a. Bakoitzak ikur berezia, beiñere ez ber-diña, gauza berarentzat. Ikur ori ezagutzen ez duanarentzat ulertu ezi-ñak guziak. Etxearen irudia, berriz, lurbira osoan bat besterik ez da —naiz ta era askotan azaldu— eta ezer ikasi ez duanari ere garbikiro adierazten dio —ikusmena duan bitartean— ikur orren barrua ta indarra. Ortarako ez dago ezer ikasi bearrik idatzitako izkuntzetan bezela, ta ez —aietako eran— itzan adierazia arkitzeko lanik artu bearrik ere. Iru-diak, ikusi ta beste gabe, zabaltzen dute euren argi osoa danentzat.

III.—ZINEA ZER ETA ZERTARAKO

Irudi-izkera era askotara ibilli oi da gure artean. Gure etxetan eta kanpoan ditugu naikoa POSTER, AFFICHE t. a. izkuntza ixil bat gi-zonen artean zabaltzen. Sal-eroketarako publizitateak ere sortu du bes-te izkera bizi bat. Eta ludiko gertaera guziak une bertan zabaltzen or degu urrutikuskin edo TV ere. Baña oien danen artean ederrena, besteen oñarria ta beste danak baño apaiñagoa degu Zinea.

a) Zinea zer dan era askotara erakutsi izan digute. Azieran Pisika-ko experimento bat besterik zanik etzuan iñork uste. Gero, ez jakin bat-zuen jolas bat baiño etzala esan zuten jakitsuak. Askok ez dute, gerotik, ikusten zinean gizonaren igespide bat besterik. Baña oien danen ga-ñetik zinea izkera bat baiño ez da, ta bizia, polita eta altsua ganera! Dabiltzan irudien izkera.

Zinearen irudiak ezbakarrik datoz bata besten ondoren, baizik iru-di bakoitza aurrekoagandik erabakia dator eta ondorengo erabakitzen ari da. Ta era ortan, gizonen gertaeraren bat agertzen digu. Gertaera one-tan gizonaren barrua azaltzean, leku berezi bat sortzen du gañera, ger-taerari ta lekuari iraupen bat emanaz. Zineak ez du ez soiñurik eta ez beste laguntzarik bear gauzak adierazteko, baña ez ditu ala ere baster batera uzten. Zinean orrela irudiak dira beti nagusi beste gañerako mo-roi danen artean.

Irudia ta bere adierazia berdiñak diranez ezin arkitu orrelako iku-rrik izkera baterako. Eta, gañera, irudia bertatik edo urrutitik artuaz, goraka edo beraka begiratuaz, gauzak irudiaren alde batean edo bestean jarriaz, gure burutasunak besteei adierazteko indar berri bat degu gure eskuan.

Irudi utsen almen oietzaz gañera, bata besteekin alkartzean, berez-ko adieraziaz gañera alkartasun ortatik beste adierazpen berezi berri

bat ere sortu leike. Ori da MONTAJE-aren lana ta aberastasuna. Ortik, berriz, sortu oi da RITMO edo neurkera zati bakoitzari bere puntua emanaz eta pelikula osoari ere bere tankera ezarriaz.

Era orretan irudiak izkera bat sortzeaz gañera ontasun eta edertasun aundi bateraño eldu litezke, erti berezi bat lortzeraño: zazpigarren ertia.

b) Zineak, ordea, ba-ditu bere zailtasun bereziak gure gogalmenak azaltzeko. Gure gogamenak abstraktoak dira, irudiak berriz konkretoak, Ez da errez irudi konkretoen bidez abstrazioa agertzea. Baña ortarako zinearen gogamenak gizon edo emakum biurtzen dira eta beren bizi, egintza ta esanen bidez dio zineak bere irudietan berez egon ezin leikean dana. Orregatik bildur gabe esan leike ez dagola gaur gizonen artean zineak azaldu ezin lezakean gauzarik. Gizonaren jakintza osoa, bere gogoaren ezkutuki ta arrigarri guziak, baita bere konplejo ta gaitz guztiak ere, parreak eta negarrak, kondaira, soziologia, ta kultura guziaz zineak bere ezkuian du. Ez da arritzekoa, orduan, beragatik esan dutena: etorkizunaren Unibersidadea dala, egitan.

Era onetan sartzen asia da zinea gizonaren kultura lan guzietan. Noiz ezagutu izan da gizona orain bezela? Noiz ikusi ditugu lurraldeak, etxeak, jazkerak ta biziera osoa, bere margo, giro eta egitan? Gu ibilli gabe zinea dator gugana nai ditugun gauza guztiakin. Batzuetan parre eragiñaz, negar ere bai iñoiz; goratuaz aldiz, aldiz ordea kritikatuaz, baña beti gizona, bere izaera ta lanetan agerturik, gurenatuaz.

c) Beste oztopo batzuek ere ba-ditu zineak. Beste izkera askotan gizon bat naikoa da itzegiteko. Zinean berriz, pelikula bat egiteko gizon askoren lana bear da. Gañera, ez itzegiteko ta ez idazteko ez da diru askorik bear. Pelikulak egitea, ordea, oso garezta da berez. Liburuak argitaratzea oso merkea ez ba'da ere, pelikulak argitaratu ta zabaltzea industri aundi baten barruan bakarrik egin leike.

Ori dana gutxi balitz, oso errez egin ez dan zine ori guregana eltzeke beste antolapen zail baten bearren da. Pelikulak ludi osoan zabaldu bear lenbizi eta leku bakoitzean —errietan eta erririk txikienetan ere bai askotan-etxe berezi batzuek eratu.

IV.—EUSKALDUNAK ZINEA EGITEN

Zineak esan degun indarra ba-du, gizadiaren kultura zabaldu ta aberasteko, euskaldunak ba-degu —nik ala uste beintzat— zinearen bearra ainbat ta ainbat gauzetarako. Gure izkuntza ta egizko Folklorea, gure erriaren izaera ta etorkizuna, euskaldunen problemak eta egoera osoa, gure nortasuna ta ezkubideak, eta, orrela, gauza asko ta asko ludiari erakutsi bearrean gaude. Orrez gañera, gure izkuntzari buruz, badegu lan berezi bat zinean. Ez da gure artean zinerik erderaz baño. Ez al da au

gure euskeraren arerio aundi bat... aundienetako bat, bear ba da, urrutikusiñarekin? Gure gauzak zapaltzeko bide asko dituzte gure etsaiak baña gutxi zineak eta TV duten indarrekoak.

Bi gai auetan, egin al degu ezer euskaldunak? Batez ere, bai al da zinerik euskaldunen gauzak kanpokoei adierazten dunik? Bai al degu zinerik euskeraz? Garrantzi aundiko gauzak dira auek, noski, ta astiro ikusi bear gure lanak zer bidetatik joan diran orain artean.

a) Zine-ola edo produktorak ez dira egitan ugariak Euskalerrian. Ego-aldeko euskaldunak Madriden eta Barzelonan dituzte geienak. Ipar aldekoak, berriz, Parisen. Banaka batzuek ba-ditugu bertan ere. Egin izan dira pelikulak Bilbon, Donostin, Iruñen t. a. Baña, egia esan bear ba'degu, euskaldun arazoeri laguntza aundirik ez datorkie oietatik.

Danen artean pozgarriena irundar "Frontera Films" en lana deritizat. Berak argitaratu bait-digu euskaldunak orain arte egin duten pelikularik onena. AMA LUR-etaz ari naiz. Baña geroztik, ez degu aspaldian bere berririk.

b) Zinea egin dutenen artean lenengoak zuzendari, egille edo direktoreak dira. Aspalditik dira zinegille euskaldunak. Donostiarra zan Nemesio M. Sobrevilla, 1926'an EL SEXTO SENTIDO egin zuana. Ondorean ere izan dira beste asko. In ziranen artean gogora dezagun bayonar Henri Roussel ere. 1910 an asi zan zine lanetan eta bere eskuetan erabilli zituan Harriy Baur, Rakel Meller, Maxudian, Pierre Blanchard, Marie Bell, Suzy Vernon, Henri Garat eta aldi aietain Prantzian ziran artistarik onenak.

Baña, joandakoaz geiago oroitu gabe oraingoetzaz itzegiten asiko naiz. Itxaropen aundiak ginduan beste donostiar batekin. Bere lenengo pelikula luzea ESPAÑA INSOLITA izan zan ta uste genduan bai zinean ta bai euskalzaletasunean gizon aundi bat izango zala bere egille Javier Aguirre. Asieran, Alain Resnais eri jarraituaz, pelikula motz asko egin bait-zituan euskal-erriko alderdi ta gizonekin. TIEMPO DOS, PASAJES TRES ta PLATA INSOLITA dira ezagunenak. Geroko bere lanak Madriden egin ditu, euskal usai aundirik gabe ta gauza on aundirik gabe gañera. Gogoan izan LOS CHICOS CON LAS CHICAS etik asi ta PIERNA CRECIENTE, FALDA MENGUANTE'raño eldu arte. Beste izenak goratzerik ere ez du merezi.

Donostiarren artean Anton Ezeiza ere zerbait izango zala uste nuan. Elias Kerexeta lagun zuala egin zituan lan eder batzuk. Onena ordea A TRAVES DE SAN SEBASTIAN; PESCADORES DE GUETARIA etzan ain sakona. Geroztik ordea, Ezeiza gure gauzakin aztu dala dirudi. Kerexeta berriz, ludi guziak ezagutu du. Venezian sari aundi bat ere lortu zuan. Berak ordaintzen duan zinea ordea ez da gurea. Españiako zinegille on asko bere diruakin ari da lanean —Saura, Jorge Grau, Regueiro, Ezeiza t. a.— baña ez dute gure gauzak aren pelikuletan lekurik.

Gipuzkoan ba-ditugu beste zinegille batzuek ere: Antonio Merzero

lasartearra, Juan Ignacio de Blan ta Jose Luis Egea donostiarrak, Jose Maria Zabalza irundarra, t. a. Baña danen artean gure omenik aundiena Nestor Basterretxea ta Fernando Larrukert'entzat bear du. Biak dira Ana Lur 'en egilleak ta baita Alkezar ta Pelotari'renak ere. Auek bakarrrik jarri dute bere jakintza osoa ta beren zine lan guziak Euskal Erriaren alde. Besteak, zinea ondo ezagutu eta bere izkera ondo erabilli arren, ez dute —ala dirudi beintzat— euskaldun bezela zer esan aundirik.

Euskaldunak ez diranak ere agertu nai izan dituzte iñoiz gure gauzak. Ala egin zuan —beste batzuen artean— Ramon Torrado'k 1949 an. EL EMIGRADO zan pelikularen izena. Guridi'k jarri zion soiñua. Donostiar Beorlegi ta Raul Cancio agertzen ziran bere irudietan eta auekin baita Txoriburu laukotea ere, Gaztelumendi soñujolearekin eta beste euskaldun askorekin. Geroxeago, 1955 urtean Aselo Plaza eta Alfredo Hurtadok CANCHA VASCA eman ziguten. Orduan ere ba-zan euskalduna naikoa irudietan. An ziran bizkaiko puntista ospetsuak Onandia, Mendizabal ta Ibaibarriaga pelotariak; Elantxobeko abesbatza; CORO MAITEA; Bilboko zortzikotea; Gernikako dantzariak; txistulari ospetsuak t. a. Era onetan, asko ez izan da ere, beste pelikula batzuk ere egin dira motxak edo luzeak.

Lan aueri buruz, ordea, ezin esan gauza on askorik. Ez da ori gure erriaren egizko arpegia. Euskaldunen azal-utsa agertzen zuten euskeltasunik ezer izatekotan. Ta zine izkera aldetik ere etziran oso bikañak. Baña arloteagoak oraindik gure gauzeri buruz.

Beste alderdietan ere agertu izan dira iñoiz euskaldunak zinean. Adi bidez, iparraldeko Amerikan egindako bi zinta dakarzkiz. Henry King'ek 1955 an Untamed egin zuan. (Españieraz CARAVANA HACIA EL SUR deitua). Iparraldeko euskaldun batzuen egoera agertzen zan sartaldeko lurralde zabal aietan. Euskal Erritik joanak izatea besterik etzuten euskaldun aiek. Beste era batera berriz THE FIREFLY'n ROBERT Z. LEONARD'ek —españieraz LA ESPIA DE CASTILLA— Euskal Erriaren zati bat agertzen zuan: Gazteizko uria 1808 ko gudalostean. Hollywooden egindako Gazteiz baño etzan ura, egizkoaren antzik gabekoa noski. Ori izan da, geienean, euskaldunen agerkeria zinean.

Iñoiz baita euskaldun ospetsu batzuen omenean ere egin izan dira pelikula batzuk. Adi bidez Jose Diaz Morales en EL CAPITAN DE LUYOLA izendatuko det. Eliz aldetik aita José Maria Maiz S. J. izan zuan lagun. Ala ere etzan an euskal alderdirik ta ez beste euskal kutsurik ere.

c) Zineak askotan idazle ezagunen lanak eman izan ditu bere irudietara. Euskaldunak ere ?bai euzkeraz eta bai erderaz— ba-ditugu idazle bikañak. Asko ez ezin arren gañera, egin izan dituzte garrantzi audiko lanak. Oeitatik eldu ote da ezer zinera?

Ba-dira, euskaldunak ez izan arren, euskaldunen gauzetzat idatzi dutenak ere. Agertu ote dira oietakoren batzuk, bederen zinean?

Euskaldunetarik lekurik aundienetako bat Pio Baroja-ri gorde izan dio zineak. 1966'go LA BUSCA'k ez du gurekin zer ikusirik. Bi aldiz iruditu dute ordea ZALACAIN EL AVENTURERO. Bata 1928'an Francisco Camacho'ren eskutik. Bestea 1954'an JUAN DE ORDUÑA zuzendari zala. Bien bitartean —1946'an— Arturo Ruiz Castillo'k LAS INQUIETUDES DE SHANTI ANDIA egin zuan. Irurak ere badituzte gorago esandako gaitzak. Idazlea il zanean —1957'an— Barden'ek zinta motz bat egin zuan bere omenez, LA MUERTE DE PIO BAROJA izenarekin. Carlos Saura izan zuan bere argazkiñ-lan orretan.

Unomuno, beste euskaldun idazle ezaguna, zineak aldiz erabilli du. Baña, bere idatzietan euskalduntasun aundirik ikusi ezin ba'degu, ezin arritu zineak ere —bere lanetan— ez izaterik. Ez Abel Sanchez'ek eta ez LA TIA TULA'k ez dute ezer gurerik. Zineak, ordea, omen eder bat izan du bilbotar idazle onentzat Frederic Rosif'ek egindako MOURIR A MADRID pelikulan. Bertan, orrez gañera, agertzen zan, eta gaurdaiño egin dan ondoen, Euskal Erriaren problema osoa.

Pierre Lotti'ren Ramuntxo ere iru aldiz zineak erabillia da. Jacques de Barocelli'k lenengo 1919'an; Rene Barberis'ek berriz 1938'an ta azkenik Pierre Schoendorff'ek 1958'an.

Geiegi luzatu gabe, ordea, gogoan izan ditzagun —beste askoren artean— Pierre Benoit'en POUR DON CARLOS, Musidora ta Jaime de Lasuen'ek egiña. Aita Luis Coloma S. J.'ren PEQUEÑECES, Juan de Orduña'k egiña, ta BOY bi aldiz ere zineratua. Pierre Lhande'ren Les Mains Lies, Navarra Villoslada'ren AMAYA t. a.

Idazle auek ez zuten berak zinerako idatzi, noski. Ba dira, ordea, euskaldunen artean zinerako idatzi ta idazten dutenak. Ildakoen artean Ignacio Aldekoa'tzaz oroitu naiz. Ba-dira geiago ere, baña euskaldunen zineko lanak ezagutzeko orrekin naikoa degu oraingoz. Young Sanchez'erako idatzi zuan lenengo eta bere liburutik atera zan CON EL VIENTO SOLANO, biak Mario Camus'ek egiñak. Bizien artean berriz, Gazteizko Aldekoa'ren ondoan donostiar bat jartzera noa: Jesus Maria de Arozamena. Bai euskeraz eta bai erderaz errez idazten daki. Ala ere, bere zinelanak ez dute, orain arte, auskal usai aundirik euki. Idatzi du Luis Mariano, Sara Montiel, Carmen Sevilla, Rocio Durcal, Marisol eta giza ontako beste ainbat artistentzat. Euskal kutsuaren billa ta billa ibilli ondoren bere zinta danen artean, zerbait arkituko genduke EL CANTOR DE MEXICO'n (Mexikora joan zan euskaldun abeslari bat Mariano'ren arlegiak) eta LA REINA DE CHANTECLER'en (Sara Montiel Oyarzun eta beste Donosti-inguruko alderdietan); gezurra dirudi!

d) Euskaldunak beti izan dira doñulari onak. Zinean ere soiñu lanetan asko ibilli izan dira. GURIDI gazteizdarrak pelikula askori soiñua jarri zion. Oietan bi, gañera, euskaldun-gai-dunak dira: Luis Marquina'ren AMAYA, ta len esan degun EL EMIGRADO.

Naparroako Ruiz de Azagra'k ere lana naikoa egin zuan Madridedo pelikulatan.

Naiz-ta Argentinan jaioa izan euskaldun jatorriko Isidro B. Maiz-tegi izango da gaurko egunetan geiena lana egindako bat. Bere lanik onenak Barden'entzat izan dira, LA MUERTE DE UN CICLISTA, CALLE MAYOR eta beste antzeko pelikulatan. Gure egunetako zine berrian ere ba-dute beren lekua euskaldunak, eta ez nola-naikoa. Gutxi dira gaur Madrident Luis de Pablo ta Carmelo Bernaola añaokak. Bilbotar de Pablo'k idatzi Saura'n azkeneko pelikuletarako (LA CAZA, PEPPERMINT FRAPPEE, STRESS ES TRES TRES, LA MADRIGUERA t. a.) baita Ezeiza'ntzat (EL PROXIMO OTOÑO, DE CUERPO PRESENTE t. a.) Regueiro, Angelino Fons eta beste zinegille gazte azkorentzat. Euskaldun zati bat ere ba du Javier Aguirre'n ESPAÑA INSOLITA'n. Otxandioar Bernaola'n lanak ere ezagunak dira, batez ere Summers eri laguntzen (JUGUETES ROTOS —euskaldunak ba-ziran tartean— ta URTAIN gure kirolari ospetsua), Patino'ren NUEVAS CARTAS A BERTA'n; Martinez Rico'ren zintatan (EL CRINICON, EL HUESO, ta Gazteizen egindako MAÑANA DE DOMINGO'n); oiez gañera bere laguntza eldu da baita Feliu, Olea, Herrero, Ribas eta beste zinegille gaste askoren zintarik onenetaraño. Euskaldunak dira Toni Areta ta Santisteban soiñu-egilleak ere.

Zineak, gañera, bi euskaldun musikarin bizia agertu du bere irudietan. 1941 an Busch ta Choux'ek SARASATE egin zuten Alfredo Mayo'ren irudiakin ta Enrique Iniestak bioliñ joaz. Domingo Viladomat'ek, berri, 1958 an GAYARRE eratu zuan Alfredo Krauss ekin. Bere ondoan azaltzen zan beste euskaldun ospetsu bat ere, Hilarion Eslava, Jose Sepulveda'n arpegiakin.

e) Baña euskaldun-talderik aundiena zineko artista artean degu. Lurbira osoan ezagunak izan ziran gañera oietako batzuk. Ala Mutrikuko Juan de Landa. Hollywoodek asi zituan bere lanak Buster Keaton'en ondoan. Geroztik España eta Italiako pelikula askotan azaldu zan. Bere zintarik ezagunenak EL PRESIDIO 1930'an eta Susan Lennox 1934 an Greta Garbo ta Clark Gable'n ondoan Hollywood'en; Visconti'ren OSSESSIONE Italian; eta UN ANGEL PASO POR BROOKLYN Españian.

Zinta askotan Landa'n ondoan agertu zan donostiar CONCHITA MONTENEGRO re aldi artan oso ezaguna izan zan. Hollywoodeko pelikula gañera Prantzian, Españian eta Italian ere lan egin zuan. 14 urtekin Parisera joanik 18'kin asi zan zine-lanean 1929'an LA FEMME ET LE PANTIN'en. Geroztik, Ramon Novarro, Leslie Howard, Norma Shearer, Robert Montgomery, Warner Baxter, Victor Mc Laglen, Charles Boyer, Will Rogers, Albert Prejean, Gino Cervi eta orrelako beste artista askorekin agertu zan.

Biarritztar Martine Carol ere auen artean jarri bear. Pantziako zinegillerik onenentzako lan egin zuan, eta, aldiz, Hollywood, España ta

Italiarako ere bai. Lanik onenak CAYATTE'ren LES AMANTS DE VERONNE, RENE CLAIR en LES BELLES DE NUIT —Españian MUJERES SOÑADAS deitua—, Max Ophuls'en LOLA MONTES, Rossellini'ren VANINA VANINI ta Anderson'en AROUND THE WORLD in 80 DAYS Cantinflas ta David Niven'en ondoan.

Ezin aaztu auen artean irundar LUIS Mariano ere. Ez oso onak izan diralako bere pelikulak. Baña bere abesteko erari begiratuaz etzioten beste lanik ematen. Sacha Guitry'k bakarrik agertu zigun beste itxura batekin bere NAPOLEON en 1954 an.

Aldi batean oso ezagunak ziran Carmen eta Mariana Larrabeti bilbotarrak. Carmen ala ere bere Hollywoodeko lanagatik Jose Mogica'ren ondoan.:

Onenetako bat orde, izango zan noski Bayonan jaio zan Polidor. 1910 an, Tontolini izena erabilliaz, 35 bat pelikula motz egin zituan. Urrengo urtean artu zuan bere geroko Polidor izena— bere egizko izena Ferdinand Guillaume bait-zan— eta 1911'tik 1925'era berriz ere pelikula motz ugari egin zuan. Geienean, gañera, bera izan zan zuzendari ta idazle, artista izanaz batean. Geroko bere zine-lanetan ezagunenak Fellini'ren LE NOTTI DI CABIRIA ta LA DOLCE VITA izan dira. Fellini berakin lantxo bat ere egin zuan LA TENTAZIONE DEL DOTTOR ANTONIO'n, BOCCACCIO 70'ko batian. PIER PAOLO PASOLINI'n ACCATONE'n ere azaldu zan.

Gaurko egunean ba-dira Madrident bi euskaldun oso ezagunak. Bata da bilbotar Tomas Blanco. Larogetik gora dira berak egindako pelikulak. Aldiz Italian ere azaldu izan da baña geienean Españiako zinean izan da. Era askotako lanak egin ditu. Beretzat berdin da parre eragin —azkeneko zintatan DON ERRE QUE ERRE edo LA TONTA DEL BOTE— negar eragin —TENGO QUE ABANDONARTE— edo bildurra eman —LA RESIDENCIA— danak 1970'an egiñak. Urrutikuskiñean ere sarritan ikusi oi degu. Bestea berriz donostiar Alfredo Landa degu. Parre eragitera geiegi beartu dutela deritzat neri; lan sakonagoetan ere ez litzakela galduko uste det. Ala adierazi zigun Summers'en LA NIÑA DE LUTO'n. Oraingo zinegille on askok erabilli dute beren pelikuletan. Berlanga'k EL VERDUGO'n; Summers'ek bigarrenez NO SOMOS DE PIEDRA'n; Javier Aguirre'k LOS QUE TOCAN EL PIANO, UNA VEZ AL AÑO SER "HIPPI" NO HACE DAÑO'n t. a.

Guziak gogoan izan eziñik auez gañera jartzera noa Bayonako Pierre Clarel, iruñar Joaquin Roa, bilbotar Jesequina Serratos, ta Mary Be-goña, donostiar Raul Cancio, Mary del Carmen ta Rosina Mendia, ta gazteizdar Blanca de Silos'en izenak.

Zine-barruan diraneri egin diegun begirazun onekin au bakarrik adierazi nai nuan: euskaldunak zinean sartuta daude, zinea ondo ezagutzen dute, ta zinean edozer lan egiteko gauza dira. Ezer egin ez ba'degu, orduan, euskaldunen alde ez da, noski, ez dakigulako, Euzkal Erriaren eta euskeraren alde zerbait egiten saiatu ez gerralako, baizik.

V.—EUSKALDUNAK ZINEA ZABALTZEN

Esan degu gorago ez dala zinean naikoa pelikulak egitea. Egindako pelikula oiek zabaldu egin bear dira alderdi guzietara. Alde ontatik, ordea, ez det emen zer esan aundirik Euskal Erriko gauzetaz. Gure artean ondo zabaldua dago zinea. Uri aundietatik erririk txikienetaraño eltzen da egunero, astero edo aldizka beintzat, asparditik, esa orain geiago urrutikuskiñaren bidez.

Ezin ordea emen ixildu Garmendia tar Juan Jose apaizaren lan izugarriak Fides batzordean. Berak sortu bait-zuan Tolosan batzorde au zinea garbitzeko asmoakin. Gai onetzaz, ordea, ez det nik ezer esateko asmorik. Berak esango dizkigu gauza obeak bere lanean.

Ezta Donosti'n eta Bilbo'n urtero izan oi diran jaieta zine salerosketak emen agertu ere. Etorriko da beste garai bat ortarako.

Ez da naikoa gure aldetik errietara zinea zabaltzea. Zinearen izkera ta gogamenak gizonai zabaltzea bear degu galera. Naiz ta irudi utsak berez osorik ulertu, berakin eraturako izkerak ba-ditu berezitasunak, ondo ez dakienentzat artu eziñekoak. Ortarako sortu ziran ludi osoan Cine-Club edo zine maitale batzordeak. Batzorde auen lana, laburkiro, au oi da: irudi-izkera al dan ondoen ezagutu-erazi; zinearen gora berak bere sortzetik orain arteraño ikusi, bai estetika aldetik ta bai gaien aldetik; zinearen indarra gizonaren sikologi-aldetik neurtu ta zuzendu al daneraño; zinearen giroa gizadian nabaitu soziologi-aldetik; zinearen aldi bakoitzeko erakutsiak pilosopia, erligio, sozial moral ta beste guretzako interesgarriak diran gauza guztiak ikasi, t. a.

Ezin esan gauza auetan ere euskaldunak lo egon geranik. Urte askotxo dira euskaldunak gai ontan lanean ari gerala. Alderdi guzietan ditugu Euzkal Errian era ontako batzordeak aspalditik. Baña batzorde auetan egin al degu ezer euskaldunen alde? Egia da euskaldun askori erakutsi zaiola zinea ikusten ta zinearen agerpenak ere bereganatzen. Baña euskeraren alde egin al degu zerbait? Batzorde auetako alkar-izketak zertarako ez ditugu egin euzkeraz gure artean? Zineak berak euskerari ematen dion ostikada —euskeraz ez dalarik— ez al degu geuk aunditzen eta sakontzen gure alkarrizketak gure izkuntzan egiten ez ba'ditugu?

Pozgarriak dira gai ontan Gipuzko-aldean asi diran lan batzuk. Donosti-aldean ba-dira umeentzat euskeraz eraturako zine-programak. Batetik, irudi-izkera aldetik ondo egiñak, bestetik umeen izaerari begira lortuak eta beti euskeratuak! Zergaitik ez degu lan au gure artean geiago zabaldu? Batetik euskerari laguntza aundi bat emango genioke ta bestetik, berriz, lan auetan sartuta daudeneri gure diruarekin gauza obeak gertatzen ere lagunduko genieke noski.

VI.—BUKATZEKO GALDERA BATZUK

Ikusi degu zein bearrezkoa dan gure egunetan irudien izkera ta nolakoa izan leikean guretzako bere laguntza. Egitan uste al degu gaurko gizona irudien indarrakin geienean dabillela?

Ori ala uste izanik, ezin al degu ezer egin euskaldunak zine geiago ta obeagoa euskeraz egiteko? Zer egingo degu bakoitzak, dirua eman, zerbait idatzi, edo zinegille izan edo zinegilleen artean gure lanetarako gertu diranak arkitu t. a.?

Lanean gogoz asteko ez degu oraindik bear bearrezkoa euzkerazko zinea. Erderazkoarekin ere lana naikoa egin dezakegu saiatzen ba gera. Inork naiko ote du, orduan, bere errietan, naiz-ta erderazko pelikulak ibilli, alkarrizketak euskeraz jartzea? Ta alkarrizketa oiek zuzentzeko gerturik al gaude? Gertu diranak, naiko al dute?

Egunetik egunera ari da euskaldunen artean euzkeraz itzegiteko gogo sutsu bat sortzen. Erria degun ezkerok, guk bakarrik —beti bezela— gelditu bear al degu atzean?

Ezin dezakegu utzi euskera txarto eraturako folklore uts bat bezela, ta baztartuta gelditzen ari diran gauza berezi batzuetarako bakarrik. Ordua dala —uste bet— gure bizitza osoko gertaeretara euskera zabaltzeko ta, era ortan, zinea ezin dezakegu alde batera utzi. Euskaldun idazleen artean, orduan, sortuko ote degu zineaz eta zinerako idazteko girorik?

Zinea umeentzat euskeratzen ibilli diran gizonak, berriz ere bakarrik utzi bear al ditugu?

Zinea berez maite ez ba'degu ere, bere indarririk ezin ukatu. Ta zineak euskera orrela erailtzen ba'du euskaldunen artean —euskarez ez danean— bere indarra euskeraren alde jartzeagatik bederen zinea maite bearrean gera.

Ba-degu orduan zinean zer-egiña ugari. Emendik aurrera ez dezala inork esan egitan euskaldunak, zinea ezagutu ta zine-lan danetarako gerturik egon arren, euskeraren alde bere irudiekin ezer egin ez degunik.

III

GIPUZKOA-KO KONDAIRA

S. INSAUSTI

Barkazio eske nator asieratik, Euskal-erri guztiaren kondaira espero zendutenoi, zati txiki batena besterik emango ez dizuetelako. Alde batetik begiratu, nere besoak jaso ez dezateken karga da zazpi edo sei probintzi oien kondaira aztertzea, eta, bestetik berriz, nik batengatik esango detana, beste guztieri ere erantsi liteke gutxi gora bera. Barrun-barruneko izaera azaltzera bai noa ez kanpoko erriekin izan zituzten gora berak; eta mailla ortan banaketa txikia dago bata-besteengandik.

Aurreko egunen batean ementxen bertan adituak zerate kondaira aurreko edo Prehistoriaren aroa; eta kondairaren aroa ondo dago bitartea betetzeko lau edo bost milla urte jarri bear dirala. Garai oietako berri ematera Manuel Lekuona jauna etorri zitzaigun, zubi bat jasotzera zijoala esanaz, eta bai egoki jaso ere, berak bakarrik dakian bezela. Zubi ortatik ainbeste ta ainbeste gizaldi pasa diran ezker, kondaira aurekoak eta kondairaren asierakoak, eztegu zergatik arritu, ibilli dituzten bide ertzetan zenbait auts mordo eta ondakiñ sumatzen ba-ditugu kondaira aroa aztertzeraz goazenean.

Nere egitekoa ori danez, ez nuke Lekuona jaunaren erakutsirik aztu nai, baizik berak ondo baño obeto esandakoak argi berriz jantzita azaldu; eta, bear bada, gai orri buruz beste azalpen batzuk ekarri. Era ortan bildur gutxiago izango det zuen aurrean agertzeko, maixu bikaiñ baten eskuetatik natorrela jakin-da. Eta besterik gabe asi gaitezen lanean.

1. AUZOTAZUNA

“Provincia onetaco necazariric gueienac gordetzen dituzte, oraindic ere, beren anaia artzain ondraduai icasitaco oitura onesqui maitagarriac. Gende leial onec bere bicimoduraco ifiniac dauzan alcardade gozoac dirade, bada, ezin obeagocoac”. Juan Ignacio de Iztueta jaunak eskribitutako Guipuzcoaco kondairan, dauzkatzute itz oiek. ez noa orain sei orri edo pagina osatzen dituan kapitulo osoa letuz zuek aspertzera, bañan on litzake esku artean liburu ori daukazutenok beñekpein neke labor ori artzea. Jakin garri diran gauz asko billatuko zenit uzteke, eta batikbat auxe principalena: garrantzi aundikoa dala gure artean ia orain arte iraua duten basarri ta auzotako alkarren artu-emanak ezagutzea.

Artzaintza oso utzi gabe, lur-berriak lantzen asi ziranean artzaiak, inguruan arkitzen ziran baserriak beren arteko lokarri bat sortu zuten: auzoa. Lendik erabillia da gai au, batez ere *Anuarios de Eusko-folklore*

izendatzen diran liburu, José Miguel Barandiarán jaunak argitaratuetan. Ez nua ba gauz berririk esatera, ta iñork besterik geiago jakin egarria ba-du, jo dezala iturri oietara, nun asetua izango du ta.

Basarri mordo bat inguruan jaso dirala ta, besterik gabe ez da sortzen auzorik. Bertan bizi diran baserritarrak, alkarrekin dituzten artu-emanen bitartez, ernetzen dute auzoa. Basarri batian famili gaztea dun andrea gelditu da alargun, edo ta gizona bera da soro lanetan aritzezko gauza eztana, auzokoak ekin bear goldeari, azia ereiteari, arta-jorrrari eta abar. Basarria erre ta berria jaso bear dala, tellatua konpondu, ormak sendotu, eta beste olako zenbait lan, etxean diranakin bakarrik egin eziñezkoak sortu ezker, auzora jo bear laguntza eske.

Onen antzeko dira “ordeak” (trabajo a trueque), nekazaritzak berekin dakarzkienak. Lurra laiatu, gari-jotzea, arta-zuriketa, karobia erre, eta askoren artean egin bearreko lanak, auzoaren laguntza eskatzen dute. Gaur zuek neri lagundu, biar nik zuei. Lorra da onen antzeko beste zerbait. Kanpotik etorrita dalako edo, zimaurreta eta surtarako egurrik gabe arkitzen da basarritarren bat; auzoan eskatuko ditu, zeñek zenbat ekarri dion kontu emanaz. Ortatik datoz zimaurreta-lorra, zur-lorra, eta baita ere bildotx-lorra, artalde berria jartzera zijoanai aurreratutakoak. Gero al-zunean ordaintzeko.

Bide berri bat eratu bear zala, edo ta zarrak txukundu, mendiko txabolak konpondu, eliza ta erretotxea, eskolak, eta olako zenbait, auzo guztiaren alde egin bearreko lanak, danon artean menderatzen zituzten. Auzo-lan, oraindik irauten dun oitura dezute au. Gañetikako artu-emanak dirala esango nuke, oraindaño agertutako oiek. Ba-ziran pamilitan barrunxeago sartutako beste batzuk.

Jaiotza, ezkondu ta berdin moja sartu edo apaiz egitea, eta iltzea beñere pamilitan faltatuko eztiran gertakizunak dira. Umatu dan amari ikustaldia egitera dijoan andrea, ez da esku-utzik abituko. Ollorik gizenena, ardo goxoa ta opillak xestuan artuta joango zaizu. Bataioa dala ta, aita-pontekoak edo gurasoak emango dizue gosaria, ez bada bazkaria edo apari-merienda. Eztaietan, berriz, zer esanik eztago. Meza berria emateakoan, moja zartzeakoan, ta olako gertaera zorioneakoak diranean bazkari-legea egitea zeñek ukatu! Bazkari ori ordea aurretik egindako eskupeko edo erregaluen ordaña izaki.

Illetak dirala-ta, auzoaren alkartasuna ezta gutxiago azaltzen. Auzo, auzo-egitea, esaten zaio ildakoen pamilikoai laguntzera dijoan inguruko andreari. Elizara ezker, etxeko sepultura inguruan an uzten dituzte olatak, kandela ta ogia, iñoiz ardoa eta ezta ere bai. Elizkizuna bukatu ta bearrezkoa izango da etorri diranai amaiketakua eskeintzea, ta ez arritu bazkari bikaiñ bat antolatzen bada. Orain goan ere bazkaria olataren ordaintzat artuko da.

Oitura oiek danak galtzen dijoazte, oso lur-jota ez badaude gaurko egunetan. Bañan garai batean erriaren ezurretaraño sartuak zeuden.

Probintziko batzar edo Junta generalak alegin guztik egin arren, etzuten kentzeko moduik izan. Begira zer gertatzen zan Zarautz-en: "Cuando paren las mujeres van a les visitar todas las vecinas y comarcas, y llevan grandes presentes y dádivas, y lo mismo en casa de las paridas dan colaciones y comidas costosas donde se gasta más de lo que llevan" (Reg. Junta Grl. Guetaria 22-XI-1571).

Aurren artan oitura onak ba-ziran ere, gerora kaltegarri biurtzen ari ziran, geienbat gende xeak aberatsen itxura egin nai zutelako. "Porque los pobres y poco pudientes, aunque no alcanzasen ni tuviesen la comida para aquel día, habían de buscarse y empeñarse para hacer las dichas visitas" (Reg. Junta Grl. Mondragón XI-1550).

Gutxienez iru siglo jarraitu zuten batzar edo junta general bakoitzean aurrekoan emandako legeak berritzen agintariak; geiegizko gastu oiek kenduko zituztelako, bañan alperrik. Erriak bere oitura zarretan biotza bai-zeukan!

Orain arte nik esandako gauz asko Bonifacio de Etxegaray jaunari zor dizkiot, ta beraren itzak artuta bukatu nai nuke zati au: "El *auzo-tasun* (o sea: tendencia a constituir pequeños grupos de caseríos formando aldeas o barrios...) es, sin duda, reflejo de la más antigua estructura social y política de Euskal-erria" (*La Vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco*, en Rev. Int. Est. Vascos, XXIII (1932), pgs. 4, 376 y 546 y ss.). Iztueta-kin asi, eta B. Etxegaray jaunarekin bukatu, eta danak gure asaben oitura ederrak goratzeko.

2. UNIBERSIDADEAK

Ondo dakizutenez ba-dira Gipuzkoan zear izen orrekin ezagutzen diran erri batzuk: Oyartzun, Aya, Asteasu, Errexil, Ataun ta abar. Iñoiz eztabaidan bat sortuko zan zuen artean zer esan nai ote dun deitura modu orrek, nork eman ote dion Errezil'i orrenbesterañoko kategoria. Axaletik begiratuaz, itz orrek bi zati ditu: *Uni*, bat, *versidad*, asko. Len asko ziranak, orain bat egin dirala, alegia. Orra Errezill'en, Aya'n eta gañontzeko erritan gertatua: here-kasa sortu ta bizi ziran auzo edo ballarak bildu ta erri bat eratu zutela danon artean. Nai al-dezute ori bañan adierazpen errexagorik!

Ordun ikastetxeak izen orrekin zergatik ezagutzen dira? galdetuko diazute. Arrazoi berdiñagatik. Paris-ko unibersidadea nolaz sortua zala uste dezute? Sakabanatuta zeuden kolegioak lege baten azpian eta danon buru egiten zuan erretore baten mendean jarri ziralako. Etzuten etxe batean danak bildu bearrik izandu. Eta Paris-ko unibersidadeagatik esana, berdin da Salamanka-ko, eta beste edozein antziñako unibersidadeagatik esatea.

"El concejo e collacion e vecindad e unibersidad e feligresía de Sant Martín de Berastegui", eta izen oiek guztiak ematen zaizkate Elduayen,

Belaunza, Leaburu, Gaztelu, Lizartza, Orexa, Amasa, Irura, Anoeta, Ernialde, Zizurkil, Aduna ta Alkiza-ri ere, 1450 grn. urtean Tolosa-kin auzitan ibilli ziraneke paper batian. Danak berdiñ esan nai dute beraz. Orain "*ayuntamiento*" bezela.

Len aitatutako errenka ortatik bi izen aztertu bear ditugu oraindik: "colación y feligresía". "Colación" latiñetik dator, eta "bilduma" euskeraz esango genduke. Unibersidadeari eman diogun sustrai beretik. Auzoak eta ballarak bilduaz sortutakoa. "Feligresía", berriz, Elizakin zer-ikusia daukala ematen du. Ala da noski, bañan feligresiarri aldamenian beste itz au jarriko nioke nik: "kofradía". Agian esan-nai berdiña dutenik etzaizue irudituko, ta kezka ori kentzera noakizue orain.

Latiñetik dator itz berau ere: *fratres*, anaiak; "*fratria*", anaitasuna; "kofradía", beraz, anaiak alkar artzea esan nai du. Adituko zenuen San Antón, San Krispin edo ta Santa Barbara'ren kofradiak beren zaindarien egunez Meza nagusia izan dutela, ta ortik aurrera ezer gutxi. Anaiak berriz zenbat, kofradi bakoitzean? Talde eskasa. Ez noa ni bide ortatik, ta kofradiaren izen ori etzazutela elkartu orain aitatu ditugun oiekin bakarrik. Beste era bateko kofradiak ere izan baitira gure artean.

Zarauz-ko eskribau zan Martin Elkano jaunak probintzi osoa jira zuan, erri bakoitzean zer modutako kofradiak zeuden ikusiaz, 1586 grn. urtean. Tolosa'n auek billatu zituan: Izazkun'goa, Vera Cruz eta Aldareko Sakramentua'rena. Oiek aitatu ondoren, ara zer dion Elkano jaunak: "Hay otras tres cofradías que son las de Santesteban, San Blas e Santa Lucía, basílicas de la iglesia parroquial, en cada una de las cuales se dice cada semana una misa en las mismas basílicas..., y hay dos mayordomos en cada una de ellas que tienen cuenta de hacer decir las dichas misas y de cobrar la dicha limosna".

Garrantzi aundiko notizia dezute au. Gorosabel jaunak dionez, guk ezagutzen degun Tolosa au sortu baño len, 1256 grn. urte aurretik, inguru oietan gutxinez iru parroki ba-ziran: Laskoain'go San Esteban, Yurre'ko Santa Maria (orain San Blas), eta Santa Luzia, paper zarretan Ezama'koa esaten zaiona. Parroki oiek uri-berrian jasotako gure Santa Mari onekin bildu ziranean, galdu ziran. Ballarak or dauzkagu oraindik: Laskoain (Olarraín, Auzo-txiki eta Urkizu), Yurre (San Blas eta Uzabal), ta azkenik Santa Luzia edo Ezama. Kofradiak emaseigarren sigloa amaizterako iraun zuten.

Zer esan nai du onek? Orra: Auzo bakar bat naikoa izanik, edo ta auzo talde bat bildurik (gogoan artu "unibersidadea"-gatik esandakoa), ango basarritarren animak zaintzeko parroki bat sortutakoan, bertan erazten zuten kofradia ere. Auzo, ballara edo erri txiki batean bizi ziran gizon ta emakume guztiak osatzen zuten kofradia. Danon artean aukerazten zituzten len esandako zuzendari edo maiordomuak, parrokiari zor zitzaizkan amarrenak eta primiziak biltzeko, apaizak beren egin-bearrak zuzen betetzen ote zituzten kontu artzeko, eta beste era ortako zenbait

dintasun ori? Tolosa'n gertatu zana, beste erritan, Berastegui'n, Leabru'n Gorosabel jaunak aitatzen ditu Santa Mari-ko apaizekin izan zituzten leia-
ketak, egunero ermitan eman bear zuten Meza errexamar uzten zutela-ta.

Gogoan artzazute berriz len feligresía eta kofradia berdin jo ditugula, eta "feligresía" itz ori batean zetorrella "concejo ta colación", au da, oraingo ayuntamientoakin. Tolosa-ko kofradien aztarrena amaseigarren siglokoa da, ta ordurako ezer ikustekorik etzuten gure errian kofradiak ayuntamientoarekin. Inguruko erri txietan berriz "feligresía edo kofradia "ta" concejo edo colación "sentidu berdiña zuten. Zergatik desberdintasun ori? Tolosan gertatu zana, beste erritan, Berasteguín, Leaburún eta abar, egin etzalako, alegia. Au da: Kastilla-ko errege zan Alfonso amargarrenak ibai-ertzeko lur puxketa onetan uri berri (villa, erderaz) bat sortzea nai, ta ortarako Bitori'n eta Logroño'n ziran moduko ayuntamientoak emen jartzeko eskubidea eman zualako.

Eta Tolosa'n egindakoa, bai lenago bai geroztik probintzi osoan gertatu zan. Donosti izan zan lendabiziko uri-berria, Naparrua-ko erregeak sortu-arazitakua berau. Gero itxas-aldekoak: Ondarrabi, Motriku, Getari eta Zarautz. Amabost-garren sigloa asi zanean, ba-ziran Gipuzkoa'n zear erregeak sortu-arazitako 24 uri-berri edo villa. Gertaera onek auzoak eta ballarak zaintzeko antziñatik zetozen oitura onak eta usuarioak naastu zituan. Erri-izaera berri bat ekarri zuan, eta guk gaur legeak eratutako ayuntamientoak bakarrik ezagutzen ditugunez, ezin ulertu edo konprenitu degu aurreko erri-izaera ori nolakoa zan. Egin dezagun ala-ere alegin txiki bat.

Auzoak edo ballarak alkar artzen dutenean "universidad edo colación" (erderaz) bat egiten dute, dakigunez, Giza-alkarte onek ba-ditu bere billerak, "batzar" izenez esagutzen ditugunak. Batzar oietan biltzen diranak danak dira mailla berdiñekoak: artzaiak edo nekazariak geienak ta ola-gizon bakarren bat. Usuario eta oitura zarrak dituzte zuzenbide, eta lege berriren bat jarri bear izan ezkerro, danon iritzia aditu eta geienak ontzat emandakoa ori artu legetzat. Jartzea naikoa eztala, legeak bete egin bear, eta ortarako agintariak izendatu. Iñor ez, berriz, billera oietan besteak diran baño goragokoa, eta aukeratutako agintaria danon serbitzari izaki. Zuzendaria izanik, eztauka bere naia egiterik, baizik batzarrak agindutakoa eta arrek nai duan modura. Batzarrak bere gain gordetzen du aginpidetasuna (autoridadea), eta agintariak bear bearrezkoak diralako jartzen ditu; bañan bere esku izanik aiek nai duan ba-koitzean kendu ta egin bearrak nolaz bete dituzten kontu artzeko.

Uri-berria (erderaz *villa*) berriz, etzagoan modu ontan eratuta. Bertan biltzen ziranak etziran danak mailla batekoak, batzuk eskubide osoak zituzten (erderaz: *vecinos*: bertan jaio, bizi, etxejabe eta odol-garbikoak (*hidalgos*) ziralako. Besteak askoz eskubide gutxiago zituzten (erderaz: *moradores*): lengoai ezarri dizkiegun ezaupideren bat palta zuten, batez ere etxe-jabe eta odol-garbikoak etziralako. Erria zuzentzeko legeak, be-

rak jarriak ez baizik erregeak emandakoak ziran (erderaz: *fueros de población*). Batzarretara etziran erritar guztiak juaten, eskubide osoak aukeratutako gizonak bakarrik (erderaz: *ayuntamiento cerrado*).

Erri txikitako batzarrak beren izaera berexia galdu eta moda berri oiek egokiagoak zirala ta, aietara jo zuten. Ez noski bereala, urteak eta sigloak ere bai alkarrenganako artu-emanetan igaro ondoren baizik. Gorosabel jaunak amabost-garren sigloa aurrera zijoala jartzen du aldaketa onen garaia. "Lo probable es que subsistiese en el estado primitivo hasta entrado el siglo XV", dio berak. Eta Gorosabel-en itzak siñist- gaitzak egiten ba-zaizkitzue, gogora ekarri zati onen asieran aitatu degun Tolosa'k bere inguruko erriekin izandako auziaren 1450'grn. urteko papera. Amalau erri aitatzen dira an, eta bakoitzak agintari bat bakarra du, *jurado* izenekoa bera. Etzan ba garai aitan bear bezela eratutako ayuntamientoa erri txikitan, bere alkate, regidore edo konzejal ta guzti. Antziñako oituretan jarraitzen zuten oraindik Tolosa inguruko erriak.

Ba-gendun gure artean Arramele-ko San Juan-en Kofradia zeritzaiona, Tolosa-ko uri-berria sortu baño lenagokoa nere ustez. Ara nere arrazoiak: Alkatearen ordezkotako egiten zuana kofradi orren "Fiel" zan; eta ayuntamiento berria aukeratu baño ta egun batzuk lenago urte artan kofradiko "fiel" izango zana izendatzen zan. Ona orain zati au bukatzeko erriko legeak (ordenanzas municipales) 1532'grn. urtean esaten zutena: "E que ninguno ni algunas personas por vía de Cofradía de San Juan de Arramele, ni otra cofradía, ni monipodio..., no sean osados de contradecir lo que fuere proveido por los dichos Alcalde, Fiel e regidores..." (cap. 34). Beraz amaseigarren sigloan Ayuntamientoari arpegi jartzeko lañ ziran Arramele'ko eta len aitatu ditugun kofradiak ere.

3. FEUDALISMOARI EZEZKOA.

Oraindaño esandakoak gauza bat adierazi nai dute batez ere: Kastilla-ko erregearen mendean jarri baño len ba-zala Gipuzkoan gizarte-lege bat; lege ori, "usuario eta oitura onak" gipuzkoarrak berak asmatutakoak zirala; danok ez bada, geienak ontzat artzen zituztela; eta legeak bete-arazteko agintariak ba-zituztela. Etziralala alegia basa-piztien modura bizi gure aurrekoak.

Ori esan dutenak ere bai-baitira. Galizi-ko Santiago-ra zijoan erromes Aymeric Picaud jaunak esandakoak ezagunak dira, bañan eztakigu Naparrua-ko lur-aldean gertatzen ziran ala gure artean. Zer esan aundia jarri zuten beste bein gure asabak, eta gertaera ontan naparrak eta euskaldunak bereiztuta agertzen zaizkigu. Erroma'n bildutako konzilioak kargu artu zien, kristauen aurka gogorkeri izugarriak egiten zituztela-ta. Ez omen zioten barkatzen ez eliz-gizonei, ez praileei, alargun, zar eta ez ume txikiei ere; kristauak ez ba-lira baño arego. Hereje edo fedea ukatu

zutenen kontra Lateran-go palazioan bildu zan konzilio au 1179'grn. urtean (Concilio Lateranense II); bañan, ikusten danez, hereje oiekin naastuta ba-ziran beste lapur eta giza-eraille asko, eta olakoak gure jendeen artean izatea ere ba-zitekean. Ez noski danak olakoak izaki, ezta ere danak zeruko aingeruak.

Lege-pean bizi ziranak berriz ba-zuten zeñek agindu. Zazpi. Gipuzkoa'ko jaun edo konde, izendatzen ditu Fausto Arocena jaunak 1025-tik asi eta 1187grn. urtera bitartean. Lendabizikoa, Garcia Acenariz, Alzozpi-ko eliza San Juan de la Peña deritzaion praile etxeari eskeñi ziona. Zazpi oietatik bat bakarra Kastilla-ko erregearen mendean, seigarren Alfonso ango erregeak iru euskal-probintziak bere ganatu zituan garaiekoa (1076). Beste seiak Naparrua-ko erregearen serbitzari, eta oietatik iru Guebara pamilikoak.

Argitasun aundirik gabe arkitzen gera oraindik konde edo jaun oien egitekoa zer zan. Neretzat probintzian sakabanatuta zeuden gaztelu guzien buru edo gobernadore ziran batez ere. Lurra gorde eta erregearen mendean eukitzeko. Eneko Oriz izan zan konde edo jaun oien azkenekoa, eta izen ori bi paper zarretan era ontan agertzen zaigu: batean 1185'grn. urtekoa *Eneco de Orriz dominante et in Ypuzcoa*, esaten da; bestean berriz 1187'grn. urtekoa *Eneco de Orriz dominante Aitzorrotz*. Persona bera da beraz probintzi osoaren buru eta gaztelu baten gain dagona. Aitzorrotz gaztelua Leniz aldean dago.

Zergak edo "impuestuak" biltzeko oiturik etzan urte aietan, eta erregearen jabetasuna (soberanía, erderaz) aitortzeko, berari, bai mendiak, bai baserriak bai errota edo burni-olak, eskeintzen zizkioten erriak, ballarak edo auzoak. Errenga izenakin ezagutzen ziran eskeintza oiek, ots: errenga-mendiak, *montes de realengo*, erderaz. Erregeak berriz, beraren serbitzurako zeuden zaldun, konde edo jaun oieri zerekin ordaintzerik ez, ta erriak berari emandako mendiak edo baserriak soldata-truke aiei eskeintzen ziezken. Kondeak berekin zituzten guda-mutillak mantentzeko ta beste orrelako gastutako bear zuten dirua, erriak Elizari zor zizkion amarren eta primizietatik aterako zuten noski. Eztago besteia ulertzerik nolaz jabetu zan Alzo-azpiko elizatzaz len aitatu degun Garcia Azenariz Gipuzkoako kendea.

Impuestuak eta zergak ordaindu-bear ori ezta beñere gustagarri izan Euskal-errian, bañan soldataren truke mendiak edo baserriak konde edo beste serbitzarien eskuetan erregeak utzitze orrek arrisku aundia zekarkin. Auzo eta ballarak aundiki batzuen eskuetan jartzea, alegia, giza-arteko bizi-eran desberdintasuna sortzea, batzuk nagusi (señores), besteak moroi (vasallos, siervos), itz batean esateko: Feudalismoari atea zabaltzea. Maill batekoak izaten oituak egon berriz euskaldunak aspaldiko denboratik, eta arrixku orri arpegi ematen saiatu ziran. "Ese igualitario orgullo debía conducir a la democracia; democracia que hubo de ser fortalecida por la naturaleza de la tierra que habitaban, tierra áspera

y en sus solares montañosos no apta para el latifundio, base normal de las desigualdades sociales", dio Sánchez Albornoz jaunak.

Latifundio edo lur-ordeka ugariak gure artean eziñekoak izan arren, ba-zitekean desberdintasuna sortu, mendiak berak eman lezateken proetxua (artzaintza, egurra, ikatza) baten eskuetan utzi ezker. Orrengatik ikusi dezakezute amabost eta amaseigarren sigloan Gipuzkoako errien saiaketak jauntxo batzuen eskuetatik mendi taldeak atera-erazi eta danonak egiteko. Aralar mendiko sarobeak (seles) Roncesballes-ko praile etxeari eta Lazkau-ko jaunari erosi zitzaizkan; Segura aldekoak berriz, "parzonería" izenekoak, Fernan Perez de Ayala jaunari. Eta modu ortakoak zenbait sal-erosketa.

Gure artean ere, Tolosa'n, ba-da gai orrezaz zer esana ugari. Gorosabel-ek dionez, 1290'grn. urtean Santxo laugarrenari erosi zion erriak Aldaba-mendia; Aldaba-txikikoak berriz Juan Rojas de Mendoza jaunari 1333'garrenian; siglo ortan bertan San Blas aldeko mendiak bi salletan erosi zituan Garcia Fernandez de Sarmiento eta Juan Corbera jaunei. Tolosa-ko biztanleen artean, *Padron de Hijosdalgo* izeneko agerpenak ez dakar zaldun oien abizenik. Etziran beraz tolosarrak. Noiz eta nola egin ziran mendi oien jabe? Kastillako erregeak noiz bereganatu zituan Aldaba-mendiak? Ballarak erregeari eman eta onek bere serbitzuan zebiltzen zaldunei eskeñitakuak ote dira? Leikena da.

Berdiñ galdetu dezakegu probintzian zear aztertu ditezken ejemploatik. Garrantzi geiago luke, ala ere, zeñ erregek (naparrak edo Kastilla-koak) egin zituzten mesede oiek jakitea. Roncesvalles edo Leire izeneko praile-etxen alde egindakoak seguru-aski naparroko erregearenak izango dira. Beste donazioak zeñi erantzi ez jakin; ala ere izan leike aurrenean Naparroko erregeak egindakoak izatea, ta gero Kastilla-koak-berekin zebiltzen zaldunei emanak, Gipuzkoa errege bat utzi ta besteakin bildu zanian. Argitasun geiago bear litzake eztabaída onetan; zaila bait-da, gaurko egunean, galdu edo oraindik agertu ez diran paper zaarren sustraia ateratzia.

Gipuzkoa-ko kondairaren gertakizunik berexiena ulertu nai badegu, importantzi aundiko arazoa litzake donazio oien aztarrena ateratzea. Guda-indarrez ala bere borondatez jarri ziran guipuzkoarrak Kastilla-ko erregearen mendean? Ziur eztakigu 1200'grn. urteko gertaerak nola izan ziran. Fausto Arozena jaunak dionez ostropozorik gutxienak borondatezko eskeintzan daude. Zerk eraginda, ordea, erregez muatu? Zarren esan'i jarraiuatz, orra zer dion gure erritar Zaldibia batxillerrak: "No quisieron ser del rey de Navarra de quien estaban descontentos por agravios que les hacía". Ez du besterik esaten, eta ez askoz geiago ondorengo kondaira-zaleak ere.

Probatu al ba-genezake: Naparrua-ko erregeak, berari erriak emandako mendi eta baserriak, ondoan zebiltzkin zaldun eta arma-gizonei soldatan truke entregatu zizkiela, gertaera oiek izango lirake gipuzkoarrai

egindako ez-bearrak, *agravios* gure batxillerrak esaten denez. Probintziko jendeari gustagarri etzitzaiola jokaera au, ondorengo kondairak agertzen du; Kastilla-ko erregeari makiña bat aldiz egindako eskea, alegia: Ez zezala bere mendetik aldendu Gipuzkoa'ko zatirik txikiena ere. "Que la Provincia ni parte de ella, no pueda ser enajenada de la Corona Real", dio Fueroen asierako kapitulo batek. Ta bai-al dakizute fueru onen oñarria? Gure erriari ikuitzen diolako esango dizutet. Tolosa eta Segura, Pierres de Peralta jaunari uzteko asmoa zuala. Olakorik gerta etzedin jun zitzaion erregeari eskea, ta baita arrek ontzat eman ere.

Feudalismoaren aztarrenak ba-dira Naparrua-ko lurretan; mauruen kontrako gerratearen ondorenak, edo ta Frantzi'ko oituraren antzera sortuak ote diran, jakin ez ba-genezake ere. Dana dala, *señorios* izeneko jaubetasunak ia orain arte iraun dute, jaun eta moroi (*señores y vasallos*) arteko desberdintasuna jarriaz. Ez Naparra guztian noski. Entzun ama-bostgarren sigloan gure inguruan bizi diran Baztan'darrak erregeari esaten ziotena: "Non consentieran ser poblados en tierra del rey pechera, e illos seyendo repartidores de la tierra, et facedores con el presente rey de sus fueros e avenencias; nin los presentes consienten, nin consentirían en la dicha declaración, antes sabrían dejar la tierra e ir a poblar a otra parte". Iñoren mendeko izan baño naiago zuten bere lurak utzi eta erbestera jo.

Probintziko jende guztien berdintasunari eusteagatik Naparroa'tik aldendu zan Gipuzkoa, dirudienez. Bat egin da jarraitu izan ba-zuten bi erri euskaldunak, ez jakin zer ondoren izango zituzten. Inguruan ba-degu, ala ere, nun ikasia. "Mayorazgo" izenean utziak ziran 1149'-grn. urtean Oñati-ko senbait baserri eta mendi Gebara'tar Ladrón Iñiguez jaunak bere semeari. Pizkanaka mayorazgoa "señorío" biurtu zan, ta erriak menpetasun ortatik askatzeko egin zitun alegin guztiak alperrrikakoak izan ziran. Egin zazute kontu 1845'-grn. urtean alkartu zala Oñati Gipuzkoa-ko probintziakin.

4. ERMANDADEAREN SORTZEA.

Utzi ditzagun Feudalismoaren kontuak eta goazen orain garai aietan gure probintzi au nolatan moldatua zegoen aztertzerara. 1200'-grn. urte-inguruan bizi ziran auzo, ballara eta erri txikiko jendeak bai-al zuten alkarrenganako artu-emanen bat? Eta Gipuzkoa osoan biziziranak? Zer edo zer, gutxi edo geiago bere nortasunaren jabe zirala esan bearrean gaude. Orduko paper zaarrik etzaigu gelditu; gezurrezkoa dala bai-diot kondairatzaille guztiak Lupian de Zapata'k asmatutako Gipuzkoa Kastilla-kin bildu zaneko "escritura de pacto" edo dalako ori. Bañan probintziari izen berexia ematen ziotenak, ba-zekiten ura etzala Naparru, ezta Alaba edo Bizkaia ere. Beste oiekin naasten etzan zer edo zer bazala.

Nazio bat al zan? Guk gaur itz orrekin azaldu nai degun pentsakizun edo idearen modukoa? Ez noski. Oraindik orain (1965) *Alienor d' Aquitaine* izenekin argitaratu du liburu eder bat Mme. Regine Pernoud eskribatzalle prantzesak. Eleonor au Enrike Plantagenet Ingalatera-ko erregearekin ezkondu zalako gelditu ziran erri orren mendean Baiona aldeko lurak. Garaitsu artan (1150), ikusten denez, etorri ziran Gipuzkoa-ra gaskoiak eta Donosti uri-berria sortu zuten. Donosti-ko abogadu, eta Serapio Mugika kondairatzalle ospatsuaren seme dan, Jose Mujika jaunak Mme. Pernoud orri eskutitz edo karta bat egin zion, galdetuaz ezer ikustekorik bai-ote zuan Donosti-ra gaskoiak etortze orrek Akitania-ko Eleonor orren eskontzarekin. Alegia: Ingalaterra-ko erregearen mendean ez egon nai ta etorri ote ziran ba gaskoiak Donosti-ra. Eta eskribatzalle prantzesak ezezkoa erantzun zion. "Ce qui me fait croire la chose impossible, c'est que le concept de Nation n'existe aucunement a l'epoque d'Alienor". Ta amabost garren siglo edo mendean sortutako idea dala esaten du aurreraxeago. Aspalditik esana zeukan beste orrenbeste Karmelo Etxegaray jaunak: "El concepto de nacionalidad es demasiado moderno para que lo apliquemos sin muchas explicaciones... a aquellas gentes".

Gertaera onek erakusten diguna auxen da: oraingo pentsakizun edo ideakin iñolako moduz ezin ditugula juzgatu sei edo zazpi sigloz aurretik izandako gora-berak. Gizonen pentsakerak nai ta naiez aldaketa aundiak izan ditula orrenbeste urte igaro ondoren. "Sentido de la historia", esan oi dana bear degula aspaldi gertatutakoak ulertu edo konprenitzeko. Gure begiz ikusi ditugunak ezin ziñistu dituzte ondoren datozen gizaldikoak, eta pentsa...

Nolanai dala ere, Gipuzkoa'ko Elkarteak Kastilla-ko erregeari kondizioak jarri omen zizkion bere babesean jartzera, kondairak edo tradizioak dionez. Kondizio jartze onek gutxi edo geiago bere nortasunaren jabe zala adierazten digu, eta nortasun ori etzuan galdu gerora ere, Ingalaterra eta Prantzia-ko erri batzuekin lagun-arteko itzak (tratados de amistad) eman zituanean. Kastilla-ko erregeari, berriz, askotan esan zaio: bere buruaren jabe zalarik juntatu zala Gipuzkoa arekin.

Beren probintzia besteengandik berexia zala, gipuzkoarrak berak konturatuko ziran lenengo. Auzo, ballara eta erri-txikien alkartea, berriz, etzan goizetik gabera sortuko. Aurrenean, inguru xamarrean arkitzen ziranak lur-alde, ibar bat (erderaz: valle) eratuko zuten. Paper zarretan ibar oien izenak agertzen dira: Hernani, Elkano, Aya, Sayaz, Itziar, Areria ta abar. Lur-alde bakoitzak bertan bizi ziranen buru egiteko agintarien bat izango zuan. Gerora ikusiko ditugun "Alcaldias mayores" izeneko alkartearen asiera izan zitekean au.

Lur-alde edo ibar oiek danak batera biltzen zituan agintaririk bai-ote zan? Probintzian zear sakabanatutako gazteluen buru egiten zuen konde edo jaun oiek, jende xee, artzai eta nekazariekin, artu-emanik bai-al zeukaten? Gai oni buruz ezer eztakigula aitortzea da gauzarik bidezkoena.

Au bakarrik esango dizuet: Araba eta Naparru-ko erriekin agertzen zaizkigu Tolosa, Segura eta Probintziko beste ermandabe batzuk tratuan A. Kanpion jaunak argitaratu zituan 1291, 1296 eta 1306'garren urtetako paperetan; bañan ezta ermandade oien buru egiten zuan agintarien izenik agertzen. Ikusten denez, ez agintari bakarra danentzako, ezta ere ermandade bakarra danen artean, etzan oraindik sortu. Agintaria, au da, probintziak berak aukeratutakoa esan nai nuke; erregeak jarria ba-zan "Merino mayor" izeneko bat. Orrengatik urte garai aietan "Merindad de Guipuzcoa" esanten zan, ez probintzia baño, errege-etxetik zetozen eskutitz edo agiritan.

Etzazutela uzte izan, uri-berriak indartzeakin bakarrik, galdu zira-lur-alde edo ibarretako elkarteak. Beste norbaitzuk tartean sartu ziran antziñako oiturak naastutzeroa. Aide nagusiak (Parientes mayores) alegia. Naparru-tik Gipuzkoa apartatu zanean bietako jendeen artean artu zan gerra-giroan sortutakoak dira nere iritziz. Ballarak eta erri txikiak lapurren eskutatik beren ondasunak zaindu egin nai, eta bertan zuten mutillik jatorrena aukeratu, etsaiak uxatu, gogor artu eta egin zituztenen ordañak emateko danon buru egin zezan. Berastegui'n beiñe-pein ala gertatua zala diote paper zarrak. Besterik gabe sortuak edo aspalditik zetozen pamilitako buru egiten zutenak ote ziran, gaur ezin diteke erabaki. Dana dala, amalaugarren sigloan agertzen zaizkigu Oñaz-tarrak eta Ganboa-tarrak indarkeri bizian beren arten. Pamiliko seme, morroi eta maizter danak artuta indarkeri eta burrukak aurrera eramateko lain etziranean, lur-alde edo ibarretako elkarteak bereganatzen saiatzen ziran. "Entrar en las treguas", esaten zioten konponketa oni.

Errex ulertu dezakezute, era ortan jarraitu ezker ondoren negargariak izango zerala, aide nagusiak naikuak etzerala, ibar edo lur-aldeko elkarteak bata-besteen aurka jarriaz; probintziren erdia beste erdiaren kontra. Elkarte oiek "alcaldías mayores" izenekin ezagutzen ziran, eta amabi ote zeuden edo probintzi guztian, dio Ildefonso Gurrutxaga jaunak. Gende xea, pobrea, artzai eta nekazariak biltzen zituan elkarteak izan; eta Aide nagusieri arpegi emateko gauza etziranak. Bien arteko konponketatik zetozen galte izugarriak aurrera joan etzitezene, erregearen aginduz amabi alkate nagusi oiek desegin, eta erri txikitako auzi eta justiziko arazo guztiak "Merino mayor" edo zalako orren eskuetara eraman bear zerala erabaki zan.

Gipuzkoa-ko uri-berrien artean sortzen zijoan ermandadeari, berriz, gogorregia iruditu erregearen aginte au, eta 1375'grn. urtean egin zuten Tolosa'n guk orain arte ezagutzen degun lendarbiziko batzar edo billera. Ikusia zegoen lur-aldeko elkarte oien alkate nagusiak berriz ere Aide nagusien morroi izatera etorriko zerala; ta era bat kentzea bearrezkoa zala erabaki zuten. Ordutik aurrera amabi bearrean zazpi alkate izango ziran, ez bakoitza bere zatitan lenago bezela, baizik danak probintzi osoan justizia egiteko eskubideakin. Izena ere bestea eman zioten: "ermandadearen alkateak". Beren egitekorik prinzipalena auxe izango zan:

erritik kanpo, baso eta bideetan zebiltzen lapur, giza-erailtzalle eta gañontzeko gaizkille guztiak espetxean sartu eta merezi zuten kastigua eman; al zan juizio modurik errexenakin. *Curso de Hermandad*, ziotenez.

Lur-aldeko auzo, ballara eta erri txikitari beren alor eta etxeak zeuzkatenean alde emandako legea zan au; ta era berean Aide nagusieri laguntzen zietenen aurka. Baita ere uri-berrien artean sortzen ari zan ermandadeari bizia eta indarra emateko. Orra gai orrezaz batzar ortan bertan artutako beste erabaki bat: Danok, bai uri-berri, ta berdiñ auzo ballara eta erri txiki, etzutela Aide nagusiekin konponketarik (treguas) egin bear; baizik eta ermandadearen itzalpean bizi, beren artean sortutako eztabaidak ermandadeari agertu, eta ez inolaz ere arren aurka jokabiderik artu.

Pakean bizi nai zuten gipuzkoarrak etzuten erregeak jarritako "Merino mayor" edo zalako orren bearrik beren artean justizia egiteko. Berak alkar artu ezker, beste orrenbeste eta kanpotik etorritako lege gizonak baño egokiago egin zezatekela uste zuten. Eta Kastilla-ko erregeak ontzat eman zuan batzarrak erabakitako guztia; eta lendik zeukaten legea, bilduma edo liburuan jartzeko eskubidea eman zien.

Etzan ordea nai zan bezelako pakea eta alkartasuna lortu ala ere; eta berriz ere, bai Billafranka'n bai Tolosa'n bildu ziran batzarrak ermandadearen alde egiñal guztiak egin zituzten. Bañan inor beartu gabe. Ara (1391) Tolosa'n egindako batzarraren erabakia: Etzutela, alegia, indarrez egin bear erri guztien ermandadea, edo erregeak ori agintzen zualako; baizik danon borondatea ala alkartuta bizitzekoa zala ikusi arte. Nai al dezute demokrazi oberik!

5. FUEROEN ASIERA

Orain arte Gipuzkoa-ko jendeak paperetan idatzi edo eskribituta-ko legerik etzuten bear izan beren artu-emanak konpontzeko. Lendik zetozen usuario eta oitura onak zeuzkaten giza-legearen oñarriztat. Amairugarren mende edo sigloan bi indar berri jaiotzen ikusi ditugu: bate-tik erregeak sortu arazitako uri-berri edo "villas de fundación Real", bestetik, Aide nagusiak. Oiek, berak ziran lege-emaille eta lege auzitzalle. Gañetik jarriko zitzaizen agintaririk etzuten ametitzen. Uri-berriak, berriz, ha-zuten legea, "fuero de población" izenekoa, erregeak emandakoa; baita ere legea bete arazitzeko agintaria: alkatea. Asieratik konberi da uri-berriko fuero oiek gero aitaturiko diran fueroetatik bereixtea. Bi gauza ezberdiñak dira. Erregeak uri-berri bat sortu-arazi nai duanean, bertan bizitzera etorriko diranai eskubide batzuk ematen dizkie, giza-lege bat jartzene die danok ontzat artuko dutena. Berak erabakitakoa ez da, gañetik dagon agintariak jarritakoa baizik. Konforme ez ba-daude,

uri-berri ortara bizitzera ez ditezela joan. Inork ez ditu beartzen, errexta-sunak eman bakarrik.

Uri-berri eta Aide nagusien erdian lur-aldeko edo ibarretako erri-txiki, auzo, eta ballarak, agertzen zaizkigu, nora jo eztakitela. Aide nagusiekin lotuak zeuden batzuk, gero uri-berrien babesera etorri ziran. Kontuan artu Tolosa'ri inguruko 24 erri txiki bildu zizaizkiola. Zergatik? Aide nagusien mendean egon ezker, aien arteko indarkeri eta burruka bizietan (zer ikusterik ez izan da), sartuak arkitzen zituztelako bere buruak. Eta ainbeste etsai indartsuen aurka, erri txikitako agintariak jarri zezatekean zuzen-bidea oso aula eta errex zanpatu zitekena zalako.

Ordura arte gallen izan ziran Aide nagusiak, laister billatuko zuten arpegi emango zieten uri-berrietako agintariak. Sortu ta bereala naiko lan zeukaten uri-berriak beren giza-bizitza zuzentzen; bañan amalaugarren mende edo sigloa amaitzera zijoala, urte mordoxka ederra ba zuten geienak, ta urteekin batera justizia egiteko oitura eta gogo. Erri-tziki eta ballarak uri-berrien babesera etorritakoan, berriz, oiek asi ziran goitik kukurrukua jotzen, eta Aide nagusien indarra gero ta sutsuago menderatu naiean.

Asmo ortan bildu ziran 1397'grn. urtean ogeitamar uri-berriko ordezkariak Getari'ko elizan. Probintzi guzikoak esate baterako. Aldez aurretik eskatua zeukaten laguntza Kastilla'ko erregeari, eta bai bialdu ere onek Bizcaya'n correjidore zegon Gonzalo Moro jauna. Egitekorik nagusiena auxen zuten: Lendik zeukaten ermandadea indarberritu. "Para que todos hobiesen una Hermandad, segund solían haber, e entendiendo que por ello podrian venir mejor en Justicia y en paz, y sosiego". (Fueros, tit. 41, cap.º 13, pg. 342). Etzuten beste biderik arkitzen aspaldian zebilzkiten gorroto, indarkeri eta ezin ikusiak garaitzeko.

Irurogei kapitulo edo lege jarri zituzten, danak gaizkillen aurka justizia nolatan egin bear zan azalduaz. Kapitulo oietan aitatzen diran erruai eta, batez ere, ezarritako kastiguai axaletik begiratzea naikoa da, zenbateraño lur-jota zegon gure artean giza-legea, konturatzeke. Lapurreta, igali-eman arbolak moztutzea, etxeak eta uztak erretzea, neskak eta bai emakume ezkonduak ere gogorkeriz bereganatzea, lanerako tresnak ondatzea, giza-erailtzea; oiek danak eta beste olako zenbait, eguneroko ogia zuten. Kastiguak, berriz, gaur ezin konprenitzeko modukoak noski; ain gogorak izanik. Erremendioen zorrotzak agertzen du ondona, gaitzaren indarra.

Utzi ditzagun, jakingarriak ba-dira ere, Getari'ko batzar onek artu zituan erabaki guztiak azaltzeke; begiratu motz bat eman bear baitiogu gertaera onen sustraiari. Lur-aldeko auzo, ballara eta erri txikiak beren arteko gora-berak zuzentzeko zituzten usuario eta oitura onak, oinpean artuta zeuzkaten beste gende motak: Aide nagusiak, berak jaun ta jabe zirala uste zutelako; erregeak emandako legea ontzat artuta bizi ziralako, uri-berriak; eta danon artean, len esan danez, lur-jota zeukaten

giza-legea. Ain erruki-garri agertzen zan izaera onen erremediorako ari ziran uri-berriak, beren arteko ermandadea sortu eta indartu naiean. Onen aginpidetasuna (autoridadea) ez, ordea, bear bezela aitortzen, eta, orra nundik eta nolaz, danon gañetik zegon erregearengana jo zuten itzal eske. Guztiok errespetatu bearrean zeuden agintari batek, ermandadeak artutako erabakiak indartzen ez-ba zituan, alperrikako lana bai-zan legeak jartzea. Gauzik errexena agindu berriak jartze ori; utsaren urrengoa, berriz, lege oiek bete arazitzeke modurik ez-ba zegon. Ori dezute, ne iritiziz, gure "fueroen asiera".

Ermandadeak artutako erabakiak ontzat eman ba-zituzten bai erri txikietan bizi ziranak, bai Aide nagusiak, eta baita ere bertan alkartuak zeuden uri-berriak, erregeak sendotu bearrean etziran arkituko. Bizi ziran artean beteko zituztela agintzea, naikoa izango zan erabaki oiek legea-indarra agertzeko. Legeak gizona, agindutakoa betetzera, kanpotik (au da: berakin kontatu gabe) beartzen duan bezela, bakoitzak artu baitezake borondate onez oiturak edo danak ontzat emandako erabaki berriak esaten dutena betetzeko obligazioa! Era ortan zegon moldatua, asieran esan degun bezela, auzo eta ballaretako bizi-kera. Etzuten orduan kanpoko agintariak emango zien itzalaren bearrik. Ezta ere fuerorik, naikoa bai-zuten danok amore egiten zioten usuario eta oitura onakin.

Usuario eta oitura onak noiztik datozen eztakigu, fuerook noiz jaio ziran bai. 1375'grn. urtekoak dira orain arte ezagutzen ditugun lenda-bizikoak. Orduan artutako erabakiak, lendik Probintziak zeukan legebilduma edo liburuan jartzeko eskubidea eman zien ezkerko Kastilla-ko erregeak, pentsa dezakegu aurretik ere ba-zirala fueroen batzuk, gaurko egunez ezagutzen eztiranak. Ala ere geien geiena siglo edo mendearen erdiraño aurreratu giñezke, gai ontan jakintsu diranak esaten dutenez. Beraz, amalaugarren siglo edo mendean erdi-aldera jaio ziran gure lege-zarrak. Zaarragoak izaki, ez urte ezta ere siglorik siñalatzeko egokiera ematen ez duten usuario eta oitura onak.

Begira gure erritar Miguel de Aramburu jaunak, Fueruen itzaurrean diona: "Se dio principio a las leyes municipales de la muy Noble y muy Leal Provincia de Guypuzcoa en tiempo del rel don Henrique el segundo, habiéndose gobernado hasta entonces por sus buenos usos, y costumbres antiguas en lo meramente político, sin necesitar de leyes escritas, con la experiencia de ser más eficaz en sus pueblos, la persuasión blanda y suave de la costumbre, que la dura amenaza de las Leyes, y de ser siempre más bien recibidas las que en largo tiempo introdujo la costumbre, y conservó la práctica, teniendo de su parte la aprobación de todo el pueblo".

8

Bazkideak

KARDABERAZ BAZKUNAREN BAZKIDEAK

1. Abarisketa Esteban
2. Abaunza Jose Luis
3. Aburto Koldobika
4. Aguirre Iñaki
5. Aguirre Cecilio
6. Akesolo Lino
7. Albisu Anastasio
8. Albisu Carlos
9. Albisu Balendiñe
10. Agote Pedro
11. Aldanondo Jesús
12. Amuchategui Andoni
13. Arana Julita
14. Araolaza Juan
15. Aranzamendi Juan
16. Arocena Francisco
17. Aróstegui Joaquin
18. Arrinda Anastasio
19. Arrieta Feliciano
20. Artola Rafael
21. Atucha Pedro
22. Ayerbe Juan
23. Ayerdi Aquelino
24. Ayerbe Inocencio
25. Azcárate Miguel
26. Azpirtxaga Ricardo
27. Azpiroz Miguel Maria
28. Babace Eugenio
29. Barandiaran Jose Miguel
30. Baztarrica Jose Maria
31. Berasain Modesto
32. Peraza Manuel
33. Bergareche José
34. Berrondo Pedro
35. Bilbao Abaroa Fustaquio
36. Blancon Luis Maria
37. Dorronsoro Segundo
38. Eceizabarrena Juan Bautista
39. Eguia Luis
40. Elosegui Jesus
41. Eskauriatza Javier
42. Colegio P. Escolapios
43. Echaniz Feliciano
44. Echaniz Nemesio
45. Esnaola Serafin
46. Estomba Manuel
47. Galarraga Juan Maria
48. Galarraga Luis Maria
49. Ganhegui Satur
50. Garde Marcelino
51. Garmendia Victor
52. Garmendia Juan Jose
53. Gaztelumendi Claudio
54. Gaztañaga Jesus
55. Goicoecheundia Joaquin
56. Goiria Jose Chanton
57. Gorostidi Pedro
58. Ibarra Maria Asun
59. Insausti Sebastian
60. Intza Damaso
61. Iraola Eusebio
62. Irazoki Juan Bautista
63. Irigoyen Domingo
64. Iñarra Jose Luis
65. Iriondo Asunción
66. Irizar Sabin
67. Irizar Peli
68. Irulegi Juan Martin
69. Juaristi Sor Maria Luz
70. Korkostegui Reyes
71. Labayen Antonio
72. Larrañaga Luis
73. Larrarte Bernabe
74. Larrarte Mónica
75. Larrea Luis Maria
76. Lasa Diego
77. Lasa Iñaki
78. Lasa Iñaki

- | | | | |
|------|--------------------------|------|-------------------------|
| 79. | Lekuona Manuel | 103. | Oñatibia Ignacio |
| 80. | Lete Balbiñe | 104. | Oñatibia Yon |
| 81. | X. X. | 105. | Orbegozo Agustin |
| 82. | X. X. | 106. | Otamendi Jose Maria |
| 83. | Loidi Fabian | 107. | Otaegui Juan Ignacio |
| 84. | Malumbres Pilar | 108. | Otaegui Tomas |
| 85. | Martiarena Juan | 109. | Oteiza Iñaki |
| 86. | Manterola Gabriel | 110. | Peña Javier |
| 87. | Mauro, Abad, Benedictino | 111. | Peñagaricano Juan |
| 88. | Mokoroa Justo Maria | 112. | Pinillos Luciano |
| 89. | Mokoroa Anastasio | 113. | Plazaola Sotero |
| 90. | Montoya Pio | 114. | Pueyo Rita |
| 91. | Mugica Placido | 115. | Pujana Pedro |
| 92. | Mugica Manel | 116. | Perez Altuna Feliciano |
| 93. | Mugica Jose Antonio | 127. | Suquia Angel |
| 94. | Mugiro Angel | 128. | Suquia Jose Maria |
| 95. | Murua Ramón | 129. | Toledo Maria Dolores |
| 96. | Murua Jose María | 130. | Tolosa Felipe |
| 97. | Narbaiza Ramon | 132. | Ulayar Eugenio |
| 98. | Oar-arteta Jose Antonio | 133. | Urruzola Estanislao |
| 99. | Ocerinjuregui Eusebio | 134. | Zabalo Balendin |
| 100. | Olazar Martin | 135. | Zaitegui Plazaola Jokin |
| 101. | Onaindia Xanti | 136. | Zatarain Ambrosio |
| 102. | Oñatibia Dionisio | 137. | Zugasti Aniceto |



KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean
b) Kristau-pentsakera barruan (ezi
zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume) milla pta.
ordainduko dute sarrerako ta beste mi-
lla urtero. Diru oiekin ateratzen da
KARDABERAZ BILDUMA, bazki-
deentzako ezean.

Arpidedunak (bazkide nai ez dutenak) li-
buruak artzera beartzen dituzte beüren
buruak.

Bazkide nai arpidedun egiteko nora jo?
Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Donostian: Pedro Berrondo, c/ S. Martín,
57, etrlo.

Bilbon: José Antonio Retolaza, "Kili-Kili"
c/ Orueta, 1-3.º dcha. (Bilbao-9).

Gazteizen: José Zunzunegui, Seminario
Diocesano.

Amorebietan: S. Onaindia, Larrea.

Tolosan: Juan José Garmendia, Técnicas
de Difusión, c/ S. Francisco, 1.



KARDABERAZ-2

ZUZENDU BEARREKO BATZUEK

Orrial- dea	Lerroa	Onela dio	Onela bear luke
7	13	Aatari	Aitari
	29	uzte	uste
	30	euzteki	eusteko
8	37	dizkitugu	ditugu
13	27	zuren	zuten
14	21	artzerkia	antzerkia
	28	diegun	degun
15	39	egiñak	egiña
	8	maietara	maietara
	22	Abauza	Abauza
16	8	bazkideakoa	bazkidetakoa
	14	lennengo (leenengo)	lenengo
	19	billeetara	billaetaara
17	29	materako	baterako
	18	urratzak	urratsak
19	1	galditu	gelditu
	11	kardabe-raztarrak	kardaberaztarrak
21	1	Bizkaiakoa	Bizkaiakoak
	2	sortu-aurreti	sortu-aurretik
	23	Taerri	Ta erri
22	23	kardaberaztaren	kardaberaztarren
	6	onona	onena
	23	ar	edo
23	27	ero	edo
	26	ESPALAK	EZPALAK
24	23	idazle-ekolari	idazle-ekolari
25	10	zabalbid	zabalbide
	18	idazle-ekola	idazle-eskola
26	28	eat	eta
	28	zeotzen	zetozen
	37	eat	eta
28	9	aibeste	ainbeste
	17	Gipuzkoiko	Gipuzkoako (Gipuzkoa'ko)
31	9	gabegoa	gabekoa
	13	orindik	oraindik
	14	baiat	baita
	23	Idork	Iñork
32	10	Orrezaz	Orrezaz
33	12	euskearri	euskarari
34	5	saoren	saioren
	22	raillean	Iraillean
35	22	ibeste	beste
36	9	onetarikorbe	onetarikorik orde
	10	Amaseia	Amasei
37	5	NEURRIRI NEURI	NEURRIRI NEURRI
38	19	daustazunazkero	daustazunazkero
42	32	ettxean	etxean

Orrial- dea	Lerroa	Onela dlo	Onela bear luke
43	31	bi	oi
45	22	aditz-erenkada	aditz-errenkada
49	5	ezartzea	ezartzea
	36	eez	ez
50	8	izildu	ixildu
51	24	otsi	ots!
	36	esezkoan	ezezkoan
52	25	oso tuaren	osotuaren
53	8	artiquiloaren	artikuloaren
	26	adits	aditz
55	21	Bestee	Bestek
56	36	Giluzkoan	Gipuzkoan
57	6	EGARRIAG	EGARRIAK
61	5	aurrera	aurra
66	25	auki	enki
71	9	genezazaiozke	genezaiozke
73	10	zalalkundeak	zabalkundeak
75	18	Izkutz-anaiak	Izkuntz-anaiak
80	14	uanditu	aunditu
81	4	azko	asko
	13	Bizits	Bizitz
82	36	ezkuak	eskuak
85	20	In	II
	27	ginduan	ginduzan
89	41	begirazun	begirasun
90	6	asparditik, esa	aspalditik, eta
	15	galera	gañera
92	24	AUZOTAZUNA	AUZOTASUNA
	32	zenit uzteke	zenituzteke
93	41	Orain goan	Oraingoan
98	11	bere ganatu	bereganatu
	17	Oriz	Orriz
102	2	ermandabe e	ermandade
	9	esanten	esaten
	33	galde	kalte

OARRA: Euzkera, euzkaldun eta Euzkal-erri agertzen dira, baiñan ez ditut auek aldatu bizkaitarrak onela esaten dituztelako.